

# MEMORIA2006TXOSTENA

www.emakunde.es

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# JARDUERA
# MEMORIA 2006 TXOSTENA
# DE ACTUACIÓN

ya Plaza Barr
Hidalgo • Itziar Bengoa Itu
aga • Miren Arantza Madariaga Abe
o Alvarez Fernández • Lola Arizti Bayón
asso Sevilla • Xabier Lazcoz Zabaleta • Ana M
Zarain • Ana Agirre Saez de Egilaz • Ana Alberdi
ez Amo • Ana Idirin García Vicuña • Iñaki Imaz M
iguez Abad • Mª Carmen Ruiz Butrón • Mª Teresa Sa
Picaza • Miren Izaskun Fernandez Otegi • Mª Angel
ya Plaza Barruetabeña • Raquel Raposo Acevero • Ár dr
tziar Bengoa Iturritxa • Ander Bergara Sautua • Lor z Pic
antza Madariaga Aberasturi • Izaskun Moyua Pinil aya Plaz
dez • Lola Arizti Bayón • Mª Concepción Barrio • Itziar Ber
er Lazcoz Zabaleta • Ana Maria Lopez U Miren Arantza M
Saez de Egilaz • lvarez Fernández • Lola A
a Vicuña • Iñaki Lasso Sevilla • Xabier Lazcoz Zabale
uiz Butrón • Mª Santamaria Zarain • Ana Agirre Saez de Egilaz •
andez Otegi • Mª s Gonzalez Amo • Ana Idirin García Vicuña • Iñak
rb l Raposo Acevero el Rodríguez Abad • Mª Carmen Ruiz Butrón • Mª
corro Al Bergara Sautua • a Díaz Picaza • Miren Izaskun Fernandez Otegi •
Lasso Sevilla Izaskun Moyua Pi Amaya Plaza Barruetabeña • Raquel Raposo Ace
Zarain • Ana Agirre oncepción Barrios • Itziar Bengoa Iturritxa • Ander Bergara Sautua
Amo • Ana Idirin García Vic pez Urberuaga • Mi antza Madariaga Aberasturi • Izaskun Moyua Pin
bad • Mª Carmen Ruiz Butrón • • Socorro Alvarez Fe ez • Lola Arizti Bayón • Mª Concepción Barrios
• Miren Izaskun Fernandez Otegi • Mª A coz Zabaleta • Ana Maria Lopez Urberuaga •
uetabeña • Raquel Raposo Acevero • Ángel Ro az • Ana Alberdi Zubía • Socorro Alvarez Fe
rritxa • Ander Bergara Sautua • Lorena Díaz Picaza • ñaki Imaz Mujika • Pilar Lasso Sevilla • X
Aberasturi • Izaskun Moyua Pinillos • Amaya Plaza Barruetabe esa Santamaria Zarain • Ana Agirre Sa
• Mª Concepción Barrios Hidalgo • Itziar Bengoa Iturritxa • Ander Be Gonzalez Amo • Ana Idirin Gar
Ana Maria Lopez Urberuaga • Miren Arantza Madariaga Aberasturi • Izaskun Mo íquez Abad • Mª Carmen
berdi Zubía • Socorro Alvarez Fernández • Lola Arizti Bayón • Mª Concepción Barrios Hida iren Izaskun Fern
Mujika • Pilar Lasso Sevilla • Xabier Lazcoz Zabaleta • Ana Maria Lopez Urberuaga • Miren Arantza
Santamaria Zarain • Ana Agirre Saez de Egilaz • Ana Alberdi Zubía • Socorro Alvarez Fernández • Lola Arizti Bay
Gonzalez Amo • Ana Idirin García Vicuña • Iñaki Imaz Mujika •Pilar Lasso Sevilla • Xabier Lazcoz Zabaleta • Ana Maria Lopez Ur
odríguez Abad • Mª Carmen Ruiz Butrón • Mª Teresa Santamaria Zarain • Ana Agirre Saez de Egilaz • Ana Alberdi Zubía • Socorro Alvarez Fernand
aza • Miren Izaskun Fernandez Otegi • Mª Angeles Gonzalez Amo • Ana Idirin García Vicuña • Iñaki Imaz Mujika • Pilar Lasso Sevilla • Xabier Lazcoz Zabaleta • Ana Maria Lopez
ruetabeña • Raquel Raposo Acevero • Ángel Rodríguez Abad • Mª Carmen Ruiz Butrón • Mª Teresa Santamaria Zarain • Ana Agirre Saez de Egilaz • Ana Alberdi Zubía • So
• Ander Bergara Sautua • Lorena Díaz Picaza • Miren Izaskun Fernandez Otegi • Mª Angeles Gonzalez Amo • Ana Idirin García Vicuña • Iñaki Imaz Mujika • Pilar Lasso
n Moyua Pinillos • Amaya Plaza Barruetabeña • Raquel Raposo Acevero • Ángel Rodríguez Abad • Mª Carmen Ruiz Butrón • Mª Teresa Santamaria Zarain • Ana
os Hidalgo • Itziar Bengoa Iturritxa • Ander Bergara Sautua • Lorena Díaz Picaza • Miren Izaskun Fernandez Otegi • Mª Angeles Gonzalez Amo • Ana I
iren Arantza Madariaga Aberasturi • Izaskun Moyua Pinillos • Amaya Plaza Barruetabeña • Raquel Raposo Acevero • Ángel Rodríguez Abad • M
rnández • Lola Arizti Bayón • Mª Concepción Barrios Hidalgo • Itziar Bengoa Iturritxa • Ander Bergara Sautua • Lorena Díaz Picaza • Miren
r Lazcoz Zabaleta • Ana Maria Lopez Urberuaga • Miren Arantza Madariaga Aberasturi • Izaskun Moyua Pinillos • Amaya Plaza Barrueta
le Egilaz • Ana Alberdi Zubía • Socorro Alvarez Fernández • Lola Arizti Bayón • Mª Concepción Barrios Hidalgo • Itziar Bengoa Itu
ña • Iñaki Imaz Mujika • Pilar Lasso Sevilla • Xabier Lazcoz Zabaleta • Ana Maria Lopez Urberuaga • Miren Arantza Madariaga Abe
Mª Teresa Santamaria Zarain • Ana Agirre Saez de Egilaz • Ana Alberdi Zubía • Socorro Alvarez Fernández • Lola Arizti Bayón
ngeles Gonzalez Amo • Ana Idirin García Vicuña • Iñaki Imaz Mujika • Pilar Lasso Sevilla • Xabier Lazcoz Zabaleta • Ana M
el Rodríguez Abad • Mª Carmen Ruiz Butrón • Mª Teresa Santamaria Zarain • Ana Agirre Saez de Egilaz • Ana Alberdi
z Picaza • Miren Izaskun Fernandez Otegi • Mª Angeles Gonzalez Amo • Ana Idirin García Vicuña • Iñaki Imaz Muj
aza Barruetabeña • Raquel Raposo Acevero • Ángel Rodríguez Abad • Mª Carmen Ruiz Butrón • Mª Teresa Santa
a Iturritxa • Ander Bergara Sautua •Lorena Díaz Picaza • Miren Izaskun Fernandez Otegi • Mª Angeles Gonzal
Aberasturi • Izaskun Moyua Pinillos •Amaya Plaza Barruetabeña • Raquel Raposo Acevero • Ángel Rodrig
yón • Mª Concepción Barrios Hidalgo • Itziar Bengoa Iturritxa • Ander Bergara Sautua • Lorena Díaz Pic
Maria Lopez Urberuaga • Miren Arantza Madariaga Aberasturi • Izaskun Moyua Pinillos • Amaya Plaz
Zubía • Socorro Alvarez Fernández • Lola Arizti Bayón • Mª Concepción Barrios Hidalgo • Itziar Ber

| | |
|---|---|
| **Título:**<br>***Izenburua:*** | Memoria. Emakunde 2006<br>Txostena. Emakunde 2006 |
| **Edita:**<br>***Egilea:*** | Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer<br>Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea<br>Manuel Iradier, 36<br>01005 VITORIA-GASTEIZ<br>Tfno./Tfnoa.: 945.01.67.00<br>Fax/Faxa: 945.01.67.01<br>E-mail: emakunde@ej-gv.es<br>www.emakunde.es |
| **Diseño y Elaboración:**<br>***Diseinua eta Lanketa:*** | Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer<br>Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea |



© Administración de la C.A. de Euskadi
Euskal AEko Administrazioa



| | |
|---|---|
| **Tirada/*Ale-kopurua:*** | 1.500 ejemplares/ale kop.<br>IV-2007 |
| **Fotomecánica y Fotocomposición:**<br>***Fotomekanika eta Fotokonposaketa:*** | Rali, S.A.<br>Bilbao |
| **Impresión y Encuadernación:**<br>***Inprimaketa eta Koadernaketa:*** | Rali, S.A.<br>Bilbao |
| **Depósito Legal/*Lege-gordailua:*** | BI-1191-07 |

PAPERA EKOLOGIKOA
PAPEL ECOLÓGICO

# Presentación

Izaskun
Moyua
Pinillos
Directora

Miren Arantza
Madariaga
Aberasturi
Secretaria General

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer elabora todos los años su *Plan Anual de Actuación* y su correspondiente *Memoria de Ejecución*. Este año, con el objetivo de dar a conocer sus actividades así como su propia estructura y funcionamiento, se ha elaborado la presente publicación bajo el título *"Memoria de Actuación de Emakunde. 2006".*

En esta *Memoria*, se recopilan las actuaciones principales que ha diseñado, impulsado y promovido Emakunde en cumplimiento del correspondiente *Plan Anual de Actuación.*

Esta publicación se estructura en ocho capítulos: Los tres primeros recogen las actuaciones correspondientes a los dos propósitos principales que orientan la actuación de Emakunde: El desarrollo de las funciones de impulso, coordinación, seguimiento y evaluación atribuidas al Instituto que se centra principalmente en la capacitación de la propia administración para el diseño y desarrollo de políticas con perspectiva de género y su ejecución, a través de los mecanismos de coordinación establecidos con las Administraciones General, Foral y Local y, el desarrollo de las funciones de información y asesoramiento, de fortalecimiento de la organización y participación social de las mujeres, de sensibilización social y de cooperación e intercambio con otros organismos de igualdad de ámbito estatal e internacional.

Así, el primer capítulo expone las acciones de Impulso, Coordinación, Asesoramiento y Seguimiento de las Políticas Públicas, hace referencia a las acciones llevadas a cabo con los tres niveles de la Administración e incluye aquellas que se desarrollan en el marco de los Fondos Europeos. El segundo y tercer capítulos recogen las acciones dirigidas a la sociedad e incluyen, por una parte, aquellas destinadas a promover y fortalecer el Asociacionismo de las Mujeres y la Participación de las Organizaciones Sociales y Empresariales y por otra, aquellas dirigidas a la Sensibilización Social.

En el capítulo tercero, en el apartado relativo al Asesoramiento Jurídico, además de recoger la actividad ordinaria anual del Instituto en esta materia, se menciona también los trabajos realizados por éste con relación al desarrollo y aplicación de la *Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres* que aprobó el Parlamento Vasco el 18 de febrero de 2005 y que tiene por objeto establecer los principios generales que han de presidir la actuación de los Poderes Públicos en materia de Igualdad de Mujeres y Hombres, así como regular un conjunto de medidas dirigidas a promover y garantizar la igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida y, en particular, a promover la autonomía y a fortalecer la posición social, económica y política de aquéllas.

Los cuatro siguientes recogen las actividades que Emakunde desarrolla con el fin de crear y facilitar instrumentos que soporten las actuaciones que se han de desarrollar en los ámbitos mencionados an-

# Aurkezpena

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak urtero-urtero egiten ditu *Urteko Jarduera Plana* eta horri dagokion *Gauzatze Memoria*. Aurten, erakundearen jarduerak, egitura eta funtzionamendua ezagutarazteko, argitalpen hau landu du, "*Emakunderen Jarduera Txostena. 2006*" izenburuarekin.

IZASKUN
MOYUA
PINILLOS
Zuzendaria

MIREN ARANTZA
MADARIAGA
ABERASTURI
Idazkari Nagusia

*Memoria* horretan, Emakundek *Urteko Jarduera Plana* betetzeko diseinatu, bultzatu eta sustatu dituen jarduera nagusiak biltzen dira.

Argitalpen hau zortzi kapitulutan egituratuta dago. Lehenengo hiru kapituluetan Emakunderen *ekintza* gidatzen duten bi asmo nagusiei dagozkien jarduerak biltzen dira: alde batetik, Erakundeari bultzatu, koordinatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko dagozkion funtzioak, Administrazioa genero-ikuspegidun politikak diseinatu, garatu eta gauzatzeko gai izan dadin, Administrazio Orokorrean, Foru Administrazioan eta Tokiko Administrazioan dauden koordinazio-mekanismoen bidez; bestetik, emakumeei informazioa eta aholkua eman, emakumeen elkarteak eta parte-hartzea sendotu, gizartea sentsibilizatu eta estatuko zein nazioarteko berdintasunerako beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun eta elkartrukatzeko jarduerak.

Hala, lehenengo kapituluan, Politika Publikoen sustapena, koordinazioa, aholkularitza eta jarraipena egiteko ekintzak azaltzen dira, eta Administrazioaren hiru mailetan aplikatutako ekintzak aipatzen dira, Europako Funtsen esparruan garatzen direnak barne. Bigarren eta hirugarren kapituluetan, berriz, gizartearentzako ekintzak biltzen dira: batetik, Emakumeen Asoziazionismoa eta Gizarte eta Enpresa Erakundeen Parte-hartzea sustatzea eta indartzea helburu dutenak, eta, bestetik, Gizarte Sentsibilizazioa xede dutenak.

Hirugarren kapituluan, Aholkularitza Juridikoari dagokion atalean, Erakundeak gai horretan urtean burutu ohi duen ohiko jarduera jasotzeaz gain, *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea* garatu eta aplikatzeko egindako lana ere aipatzen da. Legea Eusko Legebiltzarrak onartu zuen 2005eko otsailaren 18an, eta haren helburua da, alde batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean botere publikoen jarduera zuzendu behar duten oinarri nagusiak finkatzea, eta bestetik, bizitzako alderdi guztietan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna sustatu eta bermatzeko eta emakumeen autonomia eta egoera sozial, ekonomiko eta politikoa hobetzeko neurriak arautzea.

Hurrengo lau kapituluetan Emakundek garatutako hainbat jarduera biltzen dira; jarduera horien helburua zenbait tresna sortzea eta erraztea da, aurrez aipatutako esparruetan garatu behar diren jar-

teriormente. Se incluyen las actividades de Formación, de Asesoramiento Jurídico e Información, de Estudios y Publicaciones y la actividad del Centro de Documentación.

El octavo recoge, finalmente, las actividades del Instituto tanto en el marco de la Colaboración e Información con Otras Instituciones de fines similares a las del Instituto, de otras Comunidades Autónomas, del Estado, del Ámbito Europeo e Internacional, como aquellas dirigidas a promover la participación de las mujeres y la incorporación de la perspectiva de género en las Políticas y Planes de Cooperación al Desarrollo que se apoyan y desarrollan desde nuestra Comunidad.

Emakunde desea testimoniar su agradecimiento a todas aquellas personas que con su contribución han hecho posible esta *Memoria de Actuación* que, a buen seguro, posibilitará el conocimiento de las iniciativas llevadas a cabo por el Instituto para implicar a todas las Administraciones Públicas Vascas y afectar de modo transversal a todos los sectores de nuestra sociedad en la consecución de la Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres.

Vitoria-Gasteiz, marzo de 2007.

duerei eusteko. Honako alor hauei dagozkien jarduerak biltzen dira: Prestakuntza, Aholkularitza Juridikoa eta Informazioa; Ikasketak eta Argitalpenak; eta Dokumentazio Zentroaren jarduera.

Azkenik, zortzigarren kapituluan biltzen diren jarduerek honako helburu hauek dituzte: batetik, erakundearen antzeko helburuak dituzten beste erakunde batzuk (beste Autonomia Erkidego batzuetakoak, Estatukoak edo Europako zein nazioartekoak) laguntzea eta informatzea; eta, bestetik, emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta gure Erkidegotik garatu eta bultzatzen diren garapen-politika eta -planetan genero-ikuspegia txertatu dadin sustatzea.

Emakundek eskerrik beroenak eman nahi dizkie beren laguntzarekin *Jarduera Txosten* hau egitea ahalbidetu duten guztiei. Erakundeak hainbat ekimen jarri ditu abian, Euskal Administrazio Publiko guztiak, eta, zeharka, gure gizartearen sektore guztiak inplikatzeko, Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna lortzeko ahaleginean. Eta uste osoa dugu landutako memoria hau laguntza handikoa izango dela ekimen horiek guztiak ezagutarazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko martxoa.

# Índice

I. **Impulso, Coordinación y Asesoramiento en la Ejecución del *"IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV. Directrices VIII Legislatura"*** . . . . . 10

Consejo de Dirección . . . . . 10

Comparecencias Parlamentarias . . . . . 24

Administración General . . . . . 26

Ámbito Territorial y Local . . . . . 44

El Marco Europeo . . . . . 50

II. Fomento del Asociacionismo de Mujeres . . . . . 70

III. Las Organizaciones Sociales y Empresariales . . . . . 82

Igualdad de Oportunidades en las Empresas y Organizaciones . . . . . 82

Género y Medios de Comunicación . . . . . 84

Asesoramiento a Programas y Actividades Externas . . . . . 86

IV. Formación . . . . . 90

Formación Interna . . . . . 90

Formación Externa . . . . . 90

V. Sensibilización . . . . . 98

Foro para la Igualdad: NARO 2006 . . . . . 100

Jornadas . . . . . 100

Conferencias Impartidas por Emakunde . . . . . 104

Campañas de Comunicación . . . . . 110

Revista Emakunde . . . . . 116

Calendario Emakunde . . . . . 118

Premios Emakunde . . . . . 120

Presencia en los Medios de Comunicación . . . . . 124

Otras actividades de sensibilización . . . . . 128

VI. Asesoramiento Jurídico e Información . . . . . 130

Administración . . . . . 130

Informes . . . . . 142

VII. Estudios, Publicaciones, Centro de Documentación . . . . . 148

Estudios . . . . . 148

Publicaciones . . . . . 152

Centro de Documentación . . . . . 154

VIII. Relaciones con el Exterior: Estado e Internacional . . . . . 162

Con el Estado . . . . . 162

Marco Internacional y Cooperación al Desarrollo . . . . . 164

# Aurkibidea


I. *"EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak"* gauzatzeko Bultzada, Koordinazioa eta Aholkua . . . . . 11

Zuzendaritza Kontseilua . . . . . 11
Legebiltzarreko Agerraldiak . . . . . 25
Administrazio Orokorra . . . . . 27
Lurraldeko eta tokiko esparrua . . . . . 45
Europar esparrua . . . . . 51

II. Emakumeen Asoziazionismoa Sustatzea . . . . . 71

III. Gizarte eta Enpresa Erakundeak . . . . . 83
Aukera Berdintasuna Enpresa eta Erakundeetan . . . . . 83
Generoa eta Komunikabideak . . . . . 85
Kanpo Programa eta Jardueretarako Aholkularitza . . . . . 87

IV. Prestakuntza . . . . . 91
Barne Prestakuntza . . . . . 91
Kanpo Prestakuntza . . . . . 91

V. Sentsibilizazioa . . . . . 99
Berdintasunerako Gunea: 2006 NARO . . . . . 101
Jardunaldiak . . . . . 101
Emakundek egindako hitzaldiak . . . . . 105
Komunikazio Kanpainak . . . . . 111
Emakunde Aldizkaria . . . . . 117
Emakunde Egutegia . . . . . 119
Emakunde Sariak . . . . . 121
Komunikabideetan esku hartzea . . . . . 125
Beste sentsibilizazio-ekintza batzuk . . . . . 129

VI. Aholkularitza Juridikoa eta Informazioa . . . . . 131
Administrazioa . . . . . 131
Txostenak . . . . . 143

VII. Ikerketak, Argitalpenak, Dokumentazio Zentroa . . . . . 149
Ikerketak . . . . . 149
Argitalpenak . . . . . 153
Dokumentazio Zentroa . . . . . 155

VIII. Kanpo Harremanak: Estatukoak zein Nazioartekoak . . . . . 163
Estatukoak . . . . . 163
Nazioarteko Esparrua eta Garapenerako Lankidetza . . . . . 165

# I. Impulso, Coordinación y Asesoramiento en la Ejecución del *"IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV. Directrices VIII Legislatura"*

## Consejo de Dirección

El Consejo de Dirección de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, que preside el Lehendakari, celebró el 7 de marzo su primera reunión del año 2006. En la misma, tras la aprobación del *Acta* de la reunión anterior, se trataron los siguientes puntos:

– *El Proyecto de Decreto de Estructura Orgánica y Funcional de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.*

– *El Proyecto de Decreto de Regulación de la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

– *El Proyecto de Decreto de Creación y Regulación del Premio Emakunde a la Igualdad.*

– *El Proyecto de Resolución para la Regulación y Concesión de Subvenciones por parte de Emakunde para el año 2006.*

Gráfico 1. Composición del Consejo de Dirección de Emakunde.




*Emakundeko egitura*
Estructura de Emakunde

*Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikitako erakunde autonomoa da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.*

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, es un Organismo Autónomo adscrito a la Presidencia del Gobierno Vasco.



El Consejo de Dirección es el órgano de tutela y control de Emakunde.

# I. *“EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak”* gauzatzeko Bultzada, Koordinazioa eta Aholkua

## Zuzendaritza Kontseilua

Lehendakaria buru duen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak martxoaren 7an egin zuen 2006ko lehenengo bilera. Bertan, aurreko bilerako *akta* onartu eta gero, honako puntu hauek jorratu zituzten:

– *Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Egitura Organiko eta Funtzionalari buruzko Dekretu Proiektua.*

– *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea Arautzeko Dekretu Proiektua.*

– *Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria Sortu eta Arautzeko Dekretu Proiektua.*

– *Emakundek 2006. urteko Dirulaguntzak Arautu eta Emateko Ebazpen Proiektua.*

### 1. Grafikoa. Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluaren Osaketa.

1. *Lehendakaria*
   Lehendakari
2. *Emakundeko Zuzendaria*
   Directora de Emakunde
3. *Emakundeko Idazkari Nagusia*
   Secretaria General de Emakunde
4. *Eusko Jaurlaritzako Sailak*
   Departamentos del Gobierno Vasco
5. *Foru Aldundiak*
   Diputaciones Forales
6. *Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordea*
   Comisión de Derechos Humanos del Parlamento Vasco
7. *Eusko Legebiltzarrak zuzenean izendatuta*
   Por nombramiento directo del Parlamento Vasco
8. *Udalak*
   Municipios
9. *Aholku-Batzordeko ordezkaria*
   Representante de la Comisión Consultiva




Zuzendaritza Kontseilua da Emakunderen tutoretzako eta kontroleko organoa.

– *El Proyecto de Resolución para la Convocatoria del Premio Emakunde a la Igualdad 2006.*

A continuación, en cumplimiento de la *Ley de Igualdad de Mujeres y Hombres*, y tras la propuesta de Izaskun Moyua como Directora de Emakunde, se aprobó sin ningún voto en contra, proponer al Lehendakari para su designación y nombramiento como Defensora para la Igualdad de Mujeres y Hombres a Maite Erro Jáuregui que fue oficialmente nombrada el día 24 de mayo.

Izaskun Moyua presentó al Consejo, el *II Borrador del IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV* acordándose posponer su presentación a consulta pública a la finalización de las tareas interinstitucionales de profundización en sus contenidos.




El 19 de julio, se celebró la segunda reunión del Consejo de Dirección de Emakunde del año 2006. Tras la aprobación del *Acta* de la reunión anterior, se procedió a presentar y aprobar *La Memoria de Actuación de Emakunde* correspondiente al ejercicio 2005.

Posteriormente, la directora de Emakunde presentó el *Informe Anual "Cifras sobre la Situación de las Mujeres y los Hombres en la Comunidad Autónoma de Euskadi. 2005"*. Izaskun Moyua destacó algunos aspectos más significativos del citado *Informe* que, elaborado a partir de diversas fuentes secundarias disponibles, recoge una serie de indicadores relativos a las distintas áreas que configuran la realidad social, siendo éstas las siguientes: población, empleo, educación, uso del tiempo, deporte, salud, participación política y asociacionismo, violencia contra las mujeres y pobreza. Una lectura global de los datos muestra la persistencia de las desigualdades en todos los ámbitos de nuestra sociedad, desigualdades que se traducen en la discriminación de las mujeres y en su extremo más visible, en la pobreza y en la violencia que sufren.




– En cuanto a los aspectos demográficos, las mujeres representan el 51% de la población de la Comunidad. De las personas mayores de 80 años, el










– *Berdintasunaren aldeko 2006ko Emakunde Sariaren Deialdia egiteko Ebazpen Proiektua.*

Jarraian, *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea* betez, eta Izaskun Moyua Emakundeko Zuzendariak hala proposatuta, Lehendakariari Maite Erro Jauregui Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzaile izendatzeko eskatzea onartu zuen Kontseiluak, aurkako botorik gabe.

Horrez gain, *EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren II. Zirriborroa* aurkeztu zuen Izaskun Moyuak Kontseiluan. Haren edukiak sakontzeko erakunde arteko lanak amaitzen direnean jendaurrean jartzea erabaki zuten.

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak 2006an egindako bigarren bilera uztailaren 19an izan zen. Aurreko bilerako *akta* onartu eta gero, *Emakunderen 2005eko Jarduera Memoria* aurkeztu eta onartu zuten.

Ondoren, Emakundeko Zuzendariak *"Emakume eta Gizonen Egoerari buruzko Zenbakiak. 2005" Urteko Txostena* aurkeztu zuen. *Txostenari* buruzko alderdirik esanguratsuenak azpimarratu zituen Izaskun Moyuak. Eskura dauden bigarren mailako hainbat iturritan oinarrituta, gizartearen errealitatea osatzen duten adierazle batzuk jasotzen ditu, hala nola: biztanleria, enplegua, hezkuntza, aisialdiaren erabilpena, kirola, osasuna, partaidetza politikoa eta asoziazionismoa, emakumeen aurkako indarkeria eta pobrezia. Datu horien gaineko irakurketa orokorrak agerian uzten du desberdintasunek gure gizarteko alde guztietan irauten dutela. Desberdintasun horien ondorioa emakumeen diskriminazioa da eta, muturrik agerikoenean, emakumeek jasaten duten pobrezia eta indarkeria.

– Datu demografikoei dagokienez, Erkidegoko biztanleen %51 emakumezkoak dira. 80 urtetik gorako biztanleetatik, %64 emakumeak dira. Bestalde,

64% son mujeres. Por otra parte, la tasa de natalidad muestra una moderada recuperación y se sitúa en 9,3 en el año 2004. Ese año el 60% de las mujeres que tuvieron descendencia se situaba en la franja de edad de los 30 a los 36.




– El trabajo según sea o no remunerado muestra un panorama diferente entre los sexos. Así, ocho de cada diez personas que tienen actividad no laboral y que no buscan empleo son mujeres que se dedican principalmente a tareas del hogar y al estudio. Según el EUSTAT, el 75 por ciento del trabajo doméstico no remunerado recae sobre las mujeres.

– La tasa de actividad de las mujeres en la CAPV aumenta constantemente, 44,9% en 2004. Las diferencias respecto a la de los hombres es de 20,3 puntos porcentuales, no habiéndose cumplido el objetivo previsto en la Cumbre del Consejo Europeo celebrada en Estocolmo en marzo del 2001 según el cual, el reto era alcanzar el 57,0% en la actividad de las mujeres para este año.

– Entre las personas ocupadas sin contrato, las mujeres constituyen el 77,2% en 2005. La temporalidad afecta también en mayor medida a las mujeres. Así, el 76,4% de los hombres contratados cuentan con un contrato indefinido-fijo mientras que en el caso de las mujeres las indefinidas-fijas disminuyen al 69,0%. Por lo que respecta al tipo de jornadas laborales, la proporción de mujeres entre las personas con jornada completa ha oscilado entre 33,9% y 35,0% en el 2005 según el trimestre. Así, las mujeres ocupadas con jornada a tiempo parcial rondan el 25,0%, mientras que en el caso de los hombres no llega al 5,0%. El paro en las mujeres alcanza el 7,0% y en los hombres el 5,7%.




– En ámbito de la salud, conforme aumenta la gravedad de los accidentes laborales, la proporción de trabajadoras disminuye considerablemente, de los 82 accidentes mortales solamente 6 afectaron a una

Gráfico 2. Porcentaje de personas sobre las que recae el trabajo doméstico no remunerado, según sexo. (Fuente: EUSTAT).

2. Grafikoa. Etxeko lan ez ordainduaren ardura duten pertsonak, sexuaren arabera. (Iturria: EUSTAT).

Gráfico 3. Porcentaje de personas ocupadas sin contrato, según sexo. (Año 2005).

3. Grafikoa. Kontraturik gabe enplegatutako pertsonen kopurua, sexuaren arabera. (2005. urtea).

jaiotze-tasak berreskuratzeko joera apala erakusten du eta, 2004. urtean, 9,3 izan zen. Urte horretan, 30 eta 36 urte bitartekoak izan ziren seme-alabak izan zituzten emakumeen %60.

— Lanean ere, ordaindua izan ez izan, egoera ezberdina da sexuaren arabera. Hala, lanekoa ez den jarduera duten hamar lagunetik zortzi emakumezkoak dira eta, gehien bat, etxeko lanetan edo ikasten dihardute. EUSTATen arabera, ordaindu gabeko etxeko lanen %75 emakumeen eskuetan dago.

— EAEko emakumeen jarduera-tasa etengabe handitzen ari da eta, 2004. urtean, %44,9ra heldu zen. Tasa horren eta gizonen tasaren arteko ezberdintasuna 20,3 puntukoa da. Hortaz, 2001eko martxoan Stockholmen izandako Europako Kontseiluaren Gailurrean erabakitako helburua ez da bete, emakumeen jarduera-tasa %57,0era iristea baitzen helburua.

— Lanean kontraturik gabe dihardulen pertsonen artean, emakumeak %77,2 ziren 2005ean. Era berean, lanaren behin-behinekotasunak eragin handiagoa du emakumeengan. Hala, kontratatutako gizonen %76,4k kontratu finko mugagabea dute eta, emakumeen kasuan, lan finko mugagabea dutenen ehunekoa %69,0 besterik ez da. Lan-jardunaldiei dagokienez, lanaldi osoa dutenen artean emakumeen ehunekoa %33,9 eta %35,0 bitartekoa zen 2005ean, hiruhilekoaren arabera. Izan ere, lanaldi laburreko jardunaldian dihardulen emakumeak %25,0 dira, gizonen artean ehuneko hori %5,0era iristen ez den bitartean. Azkenik, langabezia-tasa %7,0 da emakumeen artean eta, gizonetan, %5,7.

— Osasunaren alorrean, lan-istripuaren larritasuna handitu ahala, eragindako emakumezko langileen kopuruak nabarmen egiten du behera. Hala, langileen heriotza eragin zuten 82 istripuetatik

empleada. Las personas residentes en la CAPV tienen en general una percepción positiva de su propia salud. No existen diferencias relevantes entre mujeres y hombres respecto este aspecto y la tendencia general de los últimos años es que ésta sea cada vez más positiva en ambos sexos. La percepción empeora en ambos sexos, aunque de manera más significativa en las mujeres, según avanza la edad.

– Las mujeres son tradicionalmente mayores usuarias de los servicios sanitarios. La utilización de las mujeres es mayor sobre todo en lo que se refiere a consultas en el centro de salud o ambulatorio y se reduce y es inferior a la de los hombres en lo que respecta a la utilización y permanencia en centros hospitalarios. Las estadísticas relativas a la duración de la hospitalización en la CAPV muestran que prácticamente en todos los casos, la permanencia de los hombres en los centros hospitalarios ha sido mayor que la de las mujeres con el mismo diagnóstico.

– En el ámbito educativo, la proporción entre los sexos es bastante equilibrada en dos de los tres bloques principales en los que se divide la Enseñanza General (Primaria-Secundaria y Superior) y responde básicamente a la distribución demográfica real de acuerdo con el periodo de enseñanza obligatoria. Hay diferencias, no obstante, en el caso de la Formación Profesional, donde la proporción de chicos es superior sobre todo en el Grado Medio ya que suponen el 61,8% del alumnado total. Por otro lado, en relación con la Enseñanza Superior se repite la tendencia de años anteriores, según la cual, la presencia de mujeres es casi 10 puntos superior a la de hombres: 54,3% frente al 45,7%.

– Las alumnas obtienen mejores resultados que los alumnos. Mientras el porcentaje de alumnado repetidor es más elevado en los alumnos a lo largo de toda la Enseñanza Obligatoria. De este modo, si en

6tan soilik izan zen emakumezkoa eragindakoa. EAEn bizi diren herritarrek, oro har, iritzi ona dute euren osasunari buruz. Alde horretatik ez dago ezberdintasun handirik gizonen eta emakumeen artean eta bai sexu batean bai bestean osasunari buruzko ikuspegia gero eta positiboagoa izatea da azken urteetako joera. Adinak aurrera egin ahala, ordea, ikuspegiak okerrera egiten du, eta nabarmenago emakumeen artean.

– Emakumeek maizago erabili ohi dituzte osasun-zerbitzuak. Emakumeen erabilera handiagoa da, batez ere, osasun-zentroari edo anbulatorioari dagokionez, eta behera egiten du eta gizonezkoena baino txikiagoa da ospitaleen erabilera eta egonaldien aldetik. Hala, ospitaletako egonaldiei buruzko estatistikek erakusten dutenez, gizonek emakumeek baino denbora gehiago eman ohi dute ospitalean ia kasu guztietan, diagnostikoa bera izanda.



– Hezkuntzaren aldetik, sexuen arteko proportzioa nahikoa orekatua da irakaskuntza orokorrak barne hartzen dituen hiru blokeetatik bitan (Lehenean eta Bigarrenean eta Goi-mailakoan) eta, funtsean, banaketa demografiko errealaren araberakoa da, derrigorrezko hezkuntzaren garaian. Lanbide Heziketaren kasuan, ordea, ezberdintasunak daude, horretan mutilen ehunekoa nabarmen handiagoa baita, batez ere erdi mailako heziketan, ikasketa horiek egiten dituzten ikasle guztien %61,8 mutilak baitira. Bestalde, goi-mailako irakaskuntzari dagokionez, aurreko urteetako joera errepikatzen da, emakumeen parte-hartzea gizonena baino ia 10 puntu handiagoa baita: %54,3eta %45,7, hurrenez hurren.

– Emakumezko ikasleek gizonezkoek baino emaitza hobeak lortzen dituzte. Gainera, maila errepikatu behar duten gizonezko ikasleen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa da Derrigorrezko Irakaskun-

la Educación Primaria la distancia entre el porcentaje de mujeres y hombres que repiten es de 1,4 puntos porcentuales, en la Enseñanza Secundaria Obligatoria las diferencias son de casi cinco puntos porcentuales siendo el porcentaje de mujeres repetidoras de un 8,8 frente al 13,2 de los hombres.




– En cuanto al profesorado, la mayoría está compuesto por mujeres. En el curso 2004/2005 las mujeres constituyeron el 65,3% de un total de 35.924 del profesorado contabilizado en Enseñanza de Régimen General. Sin embargo, se mantiene la tendencia observada en los últimos años de que la proporción de mujeres entre el profesorado desciende a medida que se asciende en los niveles de enseñanza. De este modo, mientras en Educación Infantil la proporción de maestras es de un 91,2% en la Enseñanza Universitaria es inferior a la de los hombres, constituyendo sólo el 35,2%. Dentro del ámbito de la Enseñanza Universitaria, las instancias más altas están ocupadas por hombres; de esta forma, el profesorado catedrático está compuesto en más del 80,0% por hombres.

– Por otro lado, atendiendo a las situaciones de pobreza y exclusión social, las mujeres tienden a sufrir en mayor medida situaciones de precariedad económica en todos los contextos, Así, en los hogares encabezados por mujeres en la CAPV, la pobreza más grave afecta al 12,3% de los mismos mientras que el porcentaje análogo para el conjunto de los hogares es menos de la mitad, en concreto, del 4,9%. Además, la diferencia entre la renta personal media total de hombres y mujeres es de 9.980 euros. Esta tendencia se mantiene en todos los tramos de edad aunque se agudiza entre las personas que tienen entre 40 y 64 años.




– Si nos centramos en las situaciones de violencia contra las mujeres, las denuncias por delitos y faltas por episodios de violencia y malos tratos contra las mujeres constituyeron un total de 2.834 ca-

Gráfico 4. Porcentaje de alumnado repetidor en Enseñanza Secundaria Obligatoria, según sexo. (Curso 2004/2005).

4. Grafikoa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan maila errepikatzen duten ikasleen ehunekoa, sexuaren arabera. (2004/2005 ikasturtea).

Gráfico 5. Porcentaje de profesorado catedrático en Enseñanza Universitaria, según sexo. (Curso 2004/2005).

5. Grafikoa. Unibertsitateko irakasleen ehunekoak, sexuaren arabera. (2004/2005 ikasturtea).

tza osoan zehar. Izan ere, Lehen Hezkuntzan maila errepikatzen duten ikasleen artean emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aldea 1,4 puntukoa da, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aldea ia 5 puntukoa da. Maila errepikatzen duten emakumezko ikasleak %8,8 dira eta gizonezkoak %13,2.

— Irakasle gehienak emakumeak dira. Izan ere, 2004/2005 ikasturtean Erregimen Orokorreko Irakaskuntzan ziharduten 35.924 irakasleetatik %65,3 emakumeak ziren. Hala ere, azken urteotan antzemandako joerak aurrera jarraitzen du eta, irakaskuntza-mailak gora egin ahala, emakumezkoen ehunekoa jaitsi egiten da. Era horretan, Haur Hezkuntzako emakumezko irakasleen ehunekoa %91,2 den bitartean, Unibertsitatean gizonezkoen ehunekoa baino txikiagoa da, %35,2 besterik ez baitira emakumeak. Unibertsitateko Hezkuntzaren alorrean, goreneko karguak gizonen esku daude eta katedradunen %80,0 baino gehiago sexu horretakoak dira.

— Bestalde, pobreziari eta gizarte-bazterketari gagozkiela, apaltasun ekonomikoa jasateko joera askoz handiagoa da emakumeen artean, testuinguru guztietan. Hala, EAEn emakumeak buru diren familietan, pobrezia larria nozitzen dutenen ehunekoa %12,3 da. Gizonezkoak buru direnetan, berriz, ehunekoa ez da horren erdira ere iristen, %4,9koa baita. Horrez gain, gizonen eta emakumeen errenta pertsonalen arteko aldea 9.980 eurokoa da. Joera hori adin-tarte guztietan errepikatzen da baina 40 eta 64 urteko herritarren artean areagotu egiten da.

— Emakumeen aurkako indarkeria aztertuz gero, guztira 2.834 salaketa aurkeztu ziren emakumeen aurkako indarkeriak eta tratu txarrek eragindako delitu eta faltengatik. Eragindako emaku-

sos y afectaron a 2.591 mujeres. Del total de casos, 2.456 fueron tipificadas como delitos y 368 como faltas. Cuatro mujeres murieron en nuestra Comunidad como consecuencia de violencia o maltrato, 21 resultaron heridas graves y 984 heridas leves.

– En cuanto a la participación sociopolítica, En la actualidad el 34,3% de los altos cargos del Gobierno Vasco (es decir, consejerías, viceconsejerías y direcciones) están ocupados por mujeres. En el caso de los órganos ejecutivos de las Diputaciones Forales en la actualidad las mujeres suponen el 16,5% de los altos cargos de las Diputaciones de los tres Territorios Históricos. Los datos referentes a las ejecutivas de los partidos políticos muestran diferencias notables entre las formaciones. La presencia de mujeres en sus ejecutivas es, en general, superior a la en los partidos políticos. Similar situación presentan los sindicatos excepto dos casos destacados al contar con ejecutivas paritarias. La presencia de mujeres es aún más limitada en las empresas. Así, si consideramos la composición de los Consejos de Administración de las empresas domiciliadas en la CAPV que cotizan en Bolsa (un total de 13 organizaciones) las mujeres consejeras son ocho sobre 142, es decir, sólo suponen el 5,3%. Una tendencia similar se observa en el caso de los Consejos de Administración de las tres Cajas de Ahorros aunque en este caso la presencia de mujeres es de 5 sobre un total de 50, es decir, el 10,0%.

Posteriormente, Izaskun Moyua presentó al Consejo de Dirección el *Plan de Actuación de Emakunde para el 2006.* Tras explicar que la mayoría de las actuaciones previstas responden al desarrollo de programas e iniciativas ya iniciadas en años anteriores, resaltó como actuaciones más destacadas la aprobación del *IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres* y el trabajo de desarrollo normativo de la *Ley para la Igualdad*, que entre otras iniciativas, se materializará en sendos *Decretos Reguladores de la Comisión Interistitucional* y de la *Comisión Interdepartamental* y en la realización de una *Evaluación "ex ante"* de la *Ley* con el

**Gráfico 6. Evolución en el número de denuncias y de víctimas por episodios de violencia y malos tratos contra las mujeres.**



**6. Grafikoa. Emakumeen aurkako indarkeria eta tratu txarrak direla-eta aurkeztutako salaketa-kopuruaren eta biktima-kopuruaren eboluzioa.**




meak 2.591 izan ziren guztira. Kasu guztietatik, 2.456 delitu izan ziren eta 368 falta. Indarkeriaren edo tratu txarren eraginez lau emakume hil ziren gure Erkidegoan, 21 larri zauritu ziren eta 984k zauri arinak nozitu zituzten.

— Parte-hartze soziopolitikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako goi-karguen (hau da, sailburu-, sailburuorde- eta zuzendari-karguen) %34,3 daude emakumezkoen esku. Foru Aldundietako organo exekutiboen kasuan, hiru Lurralde Historikoetako Diputazioetako goi-karguen %16,5 emakumezkoen eskuetan daude. Alderdi politikoetako exekutiben osaketari buruzko datuek ezberdintasun nabarmenak erakusten dituzte batetik bestera. Oro har, emakumeek exekutibetan izaten duten ordezkaritza alderdietan bertan izaten dutena baino handiagoa da. Antzeko egoera gertatzen da sindikatuen kasuan, baina kasu horretan bi salbuespen daude, euren exekutiben osaketa paritarioa baita. Enpresetan are mugatuagoa da emakumeen presentzia. Hala, egoitza EAEn duten eta burtsan kotizatzen duten enpresen Administrazio Kontseiluen osaketari begiratzen badiogu (guztira 13 dira), 142 kontseilarietatik zortzi baino ez dira emakumezkoak, hau da, %5,3 besterik ez. Antzeko egoera ikusi daiteke hiru Aurrezki Kutxetako Administrazio Kontseiluetan, baina kasu horretan emakumeen presentzia zertxobait handiagoa da: 50etik 5, hau da, %10,0.

Ondoren, Izaskun Moyuak *Emakunderen 2006ko Jarduera Plana* aurkeztu zuen Kontseiluan. Aurreikusitako ekintza guztiak aurreko urteetan hasitako programak edo ekimenak direla azaldu ostean, ekintza nagusien artean *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana* onartzea eta *Berdintasunerako Legearen* arau-garapena azpimarratu zituen. Azken horretaz, beste ekimen batzuen artean, bi dekretutan gauzatuko dela esan zuen, bata *Erakunde arteko Batzordea arautzekoa*, eta bestea *Sail arteko Batzordea arautzekoa*. Horrez gain, *Legearen* aldez aurreko ebaluazioa egingo da. Horrela, *Legea* betetzeko mailari buruz ge-

fin de que en las posteriores evaluaciones de su cumplimiento puedan conocerse los avances producidos con relación a la situación de partida. Además de estas dos cuestiones centrales, la Directora de Emakunde hizo referencia al resto de actuaciones a abordar a lo largo del ejercicio.

A continuación, se procedió a aprobar conjuntamente y por unanimidad, la *Memoria de Actuación de Emakunde 2005*, el *Informe "Cifras sobre la Situación de las Mujeres y Hombres en la CAPV. 2005"* y el *Plan de Actuación de Emakunde 2006.*

Para finalizar, el Consejo aprobó el *III y último Borrador del IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV.*



El 21 de diciembre se celebró la última sesión del Consejo de Dirección del año. En la misma, tras la aprobación del *Acta* de la reunión anterior, se procedió a la presentación y aprobación de la *Evaluación Inicial sobre la Implementación de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres* y se realizó una valoración y preselección de las candidaturas para el *Premio Emakunde 2006.*

La Directora de Emakunde, Izaskun Moyua, presentó el *Informe de Evaluación*, señalando tanto las medidas incluidas en la *Ley* que han sido objeto de análisis en el documento que se presentó como las principales conclusiones obtenidas del mismo. La Directora explicó que el objetivo del *Informe* es poder visualizar cuál era la situación de partida de la Administración Pública Vasca en algunos aspectos regulados en la *Ley*, en el momento de su aprobación y contar con datos que servirán como elementos de análisis y comparación de cara a las mediciones previstas en el 2008 y en el 2010, de manera que puedan ir detectándose los avances y/o dificultades en cuanto a la aplicación de la *Ley.*

La *Evaluación* se centra en los *Títulos Primero y Segundo (art. 4-22, ambos inclusive) de la Ley* por tratarse de requisitos previos o condiciones favorables necesarias para la integración de la Perspectiva de Género en la Administración Pública, y en algunos aspectos contemplados en los *Títulos III y IV.*

roago egingo diren ebaluazioek hobeto erakutsiko dituzte abiapuntuarekiko emandako aurrerapausoak. Gai nagusi horiez gain, ekitaldian zehar gauzatu beharreko jarduerak aipatu zituen Emakundeko Zuzendariak.

Jarraian, *Emakunderen 2005eko Jarduera Memoria*, *"EAE-ko Emakume eta Gizonen Egoerari buruzko Zenbakiak. 2005" Txostena* eta *Emakunderen 2006ko Jarduera Plana* batera eta aho batez onartu zituzten.

Bukatzeko, *EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren III. eta azken Zirriborroa* onartu zuen Kontseiluak.

Zuzendaritza Kontseiluak abenduaren 21ean egin zuen urteko azken bilkura. Bertan, aurreko bilerako akta onartu eta gero, *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Ezarpenari buruzko Hasierako Ebaluazioa* aurkeztu eta onartu zuten, eta *Emakunde 2006 Saritako* hautagaien aurkezpena eta lehen hautaketa egin zuten.

Emakundeko Zuzendari Izaskun Moyuak *Ebaluazio txostena* aurkeztu eta, alde batetik, dokumentuan aztertutako *Legearen* neurriak azpimarratu zituen, eta bestetik, ondorio nagusiak. *Legea* onartu zenean, zenbait alderditan Euskal Administrazio Publikoaren egoera ezagutzea zuen helburu *Txostenak*, Moyuak azaldu zuenez. Horrela, 2008an eta 2010ean aurreikusitako neurketei begira, analisia eta konparazioa egiteko datuak egongo dira eta *Legea* gauzatzeko aurrerapausoak eta/edo oztopoak detektatu daitezke.

*Legearen Lehenengo eta Bigarren Atalak (4. artikulutik 22.era bitartean, biak barne)* aztertzen ditu bereziki *Ebaluazioak*, Administrazio Publikoan genero-ikuspegia txertatzeko aldez aurreko betekizunak edo baldintza egokiak direlakoan. *Orobat, III. eta IV.*

Las demás medidas incluidas en el *Título Tercero* se han previsto evaluar a través del proceso evaluativo correspondiente al *IV Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco*, dado que éste es el instrumento que permitirá, entre otras cosas, desarrollar todas las medidas que se plantean en este *Título* y que van dirigidas a promover la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en los *Ámbitos de Intervención*, anteriormente señalados.

En relación con el *Premio Emakunde*, el Consejo de Dirección realiza una primera valoración de las candidaturas presentadas, procede a una preselección de las mismas y decide posponer para una reunión posterior la decisión final sobre la concesión del *Premio* tras una segunda valoración más exhaustiva de las candidaturas seleccionadas.

## Comparecencias Parlamentarias



La primera comparecencia, a petición propia, de la Directora de Emakunde ante la Comisión de Mujer y Juventud del Parlamento Vasco a lo largo del año 2006, tuvo lugar el 8 de Junio. En dicha comparecencia se presentaron: *el Informe Cifras sobre la Situación de Mujeres y Hombres en la CAPV en el 2004, la Memoria de Actuación de los Poderes Públicos en el 2004, en ejecución del III PAPME y el Informe de Evaluación Global de mencionado III PAPME.*

Una nueva comparecencia de la Directora de Emakunde ante la Comisión de Mujer y Juventud del Parlamento se produjo el 16 de noviembre de 2006 con el fin de presentar, ante los Grupos Parlamentarios, *el IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres* (aprobado por el Consejo de Gobierno el 19 de septiembre) y el *Informe de Cifras sobre la Situación de Mujeres y Hombres en la CAPV en 2005* (aprobado el 10 de octubre de 2006 por el Consejo de Gobierno).

Asimismo, Emakunde ha comparecido en la Comisión de Mujer y Juventud del Parlamento Vasco, a petición de ésta, en el marco de la *Ponencia* constituida en la Cámara Vasca para analizar las causas, los instrumentos y las políticas que se llevan a cabo en la Comunidad Autónoma del País Vasco con relación a la violencia contra la mujer y su erradicación.

Ataletan jasotako alderdi batzuk ere aintzat hartzen ditu. *Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planari* dagokion eboluzio-prozesuaren bidez ebaluatuko dira *Hirugarren Atalean* jasotako gainerako neurriak. Izan ere, Planari esker, besteak beste, *Atal* horretan planteatzen diren neurri guztiak garatu ahal izango dira, lehen aipatutako esku hartzeko eremuetan emakume eta gizonen benetako berdintasuna sustatzeko xedez.

*Emakunde Sariari* dagokionez, aurkeztutako hautagaien gaineko aurreneko balorazioa egin du Zuzendaritza Kontseiluak, lehenengo hautaketa egin du eta *Saria* nori eman behin-betiko erabakitzea ondorengo bilera baterako atzeratu du, lehenago aukeratutako hautagaiei buruzko balorazio zorrotzagoa egin ahal izateko.

## Legebiltzarreko Agerraldiak



Emakundeko Zuzendariak Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria Batzordearen aurrean 2006. urtean zehar eginiko lehenengo agerraldia ekainaren 8an izan zen. Agerraldi horretan honako txosten hauek aurkeztu zituen: *EAEko Emakume eta Gizonen egoerari buruzko Zenbakiak, 2004ko Txostena; Botere Publikoen 2004ko Jarduera Memoria, III. PAPME aplikatzeari buruzkoa; eta aipatutako III. PAPMEren Ebaluazio Orokorreko Txostena.*

Emakundeko zuzendariak berriz ere jo zuen Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria Batzordera, 2006ko azaroaren 16an. Bigarren agerraldi horren helburua *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana* (Gobernu Kontseiluak irailaren 19an onartua) eta *EAEko Emakume eta Gizonen Egoerari buruzko Zenbakien Txostena* (Gobernu Kontseiluak 2006ko urriaren 19an onartua) Legebiltzar Taldeei aurkeztea zen.

Orobat, Eusko Legebiltzarreko Emakume eta Gazteria Batzordeak eskatuta egin du Emakundek bertan agerraldia, emakumeen aurkako indarkeriari lotuta eta indarkeria hori desagertzeko xedez Euskal Autonomia Erkidegoan dauden kausak, tresnak eta politikak aztertzeko Legebiltzarrean eratutako batzorde txostengilearen esparruan.

## Administración General

### Comisión Interdepartamental

Se ha continuado con el trabajo de elaboración y aprobación del *IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres*. El Instituto inició este proceso el pasado año 2005 que concluyó con la presentación a las Instituciones, a través tanto de la Comisión Interdepartamental como del Consejo de Dirección del Instituto, y a la Comisión Consultiva del *Primer Borrador* del documento.

El día 10 de enero se mantuvo una reunión conjunta de representantes de la Comisión Interdepartamental y de la Comisión Consultiva a fin de contrastar tanto las prioridades señaladas por cada una de las Comisiones y realizar una valoración de la factibilidad de los diversos objetivos y acciones propuestos en el *Primer Borrador*. Las aportaciones de este encuentro dieron lugar a un nuevo documento que fue posteriormente contrastado con representantes de las diversas administraciones. Tras un amplio trabajo de intercambio y negociación tanto con quines componen la Comisión Interdepartamental como con representantes de las Administraciones Foral y Local, se elaboró el *Segundo Borrador* que fue expuesto a consulta pública. Posteriormente se elaboró el *Tercer* y último *Borrador* que tras aprobación por el Consejo de Dirección fue aprobado por el Consejo de Gobierno el día 26 de setiembre de 2006.

### Grupo Técnico de la Comisión Interdepartamental

Emakunde ha realizado una Sesión de Trabajo con el Grupo Técnico de la Comisión Interdepartamental (GTCI) para presentar en detalle las diferencias e implicaciones operativas del *IV Plan* una vez aprobado cara a la *Programación y Evaluación* futura y para ofrecer a los Departamentos del Gobierno Vasco un proceso de asesoramiento que les ayude a elaborar sus propios *Planes* o *Programas* teniendo en cuenta las líneas generales y directrices contenidas en el *Plan General* en cumplimiento del art. 5.2 de la *Ley 4/2005*. A partir de esta *Sesión* se desarrollaron *Reuniones de Trabajo* con los Departamentos para consensuar un proceso de trabajo y presentar los materiales de partida que permitan iniciar la reflexión sobre los objetivos del plan que les corresponde abordar y cómo mejorar, en su caso, las estrategias de trabajo puestas en marcha hasta el momento. Se prevé que la finalización de este

Gráfico 7. **Composición de la Comisión Interdepartamental.**



7. Grafikoa. **Sail arteko Batzordearen Osaketa.**

1. *Lehendakaria*
   Lehendakari
2. *Emakundeko Zuzendaria*
   Directora de Emakunde
3. *Emakundeko Idazkari Nagusia*
   Secretaria General de Emakunde
4. *Eusko Jaurlaritzako Sailak*
   Departamentos del Gobierno Vasco

*Sail arteko Batzordea da Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako sailen nahiz sail horiei atxikitako erakunde autonomoen arteko koordinazio eta komunikazio organoa.*

La Comisión Interdepartamental es el órgano de coordinación e intercomunicación entre el Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y los distintos Departamentos del Gobierno Vasco y Organismos Autónomos a ellos adscritos.

## Administrazio Orokorra

### Sail arteko Batzordea

*Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana* landuz eta onartuz, 2005ean hasitako lanari eutsi dio Emakundek. Dokumentuaren *lehenengo zirriborroa* erakundeei (Sail arteko Batzordearen eta Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren bidez) eta Aholku Batzordeari aurkeztuz bukatu zuen Erakundeak 2005ean hasitako prozesua.

Sail arteko Batzordeko eta Aholku Batzordeko ordezkariek bilera bateratua egin zuten, urtarrilaren 10ean, batzorde bakoitzak adierazitako lehentasunak alderatu eta *lehenengo zirriborroan* proposatutako helburu eta ekintzen bideragarritasunaren balorazioa egiteko xedez. Bilera horretan izandako ekarpenekin beste dokumentu bat egin zuten, eta gero dokumentu hori administrazioetako ordezkariekin alderatu zen. Sail arteko Batzordeko kideek eta Foru zein Toki Administrazioetako ordezkariek egindako eztabaida eta negoziazio luzeen ondoren, *bigarren zirriborroa* landu eta jendaurrean jarri zen. Ondoren *hirugarren eta azken zirriborroa* egin zuten eta, Zuzendaritza Kontseiluak argi berdea eman ondoren, Gobernu Kontseiluak onartu zuen, 2006ko irailaren 26an.

### Sail arteko Batzordeko Talde Teknikoa

Emakundek lan-saio bat egin du Sail arteko Batzordeko Talde Teknikoarekin (SBTT), IV. Planaren ezberdintasunak eta ondorio operatiboak xehetasun handiz aurkezteko xedez, eta baita Gobernuko Sailei euren planak eta programak lantzen laguntzeko aholku-prozesu bat eskaintzeko helburuz ere, *Plan orokorrean* jasotako lerro nagusiak eta jarraibideak kontuan hartuta eta 4/2005 Legearen 5.2 artikulua betez. Lan-saio horretatik abiatuta, bilerak egin dira sailekin, lan-prozesu baten inguruan ados jartzeko, gauzatu behar dituzten planaren helburuen inguruko gogoetari ekiteko eta, hala badagokio, orain arte abian jarri diren estrategiak hobetzeko. Lan-prozesuaren bukaeran, sail bakoitzak Legegintzaldiaren amaierara arteko planifikazio-dokumentu bat egitea aurreikusita dago.

proceso de trabajo dé como resultado un *Documento de Planificación* por parte de cada uno de los Departamentos hasta finales de la actual Legislatura.

### Coordinación con la Defensora para la Igualdad y el Ararteko

En el año 2006 tuvo lugar la *Primera Reunión de Coordinación* entre Emakunde, la Defensora para la Igualdad y el Ararteko. En esta primera *Reunión* se establecieron las pautas de coordinación a futuro en puntos estratégicos comunes para la lucha por los derechos de las personas.

"Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a las Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"



El 18 de octubre de 2001 se firmó el *"Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a las Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"*, a través del cual entraron en vigor los compromisos adquiridos en el *Protocolo Interinstitucional* suscrito el 25 de noviembre de 2000. El *Acuerdo* tiene por objeto mejorar la coordinación entre las Instituciones implicadas en la atención a las citadas víctimas, mediante el establecimiento de procedimientos de actuación homogéneos para toda la Comunidad Autónoma del País Vasco, y fue rubricado por las máximas autoridades: el Lehendakari, en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco; el Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en representación del Consejo General del Poder Judicial; la Fiscal-Jefa del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en representación de la Fiscalía; los tres Diputados Generales, en representación de las Diputaciones Forales; el Presidente de EUDEL, en representación de los Municipios Vascos; y los Presidentes del Consejo Vasco de la Abogacía y del Consejo Médico Vasco, en representación de sus colegiados y colegiadas.

Comisión de Seguimiento del Acuerdo Interinstitucional

Con el fin de garantizar la aplicación efectiva de las pautas y criterios que se recogen en el *Acuerdo* y de realizar un seguimiento de los compromisos adquiridos por las Instituciones firmantes, se crea una *Comisión de Seguimiento* presidida por la Directora de Emakunde y compuesta por representantes con rango de Viceconsejero, Viceconsejera o similar de todas las Instituciones implicadas.

## Berdintasunerako Defendatzailearekin eta Arartekoarekin koordinatzea

Emakunderen, Berdintasunerako Defendatzailearen eta Arartekoaren arteko lehenengo bilera 2006an izan zen. Lehenengo bilera hartan, pertsonen eskubideen alde borrokatzeko puntu estrategikoetan koordinatzeko jarraibideak finkatu zituzten.



2001eko urriaren 18an sinatu zen *"Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeentzako Arreta Hobetzeko Erakunde arteko Akordioa"*, eta horren bitartez, 2000ko azaroaren 25ean izenpeturiko *Erakunde arteko Protokoloan* harturiko konpromisoak indarrean sartu ziren. Akordioaren helburua da aipaturiko biktimen arretan inplikaturiko erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, Erkidego guztiarentzat jarduera-prozedura heterogeneoak ezarriz. Akordio hori aginpide gorenek sinatu zuten: Lehendakariak, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkaritzan; EAEko Auzitegi Nagusiko Lehendakariak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkaritzan; EAEko Auzitegi Nagusiko Fiskalburuak, Fiskaltzaren ordezkaritzan; hiru Diputatu Nagusiek, Foru Aldundien izenean; EUDELeko Lehendakariak, Euskal Udalerrien izenean; eta Legelarien Euskal Kontseiluko eta Medikuen Euskal Kontseiluko Lehendakariek, beren elkargokideen izenean.

"Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeentzako Arreta Hobetzeko Erakunde arteko Akordioa"

Hitzarmenean biltzen diren jarraibideak eta irizpideak modu eraginkorrean aplikatzea bermatzeko eta erakunde sinatzaileek harturiko konpromisoen jarraipena egiteko helburuarekin, *Jarraipen Batzorde* bat sortu da, Emakundeko zuzendaria buru duena eta erakunde inplikatu guztietako sailburu, sailburuorde edo antzeko postuetako ordezkariek osatzen dutena.

Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea

Asimismo, el *Acuerdo Interinstitucional* prevé la creación de una *Comisión Técnica-Grupo Técnico Interinstitucional* de apoyo y asistencia a las y los miembros de la *Comisión de Seguimiento* para el correcto desempeño de sus funciones. Esta *Comisión* ha mantenido diferentes reuniones previas a las realizadas por la *Comisión de Seguimiento*.

Grupo Técnico Inter-institucional

Las actuaciones más relevantes llevadas a cabo en el marco del *Acuerdo* durante 2006 han sido las siguientes:

– Aprobación del documento *"Medidas para la Difusión y Puesta en Práctica del Acuerdo Interinstitucional"*, en el que se recogen las actividades que en tal sentido las Instituciones participantes se han comprometido a realizar en 2006.

– Aprobación del *"Informe de Evaluación y Seguimiento"*, en el que, de un lado, se señalan las acciones desarrolladas en 2005 por las Instituciones firmantes a efectos de garantizar la efectiva aplicación de las medidas y pautas contempladas en el *Acuerdo Interinstitucional* y, de otro lado, se recogen de forma literal la valoración que las Instituciones han realizado con relación al grado de cumplimiento del *Acuerdo* en sus correspondientes ámbitos de actuación.

– Realización de una *Campaña Interinstitucional de Comunicación*, con ocasión de la conmemoración del *"25 de noviembre, Día Internacional para la Eliminación de la Violencia Contra las Mujeres"*.

– Revisión del documento suscrito en 2005 en cada uno de los Territorios Históricos relativo al *"Protocolo de Coordinación para la Eficacia de la Ley de Medidas de Protección Integral contra la Violencia de Género y de la Orden de Protección de las Víctimas de la Violencia Doméstica"*, como instrumentos fundamentales de coordinación y colaboración entre los diversos agentes implicados en la atención a las víctimas de estos delitos.

– Aprobación de la *"Guía de pautas para la adopción de Protocolos Locales y Medidas para la Mejora de la Atención a Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agre-*




La Comisión de Seguimiento está presidida por la Directora de Emakunde y compuesta por diferentes instituciones firmantes del *"Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a las Mujeres Víctimas del Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales".*

Gráfico 8. **Composición de la Comisión de Seguimiento del *"Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a las Mujeres Víctimas del Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"*.**

1. *Emakundeko Zuzendaria*
Directora de Emakunde

2. *Emakundeko Idazkari Nagusia*
Secretaria General de Emakunde

3. *Aginte Judizialaren Kontseilu Gorena*
Consejo General del Poder Judicial

4. *Fiskaltza*
Fiscalía

5. *Udalak. EUDEL*
Ayuntamientos. EUDEL

6. *Abokatuen Euskal Kontseillua*
Consejo Vasco de la Abogacía

7. *Euskadiko Sendagile Elkarte Nagusia*
Consejo Médico Vasco

8. *Lehendakaritza*
Lehendakaritza

9. *Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila*
Dpto. de Interior del Gobierno Vasco

10. *Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila*
Dpto. de Sanidad del Gobierno Vasco

11. *Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila*
Dpto. de Justicia, Trabajo y S. Soc. del Gobierno Vasco

12. *Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila*
Dpto. de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco

13. *Arabako Foru Aldundia*
Diputación Foral de Araba/Álava

14. *Bizkaiko Foru Aldundia*
Diputación Foral de Bizkaia

15. *Gipuzkoako Foru Aldundia*
Diputación Foral de Gipuzkoa

Emakundeko zuzendaria da Segimendu Batzordeko buru, eta osatzen dutenak, berriz, hauek dira: *"Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Erasoak Jasaten dituzten Emakumeei Laguntza Hobea Emateko Erakunde arteko Hitzarmena"* izenpetu duten erakundeak.

8 grafikoa. *"Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeentzako Arreta Hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren" Jarraipen Batzordearen osaketa.*

## Erakunde arteko talde Teknikoa

Era berean, *Erakunde arteko Akordioak* Jarraipen Batzordeko kideei beren funtzioak egoki betetzen lagunduko dien *Batzorde Tekniko-Erakunde arteko Talde Teknikoa* sortzea jasotzen du, *Jarraipen Batzordeak* egindakoen aurretik hainbat bilera egin dituena.

*Akordioaren* inguruan 2006an zehar burututako ekintzarik nabarmenenak honako hauek izan dira:

– *"Erakunde arteko akordioa Hedatzeko eta Aplikatzeko neurriak"* delako agiria onartzea. Parte hartzen duten erakundeek 2006an betetzeko konpromisoa hartu duten jarduerak biltzen ditu agiriak.

– *"Ebaluazio eta Jarraipen Txostena"* onartzea. *Txostenak*, alde batetik, 2005ean erakunde sinatzaileek *Erakunde arteko Akordioan* bilduriko neurri eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko garaturiko ekintzak adierazten ditu eta, bestetik, *Akordioak* izan duen betetze-mailaren inguruan erakundeek, bakoitzak bere jarduera-esparruan, egindako balorazioa literalki biltzen du.

– Erakunde arteko Komunikazio Kanpaina bat egitea, *"Azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna"* ospatzeko.

– *"Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko Legearen* eta *Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren Eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloari"* buruz Lurralde Historiko bakoitzean sinatutako dokumentua berrikustea, delitu horien biktimei laguntzeko eginkizuna duten eragile guztien koordinazioa eta lankidetzarako oinarrizko tresnak baitira.

– *"Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko tokiko protokoloak eta neurriak hartzeko jarraibideen gida"* onartzea. Tokiko

*siones Sexuales"*, que tiene por objeto facilitar a las Entidades Locales la elaboración de *Protocolos* y la adopción de *Medidas* para mejorar la atención a las mujeres víctimas de maltrato doméstico y agresiones sexuales.



– Presentación del "*Proyecto de Evaluación Integrada de los Recursos y Programas en la CAPV en Materia de Violencia Contra las Mujeres"* en el ámbito de los Servicios Sociales, en aplicación de la *Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres*. Se trata de una *Evaluación* a realizar desde 2006 a 2010, dividida en cinco fases, en la que cada año se abordará un ámbito de intervención diferente. En concreto, para el año 2006 se ha realizado *la Evaluación de los Recursos y Programas existentes en la CAPV en el Área de los Servicios Sociales.*

– Publicación, junto con el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de Araba-Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, y en colaboración con EUDEL, de la *"Guía de Actuación ante el Maltrato Doméstico y la Violencia Sexual contra las Mujeres para Profesionales de los Servicios Sociales" (ver apartado "Publicaciones").*

– Organización de una *Jornada de Presentación* de la *"Guía de Actuación ante el Maltrato Doméstico y la Violencia Sexual contra las Mujeres para Profesionales de los Servicios Sociales"*, celebrada en Bilbao en noviembre de 2006, en la que se expusieron los principales contenidos de la *Guía*.

– Se han realizado *Aportaciones* al *"Decreto Regulador de los Recursos de Acogida para Mujeres Víctimas de Maltrato en el Ámbito Doméstico"*, presentado por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, que pretende establecer la regulación de las condiciones de calidad y funcionamiento de los Recursos de Acogida para Víctimas de Maltrato Doméstico, con el fin de garantizar la mejor atención a las personas atendidas, tanto a las mujeres como a los niños, niñas o adolescentes a su cargo, o a las personas adultas dependientes que formen parte de su unidad convivencial.

erakundeei etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako laguntza hobetzeko protokoloak eta neurriak lantzen laguntzea du helburu.

– *"Emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean EAEn dauden baliabide eta programen ebaluazio integratua"* proiektuaren aurkezpena, gizarte-zerbitzuen esparruan, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aplikazioaren ondorioz. 2006tik 2010era bitartean egin beharreko ebaluazioa da eta bost fasetan banatuta dago. Hala, urte bakoitzean esku-hartzeko esparru ezberdina aplikatuko da. Zehazki, 2006. urtean EAEn gizarte-zerbitzuen alorrean dauden baliabide eta programen ebaluazioa gauzatu da.

– *"Emakumeen aurkako Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Indarkeriaren aurrean Gizarte Zerbitzuetako Profesionalen Gida"* Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzu Sailarekin eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera, eta Eudelekin lankidetzan *(ikusi "Argitalpenak" atala).*

– *"Emakumeen aurkako Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Indarkeriaren aurrean Gizarte Zerbitzuetako Profesionalen Gida"* aurkezteko jardunaldia antolatzea. Jardunaldia Bilbon izan zen, 2006ko azaroan, eta *Gidaren* eduki nagusiak azaldu ziren.

– *"Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak hartzeko baliabideak arautzeko Dekretuari"* ekarpenak egin zaizkio. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetako Sailak aurkeztutako Dekretuaren helburua etxeko tratu txarren biktima diren emakumeak hartzeko baliabideen kalitatea eta funtzionamendua arautzea da, hartzen diren pertsonek, bai emakumeek bai euren kargupean dauden haurrek edo nerabeek, eta baita bizikidetza-unitatean dauden mendeko helduek ere, ahalik eta arretarik onena jasotzen dutela bermatzeko.

– Se ha prorrogado el *Convenio de Colaboración entre Emakunde y EUDEL* para la creación de una *"Red de Municipios Vascos por la Igualdad y Contra la Violencia hacia las Mujeres"*, con el fin de promover en el ámbito local la implantación de *Programas* y *Actuaciones* dirigidas a promover la igualdad y a combatir la violencia contra las mujeres, así como el intercambio de experiencias, la coordinación y la realización de actuaciones conjuntas.

– En este marco, se ha colaborado en la elaboración y revisión de la *"Guía para la Elaboración de Protocolos Locales de Atención a Mujeres Víctimas de Violencia"* y en la *Formación* que organizaron EUDEL junto con el IVAP, para dar a conocer e impulsar la utilización de este material en los Municipios con el objetivo de impulsar la elaboración de *Protocolos Locales.* De otras *Actuaciones* relevantes desarrolladas como fruto de este *Convenio* se da cuenta en esta *Memoria* en el apartado de *Administración Territorial y Local* y en otros apartados.

## Programa "NAHIKO", Programa Coeducativo para la Prevención del Maltrato Doméstico en el Marco Escolar




La *Violencia Contra las Mujeres* es un problema complejo, cuya erradicación requiere actuaciones coordinadas tanto en el ámbito de la intervención como en el de la prevención. Es por ello que desde Emakunde se puso en marcha el *Programa "NAHIKO"* para trabajar la prevención de la violencia contra las mujeres desde el mundo educativo. Este *Programa* representa la continuación del trabajo desarrollado en los últimos años por el Instituto, tanto en la integración de la *Coeducación*, como en el abordaje de la prevención del maltrato doméstico desde la adolescencia.

*NAHIKO* es un *Programa Coeducativo para la Prevención* del maltrato en las futuras relaciones de pareja de nuestras alumnas y alumnos, centrado en el intervalo de edad de 10-12 años y basado en la experimentación, investigación y acción conjunta con el profesorado de los centros que en él participan.

El *Programa* se inició en 2003 y su primera fase como programa piloto finalizó en septiembre de 2005. A finales de 2005 se puso en marcha la segunda fase de experimentación en la que se ha ampliado el número de Centros Edu-



— Emakunderen eta Eudelen arteko lankidetzarako hitzarmena luzatu da, *"Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Euskal Udalen Sarea"* sortzeko. Sarearen helburua berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko tokian tokiko *programak* eta *jarduerak* aurrera eramatea da, baita esperientziak trukatzea, koordinazioa eta guztien artean jarduerak aurrera eramatea ere.

Ildo horretatik, Erakundeak elkarlanean jardun du, *"Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko tokian tokiko protokoloak finkatzeko Gida"* landu eta berrikusteko eta, tokian *tokiko protokoloak* bultzatzeko xedez, udalerrietan material hori ezagutarazi eta bultzatzeko EUDELek eta HAEEk antolatutako *prestakuntza* ekintza prestatzeko. Hitzarmen horren emaitzaz garatutako beste ekintza nabarmen batzuk jasotzen dira *Memoria* honetan, hain justu *Lurralde eta Toki Administrazioa* atalean eta beste atal batzuetan.

## "NAHIKO" Programa, Eskola Esparruan Etxeko Tratu Txarrei Aurre egiteko Hezkidetza Programa

*Emakumeen aurkako indarkeria* arazo konplexua da eta hori desagerrarazteko esku hartzeko alorrean nahiz prebentziokoan jarduera koordinatuak behar dira. Horregatik, Emakundetik "*NAHIKO*" Programa martxan jarri da emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa hezkuntzatik hasita lantzeko. *Programa* horrek azken urteetan Erakundeak egindako lanari eusten dio, hala hezkidetzaren integrazioan nola etxeko tratu txarrak nerabezarotik prebenitzeari dagokionez.



*NAHIKO Hezkidetza Programa* da eta gure ikasleen bikoteharremanetako etorkizuneko tratu txarrak prebenitzea du helburu. 10-12 urte bitarteko adin-taldera zuzenduta dago bereziki, eta esperimentazioan, ikerketan eta programan parte hartzen duten ikastetxeetako irakasleen baterako ekintzan oinarrituta.

2003an hasi zen eta *programa pilotu* gisa bete duen lehenengo fasea 2005eko irailean bukatu zen. Ondoren, 2005aren bukaeran bigarren esperimentazio-fasea jarri da abian eta parte hartzen duten ikastetxeen kopurua handi-

cativos participantes. En este contexto, a lo largo del año 2006 se han realizado las siguientes actuaciones en el marco del *Programa NAHIKO:*

## Formación del profesorado

Se han realizado *Seminarios de Formación* en los que ha participado el profesorado de los Centros participantes. En estos *Seminarios* han tomado parte como ponentes tanto personas expertas de nuestra Comunidad como del resto del Estado. Se han diseñado con el objetivo de posibilitar la reflexión del grupo en torno a cuestiones tan importantes como la relación del género con la violencia contra las mujeres, el papel de la escuela en relación con este problema, la construcción de la propia identidad y los valores de género que le sustentan, la relación entre violencia y masculinidad, las consecuencias de la violencia que sufren las mujeres en la integración escolar de sus hijos e hijas, etc.

Además, los *Encuentros Trimestrales* con los Centros han posibilitado realizar un seguimiento más individualizado y un acercamiento práctico a las nuevas propuestas y recursos.

## Sensibilización del alumnado



El trabajo con el alumnado se ha organizado en torno a una *Unidad Didáctica Trimestral* que consta de una serie de *Cuadernos de Trabajo, Materiales y Juegos complementarios* de diferentes formatos. A fin de reforzar la labor de sensibilización del alumnado realizada a través de las intervenciones del propio profesorado en el aula, se ha realizado una sesión especial por trimestre en cada Centro con todo el alumnado participante en el *Programa*.

Además, en junio, coincidiendo con el final de curso, se organizó un *Acto Conjunto* en el Palacio Kursaal de Donostia-San Sebastián. Consistió en un gran encuentro de los Centros participantes, unido a un acto público en el que el

tu egin da. Gauzak horrela, 2006an zehar ondoko jarduerak egin dira *NAHIKO Programaren* esparruan:



### Irakasleen prestakuntza

*Prestakuntza-mintegiak* egin dira eta horietan parte hartzen duten ikastetxeetako irakasleak egon dira. *Mintegi* horietan gure Erkidegoko nahiz Estatuko pertsona adituek hartu dute parte hizlari gisa. Mintegien helburua taldeak gai garrantzitsu batzuen inguruan gogoeta egitea da. Gai horiek, besteak beste, honako hauek dira: generoak emakumearen aurkako indarkeriarekin duen erlazioa, eskolak arazo horren inguruan duen papera, identitate propioaren eraikuntza eta horri eusten dioten genero-balioak, indarkeriaren eta maskulinitatearen arteko erlazioa, emakumeek jasaten duten indarkeriak beren seme-alabengan duen eragina eta beste hainbat.

Beste alde batetik, hiru hilabetean behin ikastetxeekin egindako bilerek jarraipen indibidualizatuagoa eta proposamen eta baliabide berrietara hurbilketa praktikoa egitea ahalbidetu dute.

### Ikasleen sentsibilizazioa

Ikasleekin egindako lana *Hiru Hileko Unitate Didaktiko* baten inguruan egituratu da. Unitate horrek lan-koadernoak eta formatu desberdinetako material eta jokoak ditu. Irakasleek geletan izan duten esku-hartzearen bitartez ikasleen sentsibilizazioan egindako lana indartzeko asmoz, hiru hilean behin saio berezi bat egin da ikastetxe bakoitzean *Programan* parte hartu duten ikasle guztiekin.

Horrez gain, ekainean, ikasturtearen amaierarekin batera, *ekitaldi bateratua* antolatu zen Donostiako Kursaal Jauregian. Parte hartzen duten ikastetxeen arteko topaketa izan zen eta, horrekin batera, ekitaldi publikoa ere. Bertan,

alumnado expresaba su compromiso con el trabajo realizado a lo largo del curso 2004-2005.

### Sensibilización de las familias

En cada uno de los Centros participantes se ha realizado una *Sesión* por trimestre con las familias del alumnado participante. En estas *Sesiones*, además de presentar las diferentes actuaciones en el marco del *Proyecto*, se ha reflexionado sobre los contenidos de trabajo de cada bloque y su relación con la violencia contra las mujeres. Además, en el marco de cada *Unidad Didáctica*, se ha trabajado trimestralmente con un cuaderno diseñado para ser abordado en el entorno familiar.

### Elaboración de materiales

A lo largo de 2006 se han revisado, corregido y adaptado los materiales correspondientes a las 6 *Unidades Didácticas* en torno a las cuales se estructura el *Programa*, a fin de realizar una edición del material que posibilite que otros Centros accedan al mismo.



Así, se ha preparado una edición de 100 juegos completos que posibilitará la distribución del material en los lugares clave y la compra del mismo por parte de los Centros que así lo deseen.

Por otro lado, a lo largo de 2006, se ha trabajado intensamente con los servicios de apoyo al profesorado, Berritzegunes, al objeto de que vayan incorporando a sus agendas el seguimiento y autorización de los Centros que desarrollan el *Programa*. Para ello, se ha trabajado en torno a dos ejes:

– Elaboración y presentación del *Programa NAHIKO* como *Proyecto de Innovación Educativa* por parte de los Centros.

– *Formación* del personal de los Berritzegunes a fin de mejorar su capacitación para el asesoramiento en torno al *Programa*. Para ello, Emakunde organizó un Curso espe-

2004-05 ikasturtean zehar egindako lanarekiko konpromisoa adierazi zuten ikasleek.

## Familien sentsibilizazioa

Programako ikastetxe bakoitzean parte hartzen duten ikasleen familiekin *Saio* bat egin da hiru hilean behin. *Saio* horietan, proiektuaren esparruan egindako jarduera desberdinak aurkezteaz gain, bloke bakoitzaren lan-edukien eta emakumeen aurkako indarkeriarekin duten erlazioaren inguruko gogoeta egin da. Gainera, *Unitate Didaktiko* bakoitzaren esparruan, hiru hilean behin familia-inguruan lantzeko bereziki prestaturiko koaderno bat prestatu da.



## Materialak lantzea

Programa osatzen duten sei unitate didaktikoen inguruko materialak berrikusi, zuzendu eta egokitu egin dira 2006an zehar. Horren helburua materialak argitaratzea da, beste erakunde batzuek eskura izateko.

Hala, 100 jokoz osatutako edizioa prestatu da, oinarrizko lekuetan banatu eta eskuratu nahi dituzten ikastetxeek erosi ditzaten.

Bestalde, irakasleei laguntzeko zerbitzuekin, Berritzeguneekin, lan bizia egin du Emakundek, programa garatzen ari diren ikastetxeen jarraipena eta baimena beraien agendan jasotzen joan daitezen. Helburu horrekin, bi ardatzen inguruan lan egin du Erakundeak:

– *NAHIKO programa* landu eta aurkeztea, ikastetxeek hezkuntza-berrikuntzako proiektu gisa izan dezaten.

– Berritzeguneetako pertsonala prestatzea, programaren inguruan aholkua emateko duten gaitasuna hobetzeko. Horretarako, Emakundek berariazko prestakuntza-ikas-

cífico de formación en septiembre, a comienzos del curso 2006-07 y además, los Berritzegunes han participado en las *Sesiones de Formación* del profesorado.

## Participación en Comisiones y Consejos

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer participa en diversas Comisiones y Consejos adscritos a diferentes Departamentos del Gobierno Vasco a través de los que desarrolla, también, su función de *Promoción e Impulso de la Incorporación del Enfoque de Género* en las cuestiones competencia de los citados órganos. Son los siguientes:

– Comisión Interinstitucional del Plan de Salud.

– Comisión Interdepartamental para la Inserción.

– Consejo Vasco de Bienestar Social.

– Consejo Asesor de Drogodependencias.

– Comisión Interdepartamental de Publicidad.

– Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

– Foro para la Participación e Integración Social de las Ciudadanas y los Ciudadanos Inmigrantes en el País Vasco.

– Observatorio de la Violencia de Género de Bizkaia.

– Observatorio Vasco de la Administración de Justicia.

– Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi.

– Comisión Gestora del Fondo de Cooperación al Desarrollo.

## Comités de Seguimiento del D.O.C.U.P. (F.E.D.E.R.) y del Programa Operativo del F.S.E. (Objetivo 3) para el País Vasco 2000-2006

Por otra parte, en el marco de los **Fondos Estructurales Europeos,** Emakunde es miembro de los siguientes Comités y Grupos de Trabajo:

Emakunde es miembro permanente de los Comités de Seguimiento Regionales tanto del *"D.O.C.U.P. (F.E.D.E.R.)"* como del *"Programa Operativo del F.S.E. (Objetivo 3)"*, para el periodo

Gráfico 9. **Composición de la Comisión Interdepartamental de Publicidad.**




La Comisión Interdepartamental de Publicidad está compuesta por las siguientes personas miembros:

- **Presidencia:** La persona titular de la Secretaría General de Comunicación de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.
- **Vocales:** Una persona en representación de la Vicepresidencia del Gobierno, y de cada uno de los demás Departamentos del Gobierno Vasco. Cada vocal tiene designada una persona suplente.
- **Secretaría Técnica:** Corresponde a una persona técnica de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, con voz pero sin voto, designada por quien ostenta la Presidencia de la Comisión.
- **Asesoría:** Una persona de Emakunde, especialista en temas relacionados con el fomento, en los medios de comunicación social, de una imagen de las mujeres no discriminatoria, a fin de eludir estereotipos sexistas y favorecer la sensibilización de la población vasca con respecto a la necesaria igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

9. grafikoa. **Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordearen osaketa.**

1. *Lehendakaritza*
   Presidencia
2. *Idazkaritza Teknikoa*
   Secretaría Técnica
3. *Emakunderen aholkularitza*
   Asesoría de Emakunde
4. *Batzordekideak*
   Vocales

Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordea honako kideek osatzen dute:

- **Lehendakaritza:** Lehendakaritzako Komunikaziorako Idazkaritza Nagusiko pertsona titularra.
- **Batzordekideak:** Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren eta Eusko Jaurlaritzako gainerako sailetariko bakoitzaren ordezkaritzan pertsona bat. Batzordekide bakoitzak ordezko pertsona bat dauka izendatua.
- **Idazkaritza teknikoa:** Lehendakaritzako pertsona tekniko bati dagokio, iritzia eman dezake baina ez du botorik eta Batzordearen Lehendakariak izendatzen du.
- **Aholkularitza:** Emakundeko pertsona bat, gizarte-komunikabideetan emakumeen diskriminatzailea ez den irudi bat sustatzearekin erlazionaturiko gaietan aditua dena, estereotipo sexistak saihestu eta Euskal biztanleria emakume eta gizonen arteko beharrezko aukera-berdintasunarekiko sentsibilizatzea laguntzeko.

taroa antolatu zuen 2006-2007 ikasturtearen hasieran eta, gainera, Berritzeguneek irakasleak prestatzeko saioetan parte hartu dute.

## Batzorde eta kontseiluetako parte-hartzea

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Eusko Jaurlaritzako hainbat saili atxikitako Batzorde eta Kontseilu desberdinetan parte hartzen du, eta horien bitartez ere garatzen du genero-ikuspegiaren txertaketa aipaturiko organoen eskumen-gaietan sustatu eta bultzatzeko funtzioa ere. Honako hauek dira organoak:

— Osasun Planaren Erakunde arteko Batzordea.

— Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea.

— Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua.

— Droga Mendekotasunen Aholku Batzordea.

— Publizitateari buruzko Sail arteko Batzordea.

— Euskal Herriko Ijitoen Sustapen Integralerako eta Gizarte Parte-hartzerako Kontseilua.

— Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa.

— Genero Indarkeriarako Bizkaiko Behategia.

— Justizia Administrazioaren Euskal Behatokia.

— Euskadiko Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea.

— Garapena Laguntzeko Fondoa Kudeatzeko Batzordea.

## Euskal Herrirako Feder Programatzeko Dokumentu Bakarren eta EGIFaren Programa Operatiboaren (3. helburua) Segimendu-batzordeak. 2000-2006

Beste alde batetik, **Europar Egitura Funtsen** esparruan, Emakunde honako Batzorde eta Lan Taldeetako kide da:

*"DOCUPen (FEDER)"* eta 2000-2006rako *"EGIFaren Programa Operatiboaren (3. helburua)"* Eskualdeko Jarraipen Batzordeetako kide iraunkorra da. *"Gizon eta emakumeen ar-*

2000-2006. Esta participación es uno de los mecanismos que se establecen en las disposiciones generales sobre los Fondos Estructurales para contribuir a *"eliminar desigualdades y promover la igualdad entre hombres y mujeres"*.

Cada uno de estos Comités ha mantenido varias reuniones a lo largo de este año con el fin de aprobar los *Informes de Ejecución* de la anualidad 2004 y revisar las adaptaciones propuestas tanto en el *D.O.C.U.P.* como en el *Programa Operativo* de *Objetivo 3 del F.S.E.* en nuestra Comunidad.

Durante el año 2006 se han realizado dos *Sesiones de Trabajo* con la Dirección de Empleo y Formación del Gobierno Vasco sobre la *Incorporación de la Igualdad de Oportunidades* en el próximo periodo de *Programación* del Fondo Social Europeo 2007-2013 en Euskadi. Como resultado de estas *Sesiones*, se seleccionaron ámbitos prioritarios de intervención en el ámbito de la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres, y se han incorporado criterios de igualdad para la selección de los proyectos en la *Orden de 5 de Octubre de 2006*, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en la que aparece la *"Convocatoria de Proyectos para el Acceso a la Cofinanciación de Fondo Social Europeo (Programa Operativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2007-2013)"*. Posteriormente se ha participado en el Tribunal de Selección de los proyectos presentados y se ha informado el *Borrador del "Programa Operativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, 2007-2013"*, elaborado por la Dirección de Empleo y Formación del Gobierno Vasco.

## Grupo de Trabajo Temático de Igualdad de Oportunidades

Emakunde junto con la Dirección de Economía y Planificación y la Dirección de Empleo y Formación del Gobierno Vasco, ha participado en el Grupo de Trabajo Temático de Igualdad de Oportunidades, surgido a requerimiento de los Comités de Seguimiento de los Marcos Comunitarios de Apoyo para las Regiones Españolas de Objetivo nº 1 y del Objetivo nº 3, así como a requerimiento de la *"Estructura Nacional de Coordinación del Objetivo nº 2"*, durante el periodo de programación 2000-2006.

Asimismo, para dar apoyo a este , se creó una Comisión de Trabajo compuesta por los Organismos de Igualdad de las

*teko desberdintasunak desagertu eta berdintasuna sustatzen*" laguntzeko Egitura Funtsen inguruko xedapen orokorrek ezartzen dituzten mekanismoetariko bat da partaidetza hori.

Batzorde horietariko bakoitzak hainbat bilera egin ditu urtean zehar, 2004ko Ekintzen Memoriak onartu eta hala *DOCUPean* nola *EGIFeko 3. helburuaren Programa Operatiboan* gure Autonomia Erkidegorako proposaturiko egokitzapenak berrikusteko.

2006. urtean zehar, Emakundek bi lan-saio egin ditu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzarekin, Europako Gizarte Funtsaren Euskadiko hurrengo programazio-aldian (2007-2013) Aukera Berdintasuna txertatzeari buruz. Saio horien ondorioz, emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren eremuan esku hartzeko lehentasunezko arloak aukeratu ziren. Era berean, *Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuak urriaren 5ean emandako Aginduan*, "Europako Gizarte Funtsak lagundutako finantzaketa eskuratzeko proiektuetarako deialdia (Euskal Autonomia Erkidegoko Programa Operatiboa, 2007-2013)" jasotzen duenean, proiektuak aukeratzeko berdintasun-irizpideak txertatu dira. Ondoren, aurkeztutako proiektuak hautatzeko epaimahaian parte hartu du Emakundek, eta "Euskal Autonomia Erkidegoko Programa Operatiboaren (2007-2013)" lehenengo zirriborroaren inguruko txostena egin du.

## Aukera Berdintasunaren Gaia Lantzeko Taldea

Emakundek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzarekin eta Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzarekin batera, Aukera Berdintasunaren Gaia Lantzeko Taldean parte hartu du. Taldea 1. helburuko eta 3. helburuko Espainiako eskualdeetarako komunitate-esparruen jarraipen-batzordeen eta *"2. Helburua koordinatzeko Nazio Egitura"* izenekoaren eskaerei erantzunez sortu da, 2000-2006 programazio-aldirako.

Orobat, talde hori laguntzeko, Emakunde partaide duen Lan Batzorde bat sortu da, Autonomia Erkidegoetako Ber-

distintas Comunidades Autónomas en el que participa Emakunde. Esta *Comisión* ha continuado trabajando sobre los contenidos de género a tener en cuenta en el nuevo periodo de programación de los Fondos Estructurales.

**Comisión Gestora del Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo/F.O.C.A.D. y Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo**

Se trata de otra Comisión a la que se hace referencia expresa por la ya larga trayectoria de trabajo conjunto en el análisis de los proyectos presentados a la convocatoria del F.O.C.A.D. Se ha participado en la Comisión Gestora del F.O.C.A.D., incorporando cuestiones relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres durante la evaluación de los proyectos presentados a la convocatoria del *"Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo"* atendiendo al criterio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres establecido por el propio *Decreto F.O.C.A.D.*

Emakunde continúa promoviendo la inclusión de criterios de género en los *Convenios* suscritos entre la Dirección de Cooperación y otras organizaciones. En el marco del *Convenio de Colaboración* suscrito entre el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, la Asociación de Entidades Vascas Cooperantes/Euskal Fondoa y la Asociación de Municipios Vascos/EUDEL, con el objeto de definir, aprobar y desarrollar el *Programa de "Coordinación de la Cooperación Municipal Vasca con la República Arabe Saharaui Democrática/R.A.S.D."*, Emakunde continúa prestando el apoyo y asesoramiento necesarios para la inclusión del enfoque de género en todas las actividades desarrolladas.

## Ámbito Territorial y Local

La coordinación en la ejecución de políticas a favor de la igualdad de mujeres y hombres, tiene como objetivos optimizar y racionalizar los recursos existentes a fin de mejorar la prestación de los servicios públicos y de lograr una mayor integración social de las mujeres.

Diputaciones Forales

Se han mantenido reuniones periódicas para el intercambio y el diseño de posibles actuaciones con los y las profesionales con quienes ya existe interlocución y están implica-

dintasun Erakundeek osatua. Egitura Funtsen programazio-aldi berrirako kontuan hartu beharreko genero-edukiei buruz lanean aritu da Batzordea.

### Garapena eta Laguntza Sustatzeko Funtsa Kudeatzeko Batzordea/GLSF eta Garapen Lankidetzarako Aholku Kontseilua

Batzorde hori espresuki aipatzearen arrazoia GLSFren deialdian aurkeztutako proiektuak elkarlanean aztertzeko egindako ibilbide luzea da. Emakundek GLSFren Batzorde Kudeatzailean parte hartu du, emakume eta gizonen aukera-berdintasunarekin zerikusia duten gaiak txertatuz. *"Garapena eta Laguntza Sustatzeko Funtsaren"* deialdian aurkezturiko proiektuak ebaluatzerakoan, GLSF Dekretuak berak ezarritako emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasuneko irizpidea bete da.

Lankidetzarako Zuzendaritzaren eta beste erakundeen artean sinaturiko *Hitzarmenetan* genero-irizpidea txertatzea ere sustatu du Emakundek. Horren adibidea da Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin, Euskal Fondoa-Euskadiko Toki Erakunde Kooperanteekin eta EUDEL/Euskadiko Udalen Elkartearekin batera sinaturiko *Lankidetza Hitzarmena, "Euskadiko Udal Lankidetza Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoarekin"* Programa definitu, onartu eta garatzeko. Hitzarmenaren esparruan, Emakundek laguntza eta aholkua eskaini ditu jarduera guztietan genero-ikuspegia txertatzeko.

**Lurraldeko eta tokiko esparrua**

Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko politiken aplikazioa koordinatuz, eskuragarri dauden baliabideak optimizatu eta arrazionalizatu nahi dira, zerbitzu publikoen prestazioa hobetzeko eta emakumeen gizarteratze-maila handitzea lortzeko.

### Foru Aldundiak

Foru Aldundien edo Tokiko esparruetako hainbat profesional inplikatuta daude aukera-berdintasunerako politikak garatzeko ahaleginean. Emakunde lehendik ere harrema-

das en el desarrollo de políticas de igualdad de oportunidades en el ámbito Foral o Local.

## Ayuntamientos

Se ha mantenido relación, de modo bilateral, con los Ayuntamientos y Mancomunidades, ya que dadas las diferentes características y necesidades que presentan los Municipios, se hace necesario un asesoramiento individualizado. En este sentido, se ha continuado con el trabajo de asesoramiento para la elaboración de *Planes Municipales de Acción Positiva*.

Esta relación se ha realizado, además, en coordinación con EUDEL a través de la red *Berdinsarea* creada a partir del *Convenio de Colaboración* entre Emakunde y EUDEL firmado en el año 2005 y prorrogado desde entonces. Emakunde ha participado en la Comisión de seguimiento de la Red y en el resto de estructuras puestas en marcha, como son el Plenario y la Asamblea Técnica. Durante 2006, se han adherido a la Red 31 Municipios tras certificar que cumplen los requisitos exigidos para la participación en la misma. En este marco, tras la aprobación del *IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres* se ha visto la necesidad de dar a conocer a las personas técnicas municipales las modificaciones, implicaciones y potencialidades de este nuevo *Plan* de cara a la elaboración de los *Planes Municipales* y, para ello, se ha llevado a cabo una *Jornada de Presentación y Debate.*



Durante este año, en desarrollo del *"IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV. Directrices para la VIII Legislatura"*, han aprobado su *Plan Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres* los Municipios de Durango, Arrigorriaga, Sestao, Lemoiz, Sopelana, Urduliz, Gorliz y Lekeitio, y han aprobado su *II Plan* los Consistorios de Elorrio y Eibar. Contando con ellos, son ya 53 los Ayuntamientos que cuentan con un *Plan* de estas características, abarcando así a casi el 79% de la población de nuestra Comunidad.

Con el fin de promover la asistencia técnica necesaria para la realización de *Diagnósticos* y/o *Planes Municipales* para la igualdad de mujeres y hombres tal y como establece el art. 7.2 de la *Ley 4/2005*, el 25 de mayo de 2006 se ha aprobado la "*Resolución de 27 de abril de 2006, de la Di-*

netan zegoen horietako batzuekin, eta aurten zenbait bilera egin ditu, jarduerak elkartrukatzeko eta diseinatzeko.

## Udalak

Udal eta Mankomunitateekiko bi aldeko harremanak izan dira. Izan ere, udal bakoitzak berariazko ezaugarri eta beharrak ditu, eta horrek beharrezko egiten du banan-banako aholkularitza. Zentzu horretan, *Ekintza Positiboko Udal Planak* lantzeko aholkularitza-lanari jarraipena eman zaio.



Harreman horiek Eudelekin koordinatuta gauzatu ditu Emakundek, Berdinsarearen bidez. Emakundek eta EUDELek 2005ean sinatutako eta ordudanik luzatutako lankidetza-hitzarmenaren ondorioz sortu zen Sarea. Sarearen Jarraipen Batzordean eta abian jarritako gainerako egituretan parte hartu du Emakundek, hala nola Osoko Bilkuran eta Biltzar Teknikoan. 2006. urtean zehar 31 udalerrik egin dute bat Sarearekin, bertan parte hartzeko eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu eta gero. Ildo horretatik, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana onartu ondoren, udal-planei begira, udaletako teknikariei plan berriaren aldaketak, inplikazioak eta ahalmenak ezagutarazi behar zaizkiela ikusi da. Horretarako, Plana aurkeztu eta eztabaidatzeko jardunaldia egin zen.

Urtean zehar, *"EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legegintzaldirako jarraibideak"* garatuz, *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plana* onartu dute honako udal hauek: Durangok, Arrigorriagak, Sestaok, Lemoizek, Sopelak, Urdulizek, Gorlizek eta Lekeitiok. Beste hauek, berriz, *II Plana* onartu dute: Elorriok eta Eibarrek. Horiekin guztiekin, dagoeneko 53 dira horrelako Plan bat daukaten Udalak. Gure Erkidegoko biztanle guztien % 79 hartzen dituzte barne Udalok.

Emakume eta gizonen berdintasunerako udal-diagnostikoak edo/eta -planak egiteko derrigorrezko laguntza teknikoa sustatzeko xedez, 2006ko maiatzaren 25eko 4/2005 Legearen 7.2 artikuluak agintzen duen bezala, *Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariak 2006ko*

*rectora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se regula la Concesión de Subvenciones, durante el ejerció 2006, a Ayuntamientos y a Entidades Supramunicipales de carácter Territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la realización de Diagnósticos y/o elaboración de Planes para la Igualdad de Mujeres y Hombres".* Tras la valoración de las 27 solicitudes presentadas se ha concedido s*ubvención* a siete Entidades Locales: los Ayuntamientos de Donostia-San Sebastián, Ermua, Getxo, Bilbao, Ondarroa, Durango y Tolosa.

Ha finalizado el trabajo de los Grupos de Reflexión sobre *Presupuestos con Enfoque de Género* en el ámbito de la Administración Local y sobre *Empoderamiento de las Mujeres y Ciudadanía.*

Los objetivos de esta iniciativa han sido, por una parte, promover tanto el intercambio de experiencias y propuestas de mejora de las actividades desarrolladas en sus ámbitos de actuación, como el aprendizaje de nuevos instrumentos y estrategias de intervención. Y por otra parte, experimentar un *Modelo de Colaboración* entre las Administraciones y sus actuaciones en materia de igualdad de mujeres y hombres para su generalización posterior.

Como fruto de este trabajo, se ha realizado un *Documento* que pretende orientar al personal de los Ayuntamientos en el *Análisis con Enfoque de Género de la Ejecución de los Presupuestos Municipales*. Este material se ha presentado en una *Jornada sobre "Presupuestos Locales con Enfoque de Género"* organizada por Emakunde y dirigida a personal político y técnico de la Administración Local.

Emakunde ha continuado asesorando a los Ayuntamientos en el diseño y búsqueda de personas expertas para la realización de *Actividades de Sensibilización y de Formación* en sus Municipios.

A su vez, se ha asesorado a numerosos Ayuntamientos en el *Diseño de Actividades* propias de *Sensibilización y de Formación*, muchas de las cuales se han ubicado como actividades en el marco del "*II Foro para la Igualdad NARO 2006.*"

*apirilaren 27an emandako Ebazpena* onartu zen. Horrek 2006ko maiatzaren 25ean *Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta udalez gaineko entitateei 2006ko ekitaldian zehar emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak edo/eta planak egiteko diru-laguntzak nola banatu arautzen zuen.* Aurkeztutako 27 eskaeren balorazioa egin ostean, Tokiko zazpi Entitateri eman zitzaien laguntza: Donostia, Ermua, Getxo, Bilbo, Ondarroa, Durango eta Tolosako udalei, hain zuzen.

Bestalde, Tokiko Administrazioaren eremuan genero-ikuspegidun aurrekontuen eta emakumeen eta herritarren boteretzearen inguruan gogoeta egiteko taldeen lana amaitu da.

Hauek izan dira ekimen horren helburuak: alde batetik, euren jarduera-eremuetan garatutako ekintzak hobetzeko esperientzia eta proposamenen elkartrukea sustatzea, hala nola esku-hartzeko tresna eta estrategia berriak ikastea; eta bestetik, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean Administrazioen eta euren jardueren arteko lankidetza-eredu bat esperimentatzea, ondoren eredua zabaltzeko.

Lan horren emaitzaz, udaletako pertsonala udal-aurrekontuak genero-ikuspegiarekin gauzatzeko analisian trebatzeko dokumentua landu da. Material hori aurkezteko "Genero-ikuspegidun tokiko aurrekontuei" buruzko jardunaldia antolatu zuen Emakundek, Tokiko Administrazioko pertsonal politikoari eta teknikoari zuzenduta.

Emakundek udalei aholku ematen jarraitu du, Udalerrietan sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak diseinatzeko eta aurrera eramango dituzten adituak bilatzeko.

Era berean, hainbat udali sentsibilizazio eta prestakuntzari lotutako berezko jarduerak diseinatzen lagundu dizkie. Jarduera haietako batzuk *NARO 2006 Berdintasunerako II. Foroaren* esparruan erabili dira.

## Comisión Inter-institucional

Por otro lado, con el fin de dar cumplimiento al mandato previsto en la *Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres*, se inició la elaboración del *Proyecto de Decreto Regulador de la Comisión Interinstitucional*. Esta *Comisión*, adscrita a Emakunde, será el órgano encargado de la coordinación de las políticas y programas que, en materia de igualdad de mujeres y hombres, desarrollen la Administración Autonómica, Foral y Local. Estará compuesta por seis representantes de cada uno de los tres niveles de la Administración y presidida por Emakunde, a quien corresponderá también impulsar y coordinar sus cometidos.

**El Marco Europeo**

Emakunde ha realizado, con la colaboración de la Delegación de Euskadi en Bruselas, el seguimiento y la difusión de la *Normativa, Propuestas, Actividades* e *Informes sobre Igualdad de Mujeres y Hombres* promovidos por las Instituciones Europeas, tanto de la Comisión Europea como del Consejo y del Parlamento. En este sentido, cabe destacar el seguimiento exhaustivo en las siguientes áreas de trabajo:

Por un lado, se ha realizado el seguimiento de *"V Programa de Acción Comunitario para la Igualdad entre Mujeres y Hombres"*.

Además, se ha realizado el seguimiento de otros *Programas* e *Iniciativas Europeas* centradas en ámbitos específicos como *Empleo, Educación, Formación, Violencia, etc.*).

Finalmente, se ha realizado el seguimiento de las Presidencias Europeas a lo largo de 2006: la Presidencia de Austria durante el primer semestre y la Presidencia finlandesa durante el segundo.

## 1. Programas e Iniciativas Europeas

Se ha realizado el seguimiento de la *Normativa, Propuestas, Actividades e Informes*, en relación con la *Igualdad de Mujeres y Hombres* tanto de la propia Comisión Europea como del Parlamento y del Consejo. Emakunde, como Or-

## Erakunde arteko Batzordea

Bestalde, *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 otsailaren 18ko Legeak* agindutakoa betetzeko, Erakunde arteko Batzordea arautzeko dekretuaren proiektua lantzeari ekin zion Emakundek. *Batzorde* hori Erakundeari atxikita egongo da, eta Erkidegoko, Lurraldeko eta Tokiko Administrazioek emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean bultzatuko dituzten politikak eta programak koordinatzeko ardura izango du. Hiru mailetako ordezkariek osatuta egongo da, Emakundek lehendakaritza izango du eta haren esku egongo da Batzordearen zereginak bultzatu eta koordinatzea.

**Europar esparrua**

Emakundek, Euskadik Bruselan duen delegazioarekin elkarlanean, Europar Erakundeek (bai Europako Batzordeak baita Kontseiluak eta Parlamentuak ere) sustatutako eta/edo antolatutako emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Arauen, Proposamenen, Jardueren eta Txostenen jarraipena eta hedapena egin du. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da bi lan-alor hauetan egindako jarraipen zabala:

Alde batetik, *"Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Komunitatearen V. Ekintza Programaren"* jarraipena egin du.

Gainera, beste *Europar Programa eta Ekimen* batzuen segimendua egin du esparru zehatzetan, hala nola *Enplegu*, *Hezkuntza*, *Prestakuntza*, *Indarkeria* eta abarretan.

Azkenik, Europar Lehendakaritzen jarraipena egin du 2006. urtean zehar: Austriaren Lehendakaritzarena lehenengo sei hilekoan eta Finlandiarena bigarrenean.

## 1. Europar Programak eta Ekimenak

Europako Batzordeak, Parlamentuak eta Kontseiluak emakume eta gizonen berdintasunari buruz emandako *Arau, Proposamen, Jarduera eta Txostenen* jarraipena egin du Emakumearen Euskal Erakundeak. Emakundek, Euskal Au-

ganismo Público de Igualdad de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ha venido impulsando desde su creación actuaciones dirigidas al logro de la *Igualdad de Oportunidades* en el ámbito de la Formación, el Empleo y en la toma de decisiones en el Ámbito Económico. Así, en relación a los Programas Europeos, desde este Instituto se informa y asesora a Instituciones Públicas, agentes sociales u otras entidades que lo requieran sobre la forma de introducir la perspectiva de género en el diseño, puesta en marcha y evaluación de sus *Programas*. Pero, además de esta participación indirecta, también se gestionan Fondos Europeos que históricamente se han venido destinando a actuaciones pioneras y experiencias piloto de igualdad de oportunidades en el empleo y el desarrollo de los recursos humanos de nuestra Comunidad.

| | |
|---|---|
| EQUAL | Empleo |
| DAPHNE | Violencia |
| SÓCRATES | Educación |
| LEONARDO DA VINCI | Formación Profesional |
| JUVENTUD CON EUROPA | Juventud |

A lo largo de 2006 se ha realizado, a través de la Dirección de Asuntos Europeos del Gobierno Vasco y la Delegación de Euskadi en Bruselas, el seguimiento de la actividad del Consejo de la Unión Europea en relación con la igualdad de mujeres y hombres: *Hoja de Ruta para la igualdad 2006-10, Instituto Europeo de Género, etc.*

## 2. Actividad de las Instituciones Europeas

### Programas Promovidos por Emakunde

### *Fondo Social Europeo (Objetivo 3)*

En concreto, Emakunde participa en el desarrollo del *Eje 6* referido a la promoción de las mujeres en el mercado laboral del *"Programa Operativo para la Comunidad Autónoma del País Vasco"* aprobado, por decisión de la Comisión Europea, en el año 2000. En este marco se han ejecutado, durante este año 2006, las siguientes actuaciones recogidas en el *"Complemento del Programa Operativo de Objetivo 3"*:

– Actualización del contenido de la publicación virtual *"Guía para la contratación de Mujeres"* (ver Página Web de Emakunde www.emakunde.es), una *Guía* que recoge las ayudas a la contratación de mujeres por parte de la Administración del Estado, las ayudas del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales.

– Apoyo y seguimiento de las empresas y organizaciones que ya han sido reconocidas como *Entidades Colaboradoras en Igualdad de Oportunidades*. Además se ha

| | |
|---|---|
| EQUAL | Enplegua |
| DAPHNE | Indarkeria |
| SOCRATES | Hezkuntza |
| LEONARDO DA VINCI | Lanbide Heziketa |
| JUVENTUD CON EUROPA | Gazteria |



tonomia Erkidegoko berdintasunerako erakunde publiko gisa, sortu zenetik aukera-berdintasuna lortzera zuzenduriko jarduerak egin ditu Prestakuntzaren, Enpleguaren eta Esparru Ekonomikoan erabakiak hartzearen esparruan. Horrela, bada, Europar Programei dagokienez, Emakundek informazioa eta aholkua ematen die erakunde publikoei, gizarte eragileei edo behar beste erakunderi, beren *Programak* diseinatu, martxan jarri eta ebaluatzerakoan genero-ikuspegia txertatzeko. Baina zeharkako parte-hartze horretaz gain, Erkidego honetako enpleguaren eta giza baliabideen garapenaren inguruan aukera-berdintasuneko jarduera aitzindarietara eta esperientzia pilotuetara zuzendu diren Europar Funtsak ere kudeatzen ditu historikoki.

Hala, 2006an zehar, Eusko Jaurlaritzako Europako Gaietarako Zuzendaritzaren eta Euskadik Bruselan duen Delegazioaren bidez, Europako Batasuneko Kontseiluak emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean aurrera eraman dituen jardueren jarraipena egin du: Berdintasunerako 2006-10 Ibilbide Orria, Europako Genero Erakundea, etab.

## 2. Europar Erakundeen jarduerak

## Emakundek sustatutako programak

### *Europar Gizarte Funtsa (3. helburua)*

Zehazki, Emakundek *"Euskal Autonomia Erkidegorako Programa Operatiboaren"* barruan emakumeak lan-merkatuan sustatzeari dagokion *6. ardatzaren* garapenean parte hartzen du (programa hori Europako Batzordearen erabakiz onartu zen, 2000. urtean). Esparru horretan, 2005. urtean *"3. Helburuko Programa Operatiboaren Osagarrian"* bildu diren esku-hartze hauek burutu ditu:

– *"Emakumeak Kontratatzeko Gida"* argitalpen birtualaren edukia eguneratzea (ikus Emakunderen web orria: www.emakunde.es). Estatuko Administrazioak emakumeak kontratatzeko eskaintzen dituen diru-laguntzak, eta Eusko Jaurlaritzarenak zein Foru Aldundienak jasotzen ditu G*ida* horrek.

– *Aukera Berdintasuneko Erakunde Kolaboratzaile* gisa aintzatetsitako enpresa eta erakundeak lagundu eta horien jarraipena egitea. Entitate berriei aholku eman zaie,

trabajado en el asesoramiento a nuevas entidades y de las que estaban elaborando su *Diagnóstico* y *Plan de Actuación*. Han conseguido el reconocimiento de *Entidades Colaboradoras* las empresas ETS-Euskal Trenbide Sarea, Eroski S. Coop., Fundación LABEIN Tecnalia y el Sindicato LAB.

En este apartado, además de la actividad habitual de impulso y asesoramiento técnico a las *Entidades Colaboradoras en Igualdad de Oportunidades*, durante el presente ejercicio se ha mantenido la actividad del *Grupo de Empresas por la Igualdad*. Esta iniciativa surgió para complementar el proceso individual de cada organización y se fundamenta en la dinámica seguida hasta el momento por las empresas; en los resultados y las necesidades detectadas; en los rasgos de cooperación colectiva y de responsabilidad social corporativa de las empresas del grupo, así como en el deseo expreso de la personas interlocutoras.

El *Grupo de Empresas por la Igualdad* ha estado formado por *Entidades Colaboradoras* y empresas con un avanzado proceso de trabajo en la elaboración de su *Diagnóstico* y su *Plan de Actuación*. Los objetivos han sido: conseguir un mayor y mejor conocimiento y apoyo mutuo; intercambiar información y experiencias; trabajar conjuntamente y elaborar conclusiones comunes; elaborar herramientas comunes; y convertirse en una referencia para otras empresas.

La metodología de trabajo ha consistido en *Jornadas de Trabajo* con periodicidad trimestral en las que se ha abordado, un proceso de reflexión sobre las implicaciones de la *Ley 4/2005* y su futura regulación en el ámbito empresarial y se han finalizado los trabajos iniciados el año anterior. Así, se ha publicado la *"Guía de Orientaciones para una Promoción No Discriminatoria"* que se dio a conocer en una *Jornada*, organizada por Emakunde, en la que se presentaron, además, prácticas en materia de selección y promoción de algunas de las empresas del grupo y se realizó una reflexión sobre las políticas de conciliación. Además, se ha organizado una *Visita de Es-*












eta *Diagnostikoa eta Jarduera Plana* egiten ari zirenen artean honako hauek izan dira *Entitate Kolaboratzaile-aren* aintzatespena lortu duten enpresak eta erakunde-ak: ETS-Euskal Trenbide Sarea, Eroski S. Coop., LABEIN Tecnalia Fundazioa eta LAB sindikatua.

Atal horretan, *Aukera Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzaileentzako* bultzada eta aholku teknikoa emateko ohiko jardueraz gain, ekitaldian zehar *Berdintasunaren aldeko Enpresen Taldeak* lanari eutsi dio. Ekimen hori erakunde bakoitzaren banakako prozesua osatzeko sortu zen eta bere oinarriak honako hauek dira: orain arte enpresek jarraituriko dinamika, antzemandako emaitza eta beharrak, ikusitako jardunbide egokiak, taldeko enpresen lankidetza kolektiboko eta gizarte-erantzukizun korporatiboko ekintzak, eta solaskide diren pertsonen berariazko gogoa.



*Erakunde Kolaboratzaileek* eta *Diagnostikoa eta Jarduera Plana* egitean lan-prozesu aurreratuan zeuden enpresek osatzen dute *Berdintasunaren aldeko Enpresen Taldea*. Taldearen helburuak ondorengo hauek dira: elkarren ezagutza eta laguntza handiagoa eta hobea lortzea; informazioa eta esperientziak elkartrukatzea; batera lan egitea eta guztientzako ondorioak ateratzea; tresna bateratuak egitea; eta gainerako enpresentzako gizarte-erreferentzia bihurtzea.





Bi hilean behin *Lan Jardunaldiak* egitea izan da lan metodologia. Jardunaldiotan, alde batetik, gogoeta-prozesuari ekin zaio, 4/2005 Legearen inplikazioei eta enpresaren alorrean izango duen arautzeari buruz, eta bestetik, aurreko urtean hasitako lanak burutu dira. Hala, “Diskriminaziorik gabeko sustapenerako” gida argitaratu da. Emakundek antolatutako jardunaldi batean ezagutarazi zen dokumentu hori; gainera, taldeko enpresa batzuek pertsonala hautatzeko eta sustatzeko erabili ohi dituzten jarduerak aurkeztu ziren eta lana eta familia uztartzeko politiken gaineko gogoeta egin zen. Horrez gain, ikasketa-bisita bat antolatu da Londresera, Europako beste leku

*tudio a Londres* con el objetivo de conocer ejemplos de buenas prácticas en relación con la igualdad en el marco empresarial en otros lugares de Europa, a fin de dar un nuevo impulso al trabajo que se viene desarrollando a favor de la igualdad de oportunidades en el seno de las distintas empresas y entidades vascas. Las organizaciones visitadas han sido The Arts Council, Opportunity Now, Victoria & Albert Museum, el banco Abbey Nacional Plc. y Transport for London. La experiencia ha sido muy bien valorada por las entidades participantes.

– *Convocatoria de Subvenciones*, para el año 2006, a empresas y a entidades privadas para la contratación de una *Consultora Homologada* para la realización de un *Diagnóstico* sobre la igualdad de mujeres y hombres y un *Plan de Igualdad. Por Resolución de 27 de abril de 2006* de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, se reguló la *Convocatoria de Subvenciones* para este año a empresas y a entidades privadas con este fin. La introducción de la citada *Resolución* recoge que la consecución de los objetivos de igualdad en el ámbito laboral requiere de la participación activa de las empresas y organizaciones privadas en lo que se refiere a garantizar un acceso al empleo y unas condiciones laborales de calidad y en igualdad para mujeres y hombres, así como para que sus productos y servicios respondan a las necesidades e intereses de mujeres y hombres.

Se presentaron un total de 13 empresas, de las que fueron seleccionados los *Proyectos* de 7 empresas: Asfaltos Naturales de Campezo, S.A.; Sartu; Sociedad Financiera y Minera, S.A.; Goiztiri; Fundación LEIA, C.D.T.; Prevencilan, S.L. y Nazaret Zentroa. Prevencilan, S.L. renunció, posteriormente, a la subvención. El listado de empresas subvencionadas y las cantidades concedidas a cada uno de sus *Proyectos* se publicó por *Resolución* de la Directora de Emakunde de fecha 3 de agosto de 2006 (BOPV. del 20 de septiembre de 2006).

Estas entidades han contado para la realización de sus diagnósticos y planes con el asesoramiento de consultoras homologadas para la prestación de aistencia técnica

batzuetako enpresetan berdintasunaren alorrean egindako jardunbide egokiak ezagutzeko. Era horretan, euskal enpresek eta erakundeek aukera-berdintasunaren alde egin ohi duten lanari bultzada eman nahi izan zaio. Bisitatutako erakundeak honako hauek izan dira: The Arts Council, Opportunity Now, Victoria & Albert Museum, Abbey Nacional Plc. banketxea eta Transport for London.

– Enpresa eta erakunde pribatuei 2006an *Diru-laguntzak emateko Deialdia*, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko *Diagnostikoa* eta *Berdintasun Plana* egingo dituen *Aholkularitza Homologatua* kontratatzeko. Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariak *2006ko maiatzaren 16an emandako Ebazpenaren* bidez arautu dira enpresa eta erakunde pribatuentzako *Laguntza Deialdiak*. Ebazpenaren arabera, lan-esparruan berdintasunaren helburua lortzeko ezinbestekoa da enpresek eta erakunde pribatuek era aktiboan parte hartzea, bai emakumeen laneratzeari, kalitateko lan-baldintzei eta emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokienez, eta baita haien produktuak eta zerbitzuak gizonen eta emakumeen interesei egokitzeko ere.

Guztira 13 enpresa aurkeztu ziren, eta haietako 7ren proiektuak hautatu ziren: Asfaltos Naturales de Campezo, S.A.; Sartu; Sociedad Financiera y Minera, S.A.; Goiztiri; LEIA Fundazioa, C.D.T.; Prevencilan, S.L. eta Nazaret Zentroa enpresenak. Ondoren, Prevencinal, S.L.-k uko egin zion diru-laguntzari. Diruz lagundutako enpresen zerrenda eta jasotako proiektu bakoitzari emandako diru-kopurua Emakundeko Zuzendariaren *Ebazpenez* argitaratu zen 2006ko abuztuaren 3an (2006ko irailaren 20ko EHAAn).

Enpresa eta erakunde horiek aholkularitza-etxe homologatuen laguntza izan dute euren diagnostikoak eta planak egiteko, emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean

en materia de igualdad de mujeres y hombres a empresas y entidades mediante el Decreto 105/2004, de 8 de junio. A lo largo de este año, se han homologado dos nuevas entidades: Ope Consultores, S.L. y Bultz Lan Consulting, siendo ya nueve las consultoras homologadas.

– *Jornada "Igualdad en las empresas: reflexión y prácticas"* celebrada el 15 de noviembre de 2006 en la sede de Gobierno Vasco en Bilbao sobre la que se aporta información más detallada en el capítulo de esta *Memoria* referido a las *Jornadas*.

– *Campaña de sensibilización:* Se realizó una *Campaña de Sensibilización* cuyo objetivo fue explicar y visibilizar la desigualdad salarial entre mujeres y hombres en Euskadi y recordar la reivindicación de igual salario, para trabajo de igual valor. La *Campaña* se realizó en el marco de los actos en torno al *Día Internacional de las Mujeres (8 de marzo),* sobre la que se aporta información más detallada en el capítulo de esta *Memoria* referido a las *Campañas de Comunicación*.

## Programas Promovidos por Emakunde

### Iniciativa Comunitaria EQUAL

La *"Iniciativa Comunitaria EQUAL"*, financiada por el Fondo Social Europeo, pretende la desaparición de cualquier tipo de discriminación, exclusión y desigualdad en el mercado laboral. Considera la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres como una de las cuestiones fundamentales y por ello, siguiendo el planteamiento de la estrategia europea para el Empleo, ha de tenerse en cuenta de manera transversal en los pilares de empleabilidad, de espíritu empresarial y de adaptabilidad de empresas y personas trabajadoras. Además, se contempla de manera específica en el *Cuarto Pilar de Igualdad de Oportunidades.*

Dentro de esta iniciativa, Emakunde ha promovido directamente un *Proyecto* que, entre otros objetivos, continúe la labor iniciada por el Grupo de Evaluación desde la Perspectiva de Género. Este *Proyecto* denominado *"Kideitu: un Horizonte para la Calidad de los Sistemas de Empleo y Formación de la Comunidad Autónoma de Euskadi"*, se fundamenta en la situación de desigualdad de mujeres y hombres en el mercado laboral y en la necesidad de inci-

laguntza teknikoa emateko ekainaren 8ko 105/2004 Dekretuak aurreikusten duen legez. Ildo horretatik, urtean zehar horrelako bi erakunde homologatu dira: Ope Consultores, S.L. eta Bultz Lan Consulting. Horrenbestez, bederatzi dira homologatuta dauden aholkularitza-etxeak.

– *"Berdintasuna enpresetan: gogoeta eta jarduerak" Jardunaldia* 2006ko azaroaren 15ean egin zen Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Bilbon. Jardunaldiari buruzko informazio zehatzagoa *Jardunaldiei* buruzko atalean dago, *Memoria* honetan.

– *Sentsibilizazio-kanpaina.* Euskadiko emakume eta gizonen arteko soldaten ezberdintasuna azaldu eta erakustea izan zen egindako sentsibilizazio-kanpainaren helburua, baita balio bereko lanerako soldata bera eskatzea ere. *Emakumearen Nazioarteko Egunaren (martxoak 8)* inguruko ekimenaren esparruan egin zen kanpaina eta hari buruzko informazio zehatzagoa Komunikazio Kanpainei dagokien kapituluan dago, *Memoria* honetan.

## Emakundeko Sustatutako Programak

### EQUAL Erkidego Ekimena

*"EQUAL Erkidego Ekimena"* Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du eta, ekimen horren bitartez, lan-merkatutik mota guztietako diskriminazioak, baztertzeak eta desberdintasunak desagerraraztea lortu nahi da. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna giltzarrietako bat dela uste da eta, horregatik, enplegurako europar estrategiaren planteamenduari jarraituz, zeharka kontuan hartzekoa da, enplegagarritasuneko, enpresa-espirituko eta enpresen eta langileen moldagarritasuneko zutabeetan. Gainera, aukera-berdintasuneko laugarren zutabean ere berariaz hartzen da kontuan.

Ekimen horren barruan, Emakundek proiektu bat sustatu du zuzenean. Proiektu horrek, beste helburu batzuen artean, Ebaluazio Taldeak genero-ikuspegitik hasitako lanarekin jarraitzeko xedea du. *"Kideitu: Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu eta Prestakuntza Sistemen Kalitaterako aukera"* deituriko proiektuak emakume eta gizonen arteko lan-merkatuko ezberdintasun-egoera du oinarri eta, Enplegu Sistemetan benetan emakumeak lan-merkatuan gi-

dir en los Sistemas de Empleo para que se adecuen a las distintas condiciones, necesidades e intereses de unas y otros si realmente pretenden desarrollar políticas eficaces para lograr el acceso y mantenimiento de las mujeres en el mercado laboral en igualdad de condiciones con los hombres.



Su objetivo general es diseñar e implantar una estrategia participativa e integral de incorporación del enfoque de género en los Sistemas de Empleo y Formación de la Comunidad Autónoma del País Vasco – en especial dentro de aquéllos que se encuentran actualmente en fase de cambio o nueva implantación– que incluya la generación de herramientas, de conocimientos, de experiencia y de redes en torno al objetivo de mainstreaming y que incida, prioritariamente, sobre los y las agentes que conforman dichos sistemas. La configuración de la *Agrupación de Desarrollo del Proyecto*, denominada "*Red Kideitu*", responde a una estructura estratégica capaz de abordar soluciones integrales frente a problemáticas asociadas a la condición de desigualdad que afecta a las mujeres en el Empleo de Euskadi. Con este fin, se ha buscado la cooperación entre entidades clave que, conjuntamente, faciliten una respuesta adecuada frente a dicha problemática, como son las entidades especializadas en Igualdad de Oportunidades y Empleo y entidades que representen e impliquen al mayor abanico de organizaciones gestoras de Servicios de Empleo de la Comunidad Autónoma del País Vasco. En este sentido, *Kideitu* cuenta con la participación de la Dirección de Empleo y Formación del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco; el Departamento de Empleo y Formación de la Diputación Foral de Bizkaia y el Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa; Garapen-Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo; EUDEL-Asociación de Municipios Vascos y Cáritas Diocesana de Bilbao.



Durante el ejercicio 2006 se ha desarrollado el *Plan de Trabajo* previsto para la *Fase de Ejecución del Proyecto Kideitu*, que ha consistido en la realización de las siguientes actividades generales:



zonen aukera berdinetan sartzea eta mantentzea lortzeko politikak garatu nahi badira, batzuen eta besteen baldintza, behar eta interesei egokitzeko beharra aintzat hartu behar da.

Helburu orokorra genero-ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu eta Prestakuntza Sistemetan txertatzeko estrategia partehartzaile eta integrala diseinatu eta ezartzea da –bereziki gaur egun aldaketako edo ezarpen berriko aldian daudenetan-, mainstresming-aren helburuaren inguruko tresnak, ezagutzak, esperientziak eta sareak sortzea bilduko duena eta, lehentasunez, sistema horiek osatzen dituzten agenteengan eragingo duena. *Kideitu Sarea* deituriko *Proiektuaren Garapenerako Taldearen* osaketak, funtsean, enpleguaren alorrean Euskadiko emakumeengan eragina duen ezberdintasun-egoerari konponbide integralak emango dizkion egitura estrategiko bati erantzuten dio. Helburu horrekin, oinarrizko erakundeen arteko lankidetza bilatu da, batera arazo horien aurrean erantzun egokia emateko: adibidez, Aukera Berdintasunean eta Enpleguan espezializatutako erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu Zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeen artekoa. Ildo horretatik, *Kideituren* partaideen artean honako hauek daude: Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza; Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Saila; Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideak, Enplegua eta Gizarteratzeko Departamentua; Garapen Agentzien Euskal Elkartea (Garapen); EUDEL Euskadiko Udalen Elkartea eta Bilboko Elizbarrutiko Cáritas.

Kideitu Proiektua betetzeko faserako aurreikusitako Lan Plana 2006ko ekitaldian zehar gauzatu da. Plan horretako jarduera nagusiak honako hauek izan dira:

– Celebración de una reunión de la Junta Directiva y dos del Comité Técnico, que son los Órganos de Gobierno del *Proyecto*, así como dos reuniones del Comité Transnacional.

– *Encuentro sobre la Implicación Política en los Procesos de Integración de la Transversalidad de Género*, dirigido a los y las titulares de la Junta Directiva de la *AD "Red Kideitu"*.

– *Evaluación Externa:* Se han realizado dos *Informes de Evaluación Intermedia del Proyecto*, con fecha de junio y noviembre.

Con respecto a la *Ejecución de los Ejes del Proyecto*, durante 2006, se han realizado las siguientes acciones:

– En el **Eje 1.- Auditorías de Género:** Se realizó el contraste, supervisión y profundización en los *Informes de Auditorías* por parte de las entidades de la Agrupación de Desarrollo objeto de las mismas, tras lo que se procedió a su validación como informes definitivos.

– **En el Eje 2.- Diseño de Modelos de Mainstreaming:** Se han puesto a disposición de las entidades de la Agrupación de Desarrollo los recursos humanos especializados necesarios para el diseño de los *Modelos de Mainstreaming* y su posterior implantación, mediante la contratación de Agentes de Igualdad. Se diseñó un *Modelo General de Implantación de Mainstreaming de Género* en las organizaciones, que sirviera para orientar el diseño personalizado de los *Planes de Mainstreaming* en cada entidad y se procedió a la firma y difusión de un primer *Documento de Compromiso* por parte de las personas representantes de cada entidad en la Junta de la Agrupación de Desarrollo con el objetivo de impulsar el trabajo de diseño. Al mismo tiempo se diseñó un *Modelo de Transferencia y Formación* sobre el *Modelo General de Mainstreaming*, dirigido a los grupos de trabajo que se constituyeron en de cada entidad con el objetivo de diseñar los planes personalizados. Finalmente, como resultado del proceso de dinamización de las actividades de

– Proiektuko gobernu-organoek, Zuzendaritza Batzordeak eta Batzorde teknikoak, bilera bat eta bi bilera egin dituzte, hurrenez hurren. Era berean, Nazioz gaindiko Batzordeak beste bi bilera egin ditu.

– *"Genero-zeharkakotasunaren integrazio-prozesuetako inplikazio politikoari buruzko Topaketak"*, "*Kideitu Sarea*" Garapenerako Taldeko Zuzendaritza Batzordeko titularrei zuzenduak.

– *Kanpo-ebaluazioa.* Proiektuaren bitarteko ebaluazioa egiteko bi txosten landu dira, bata ekainean eta bestea irailean.

Proiektuaren ardatzen aplikazioari dagokionez, 2006an zehar honako ekimen hauek gauzatu dira:

– **1. ardatza- Genero Auditoriak:** Garapenerako Taldeko erakundeen **auditoria-txostenak** alderatu, gainbegiratu eta sakondu ostean, behin betiko txosten gisa onartu ziren.

– **2. ardatza- Mainstreaming-ereduen diseinua:** Mainstreaming-ereduak diseinatu eta gero ezartzeko ezinbesteko giza baliabide espezializatuak eman zitzaizkien Garapenerako Taldeko erakundeei, Berdintasun Agenteak kontratatuz. Erakundeetan genero-mainstreaminga ezartzeko eredu orokorra diseinatu zen, entitate bakoitzaren mainstreaming-planaren diseinu berezia bideratzeko xedez. Halaber, erakunde bakoitza Garapenerako Taldeko Batzordean ordezkatzen duten pertsonek lehenengo Konpromiso Dokumentua sinatu eta hedatu zuten, diseinu-lana bultzatzeko helburuz. Era berean, mainstreamin-eredu orokorraren gaineko transferentzia- eta prestakuntza-eredua diseinatu zen, erakunde bakoitzeko lantaldeei zuzendua, plan bereziak diseinatzeko helburuz. Azkenik, erakunde eta esperientzia pilotu bakoitzeko diseinu-jardueren dinamizazio-prozesuaren ondorioz (Berdintasun Agenteen koordinazioak eta aholkuek lagundurik), erakunde eta esperientzia bakoitzarentzako genero-mainstreamingeko plan adostua egitea lortu da.

diseño en cada entidad y experiencia piloto, facilitado por la coordinación y asesoramiento experto de las Agentes de Igualdad, se ha conseguido la elaboración consensuada de un *Plan de Mainstreaming de Género* para cada una de las entidades y para cada una de las experiencias piloto.

– **En el Eje 3.- Implantación de Modelos:** Se ha concretado el *Plan de Acción* para el ejercicio 2007 de cada una de las entidades e iniciado su puesta en marcha.

– **En el Eje 4.- Evaluación de los Modelos/Protocolos Implantados:** Se ha diseñado el *Sistema de Seguimiento y Evaluación* que mida el grado de implantación de los *Planes de los Modelos de Mainstreaming de Género.* También se ha diseñado la metodología para realizar el análisis de género de los "*Sistemas de Seguimiento y Evaluación*" utilizados por las entidades de la Agrupación de Desarrollo "*Red Kideitu*" en los *Programas* seleccionados para la implantación del *Modelo de Mainstreaming de Género*.

– **En el Eje 5.- Red de Agentes de Empleo y Formación hacia la Igualdad:** Se han puesto en marcha varias actuaciones:

- Se ha diseñado un *Plan de Dinamización de la Red de Agentes de Empleo y Formación.* Las acciones realizadas en 2006 en desarrollo de este *Plan de Dinamización* han sido: elaboración de la *Base de Datos de la Red de Agentes de Empleo y Formación de la CAPV*, primera edición de un *Boletín Electrónico*, realización el 14 de diciembre del *Encuentro Inaugural "Agentes de Empleo y Formación hacia la Igualdad: Compartir y Construir la Igualdad"*, primero de una serie de *Encuentros* de reflexión e intercambio de experiencias que tendrán lugar a lo largo de todo el *Proyecto*.

- *Campaña de Sensibilización sobre la Igualdad como Cuestión Clave de Calidad*, pertinencia e innovación en los servicios de empleo de Euskadi, con el mensaje central *"Alíate con la Igualdad, Trabaja con Calidad"*. Los soportes promocionales han consistido en una taza y

– **3. ardatza- Ereduen ezarpena:** Erakunde bakoitza 2007ko ekitaldiko ekintza-plana zehaztu eta abian jartzen hasi da.

– **4. ardatza- Ezarritako ereduen edo protokoloen ebaluazioa:** Genero-mainstreamingeko planen ezarpen-maila neurtzeko jarraipen- eta ebaluazio-sistema diseinatu da. Halaber, "Kideitu Sarea" Garapenerako Taldeko entitateek genero-mainstreamingeko eredua ezartzeko aukeratutako programetan erabilitako "Jarraipen eta Ebaluazio Sistemen" genero-analisia egiteko metodologia diseinatu da.

– **5. ardatza- Berdintasunaren aldeko enplegu eta prestakuntzako agentez osatutako sarea:** Zenbait jarduera jarri dira abian:

- Enplegu- eta prestakuntza-agenteen Sarea **dinamizatzeko plana** diseinatu da. Dinamizazio-plan hori garatzeko 2006an burututako ekintzak honako hauek izan dira: EAEko enplegu- eta prestakuntza-agenteen sarearen datu-basea egitea, Buletin elektroniko baten lehenengo adizioa eta "Berdintasunerako Enplegu eta Prestakuntza Agenteak: berdintasuna partekatu eta eraiki" izeneko Inaugurazio Topaketa egitea, abenduaren 14an. *Proiektu* osoan zehar gogoeta egiteko eta esperientziak trukatzeko izango diren hainbat topaketatatik lehenengoa izan zen hura.

- Euskadiko enplegu-zerbitzuen kalitatea, egokitasuna eta berrikuntza lortzeko berdintasuna oinarrizko kontua dela ohartarazteko **sentsibilizazio-kanpaina** egin da. Mezu nagusia *"Egin bat berdintasunarekin, egin lan kalitatez"* izan da. Kanpainaren mezu nagusiari lo-

una memoria USB externa que contienen mensajes relacionados con el mensaje central de la *Campaña.*

- *Aula Formativa hacia la Igualdad*, dirigida a personas de las Agrupaciones de Desarrollo.

– **En el Eje 6.- Difusión del proyecto:** Se ha realizado el mantenimiento de la página web del *Proyecto www.equalkideitu.org*, en concreto han sido objeto de actualización los nodos correspondientes a *"Novedades"*, "*KIDEITU en marcha", "Guías y herramientas" y "Taller de Trabajo".*






Con respecto a los avances en el *Programa de Trabajo Transnacional* es de destacar la *Celebración del Primer Paquete Transnacional*, que tuvo lugar en Vitoria-Gasteiz y Bilbao, los días 6, 7 y 8 de junio. Este *Primer Paquete Transnacional* constó de tres actividades:

1. *II Reunión de Coordinación Transnacional*, que tuvo lugar en Bilbao el 6 de junio. En ella se hizo un repaso de la situación de ejecución del *Proyecto Transnacional* y de la situación de los productos y compromisos transnacionales.

2. *Visitas de Estudio* al Grupo de Empresas por la Igualdad y, en concreto, al Museo Guggenheim, a Emakunde Instituto Vasco de la mujer, a la Agencia de Desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (Centros de Formación), a una de las empresas del catálogo de "*Buenas Prácticas en la Incorporación de Mujeres en las PYMES Vascas*" de Confebask, en concreto a la empresa Fournier.

3. *Seminario Transnacional: "Experiencias Sindicales hacia la Igualdad".* Tuvo lugar en Bilbao el 8 de junio, con la intervención de la experta Diane Perrons y de las Organizaciones Sindicales más representativas del territorio (ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK) junto con la UGL (Italia).




Respecto a la *Página Web Transnacional www.genderemploymentsystem.org* se ha confeccionado y seguido un



tutako mezuak idatzita dauzkaten kikara bat eta USB kanpo-memoria bat izan dira sustapen-euskarriak.

- *Berdintasunerako Prestakuntza Gela.*

– **6. ardatza- Proiektuaren hedapena:** Proiektuaren web orriaren (www.equalkideitu.org) mantentzea egin da, eta zehazki, Berrikuntzak, KIDEITU abian, Gidak eta tresnak, eta Lan-tailerra izan dira eguneratutako nodoak.

*Nazioz gaindiko Lan Programaren* aurrerapenei dagokienez, Gasteizen eta Bilbon, ekainaren 6an, 7an eta 8an *Nazioz gaindiko Lehenengo Multzoa* ospatu izana azpimarratu beharra dago. Nazioz gaindiko Lehenengo Multzoak hiru jarduera hartu zituen barne:



1. *Nazioz gaindiko II. Koordinazio Bilera,* Bilbon, ekainaren 6an, egin zena. Nazioz gaindiko Proiektuaren betetze-egoera eta nazioz gaindiko produktuen eta konpromisoen egoera aztertu zen.



2. *Ikasketa-bisitak,* Berdintasunaren aldeko Enpresa Taldera eta, zehazki, Guggenheim Museora, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundera, Gasteizko Udaleko Garapen Agentziara (prestakuntza-zentroetara) eta Confebasken "Euskal ETEetan emakumeak sartzeari buruzko jardunbide egokien" katalogoko enpresa batera, alegia Fournier enpresara.

3. *Nazioz gaindiko Mintegia: "Berdintasunerako Esperientzia Sindikalak".* Bilbon izan zen, ekainaren 8an. Bertan parte hartu zuten Diane Perrons adituak eta herrialdeko sindikatu nagusien (ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK) ordezkariek, baita Italiako UGLkoek ere.

Nazioz gaindiko web orriari (www.genderemploymentsystem.org) dagokionez, nazioz gaindiko II. Koordi-

*Protocolo de Mantenimiento* aprobado en la *II Reunión de Coordinación Transnacional.*

Además, dentro del *Proyecto Kideitu* y en desarrollo de los *Protocolos de Colaboración* que Emakunde tiene firmados con los siete *Proyectos EQUAL* de la CAPV (*), se ha puesto en marcha una segunda edición del *Aula Formativa hacia la Igualdad*, dirigida a personas de las Agrupaciones de Desarrollo de los citados *Proyectos* y de la Agrupación de Desarrollo "*Red Kideitu*". El *Aula Formativa* consta de dos módulos formativos: El primero de ellos versa sobre "*Incorporación del Enfoque de Género en Programas de Empleo y Formación*", mientras que el segundo módulo trata "*La Evaluación con Enfoque de Género*".

(*) Proyectos EQUAL de la CAPV:

– *Proyecto "Lamegi"*, promovido por la Asociación Berriztapen.
– *Proyecto "Dend@"*, promovido por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.
– *Proyecto "Donostia-Auzolan"*, promovido por Fomento Donostia-San Sebastián.
– *Proyecto "Gertu"*, promovido por Bidasoa Activa.
– *Proyecto "Hazilan"*, promovido por Ehlabe.
– *Proyecto "Aurreratu"*, promovido por Fundación Gaztelanbidean de la BBK.
– *Proyecto "Ariadna"*, promovido por M.I.K.S. Cooperativa.

nazio Bileran onartutako mantentze-protokoloari jarraitu zaio.

Horrez gain, *Kideitu Proiektuaren* barruan eta Emakundek EAEko zazpi *EQUAL Proiektuekin* (*) sinaturik dauzkan Lankidetza Protokoloak garatuz, Berdintasunerako Prestakuntza Gelaren bigarren edizioa abian jarri da, aipatuetako proiektuetako eta Kideitu Sareko Garapenerako Taldeko pertsonei zuzendua. Prestakuntza Gelak bi prestakuntza-modulu dauzka. Lehenengoa "Genero Ikuspegia enplegu- eta prestakuntza-programetan txertatzeari" buruzkoa da eta bigarrenaren gaia "Genero Ikuspegidun Ebaluazioa" da.

(*) EAEko EQUAL Proiektuak:

– *"Lamegi" Proiektua*, Berriztapen Elkarteak sustatua.
– *"Dend@" Proiektua*, Gasteizko Udalak sustatua.
– *"Donostia-Auzolan" Proiektua*, Donostia Sustapenak sustatua
– *"Gertu" Proiektua*, Bidasoa Activak sustatua.
– *"Hazilan" Proiektua*, EHlabek sustatua.
– *"Aurreratu" Proiektua*, BBKko Gazte Lanbidean Fundazioak sustatua.
– *"Ariadna" Proiektua*, M.I.K. S. Kooperatibak sustatua.

# II. Fomento del Asociacionismo de Mujeres

La Comisión Consultiva de Emakunde tiene carácter de órgano de representación de las Asociaciones de Mujeres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus objetivos son:

Apoyar de modo más efectivo la realización de actividades y la coordinación entre las distintas asociaciones.

Establecer un cauce formal para la recogida e integración de sus propuestas, a través de Emakunde, en el diseño y ejecución de las políticas públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mejorar la difusión de la información tanto del ámbito de nuestra Comunidad como de ámbito estatal, comunitario e internacional en relación con la igualdad de oportunidades y de trato entre mujeres y hombres.

Las Asociaciones de Mujeres, en orden a participar en la Comisión Consultiva, se adscriben, según sus funciones, en cuatro áreas de actuación: socio-cultural, formación, asistencial-sanitaria y reflexión feminista.

La Comisión Consultiva funciona en Pleno y en Subcomisiones Sectoriales. De las catorce vocales, doce lo son en representación de las asociaciones participantes en la Comisión Consultiva, que son las presidentas de cada una de las subcomisiones sectoriales, y dos de Emakunde.

Potenciar el tejido asociativo y propiciar estructuras de encuentro entre el Instituto y las Asociaciones de Mujeres sigue siendo un objetivo prioritario para Emakunde. La Comisión Consultiva es el cauce de comunicación entre las Asociaciones de Mujeres y Emakunde, de forma que se constituye en un espacio común donde realizar propuestas, críticas y aportaciones en relación con las políticas de igualdad de oportunidades de nuestra comunidad. Es también el espacio donde se valoran las demandas de Asesoramiento, Formación, etc. de las Asociaciones de Mujeres para fortalecer su participación en los ámbitos sociales y políticos. En este sentido, se ha trabajado tanto en Comisiones como en Subcomisiones. El contacto directo con las Asociaciones de Mujeres permite la actualización de los datos sobre éstas y el mejor conocimiento de sus actividades. Al mismo tiempo, ha facilitado la creación de una red de intercambio de información, actividades, recursos propios, etc.

Gráfico 10. **Composición de la Comisión Consultiva para el Fomento del Asociacionismo de Mujeres.**



# II. Emakumeen Asoziazionismoa Sustatzea

10. grafikoa. **Emakumeen Asoziazionismoa Sustatzeko Aholku-Batzordearen osaketa.**

1. *Lehendakaritza. Emakundeko Zuzendaria*
   Presidencia. Directora de Emakunde
2. *Lehendakariordetza. Emakundeko Idazkari Nagusia*
   Vicepresidencia. Secretaria General de Emakunde
3. *Idazkaritza. Emakundeko Informazio eta Elkartegintza Arduraduna*
   Secretaría. Responsable de Información y Asociacionismo de Emakunde
4. *Batzordekideak*
   Vocales

*Sektorekako azpibatzordeak, Aholku Batzordeko kide diren elkarteek osatua, 12 dira, probintzia bakoitzeko jarduera arlo bakoitzeko bat. Euren artean Lehendakari bat eta Idazkari bat aukeratzen dute. Lehendakaria da azpibatzordeak osoko bilkuran duen ordezkaria*

Las Subcomisiones Sectoriales, integradas por las Asociaciones que forman parte de la Comisión Consultiva, son 12, una por cada área de actuación en cada Territorio Histórico. Eligen entre sus integrantes una Presidenta y una Secretaria. La Presidenta es la vocal representante de la Subcomisión en el Pleno

Emakundeko Aholku Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume Elkarteak ordezkatzen ditu eta honako helburu hauek ditu:

Jarduerak burutzea eta elkarteen arteko koordinazioa eraginkortasun handiagoz bultzatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko politika publikoak diseinatu eta aplikatzeari dagokionez, proposamenak biltzeko eta txertatzeko bide formal bat ezartzea, Emakunderen bitartez.

Emakume eta gizonen arteko aukera- eta tratu-berdintasunari dagokionez, informazioaren hedapena hobetzea, gure Erkidegoan eta Estatuaren, Europako Batasunaren eta nazioarteko esparruetan.

Emakumeen elkarteak, Aholku Batzordean parte hartzeko, honako lau jarduera-alor hauetan sailkatzen dira, eginkizunen arabera: soziokulturala; prestakuntza; laguntza eta osasuna; eta hausnarketa feminista.

Aholku Batzordeak Osoko Bilkura eta Sektore Azpibatzordeak ditu. Hamalau bokaletatik, hamabi Aholku Batzordean parte hartzen duten elkarteetako ordezkariak dira, hain zuzen ere sektore-azpibatzordeetako buruak dira, eta gainerako biek Emakunde ordezkatzen dute.

Emakunderen lehentasunezko helburuen artean, elkartze-egitura indartzea dago, bai eta erakundearen eta emakume-elkarteen arteko topaketak bideratzea ere. Aholku Batzordea Emakume Elkarteen eta Emakunderen topalekua da, hala, eztabaidagune horretan, nahi adina proposamen, kritika eta ekarpen egin daitezke, gure erkidegoko aukera-berdintasuneko politiken inguruan. Orobat, Emakume Elkarteen Aholkularitzako, Prestakuntzako eta abarreko eskaerak balioesten dira, elkarte horiek esparru sozial eta politikoetan duten parte-hartzea indartzeko. Ildo horretan, Batzordeetan eta Azpibatzordeetan lan egin da. Emakume Elkarteekiko zuzeneko harreman horrek bide ematen du haiei buruzko datuak eguneratzeko eta haien jarduerak hobeto ezagutzeko. Aldi berean, informazioa, jarduerak, baliabide propioak eta abar elkartrukatzeko sare bat sortu ahal izan da.

Emakunde ha informado y entregado documentación a la Comisión Consultiva, entre otras cuestiones, sobre:

– Las metodologías de trabajo utilizadas en los distintos Territorios y algunas Comarcas para continuar con el trabajo de impulsar la participación de las Asociaciones de Mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– El último borrador del *IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la C.A.P.V.*

– *La Memoria de Actuación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. 2005.*

– *El Informe Cifras sobre la Situación de Mujeres y Hombres en Euskadi. 2005.*

– *El Plan de Actuación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. 2006.*

– *El Decreto 124/2006, de 13 de junio, del Consejo de Bienestar Social* perteneciente al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, donde prevé la elección de una vocal en representación de las Organizaciones de Mujeres del ámbito territorial de la CAPV y que trabajan en el campo de los servicios sociales, a propuesta de la Comisión Consultiva de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer tal y como figura en el articulo 4 de la normativa que regula el Consejo Vasco de Bienestar Social.



– *El Decreto 78/1998, de 27 de abril*, por el que se crea la *Comisión Asesora de Publicidad No Sexista-Begira/Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholkularitza*, el cual prevé la participación de la Comisión Consultiva a través de 2 representantes de las Asociaciones de Mujeres.

– *Del Decreto 214/2006*, de 31 de octubre por el que se establece la *Estructura Orgánica y Funcional de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer*, el cual contempla en la composición y estructura del Consejo de Dirección la integración de una persona en representación de la Comisión Consultiva de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

Emakundek informazioa jarri du Aholku Batzordearen eskura, besteak beste, honako gai hauek hizpide dituela:

– Lurraldeetan eta eskualdeetan erabilitako lan-metodologiak, Emakumeen Elkarteek Euskal Autonomia Elkartean duten parte-hartzea bultzatzeko.

– *EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren azken zirriborroa.*

– *Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2005eko Jarduera Memoria.*

– *Euskadiko Emakume eta Gizonen Egoerari buruzko Zenbakiak, 2005eko Txostena.*

– *Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2006ko Jarduera Plana.*

– Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren mendeko *Gizarte Ongizate Kontseiluaren* 124/2006 Dekretua, ekainaren 13koa. EAEko eremuko gizarte-zerbitzuen alorrean lan egiten duten emakumeen elkarteak ordezkatzeko batzarkide bat hautatzeko agintzen du horrek. Ordezkari hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak proposatuta aukeratuko da, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua erregulatzen duen araudiaren 4. artikuluak jasotzen duen bezala.

– *Begira-Publizitate ez Sexista / Berdintasuna Garatzeko Iragarkien Aholku Batzordea* sortzeko 78/1998 Dekretua, apirilaren 27koa, Emakumeen Elkarteetako bi ordezkariren bidez Aholku Batzordeak parte hartzea jasotzen duena.

– *Emakume-Euskal Emakumearen Erakundeko egitura organiko eta funtzionala finkatu* duen 214/2006 Dekretua, urriaren 21ekoa. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordeko ordezkari bat Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluan sartzeko agintzen du Dekretuak.

– *El Decreto 166/2006, de 12 de septiembre*, por el que se crea y regula el *Premio Emakunde a la Igualdad* y de las candidaturas presentadas al mismo.

– *La Evaluación Inicial sobre la Implementación de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

En el marco de la Comisión Consultiva, así como en las Subcomisiones Consultivas, se ha dado continuidad a los espacios de trabajo organizados para sensibilizar sobre la importancia de potenciar la creación de estructuras y estrategias que favorezcan el empoderamiento y la participación social de las mujeres: el asociacionismo, la participación en la propia asociación, la coordinación entre asociaciones de mujeres y otras entidades, la creación de redes, la participación en los órganos consultivos de las distintas administraciones, etc. Se ha reflexionado sobre la importancia que tiene la consolidación de dichas estructuras y su contribución al impulso de acciones a favor de la *Igualdad de Oportunidades de Mujeres y Hombres*.

Con la participación de las Asociaciones en las Subcomisiones Consultivas de Gipuzkoa y Bizkaia se han celebrado el *"III Encuentro de Asociaciones de Mujeres de Gipuzkoa"* y el *"II Encuentro de Asociaciones de Mujeres en Bizkaia"*. Se han mantenido varias reuniones de las comisiones de trabajo de asociaciones en Gipuzkoa y Bizkaia; reuniones previas a la organización de las *Jornadas/Encuentros*, con el objetivo de definir los contenidos de las mismas y tras su realización, con el fin de evaluarlas y elaborar el *Documento/Informe Final de Conclusiones.*

Así mismo y como resultado de la dinámica de trabajo mencionado han surgido *Proyectos* que están siendo dinamizados por Grupos de Asociaciones con el fin de dar respuesta a las acciones y estrategias concluidas tras consenso en las *Jornadas*, los *Proyectos* mencionados son:

– *Medios de Comunicación y Movimiento Asociativo.*

Gráfico 11. **Evolución del número de subvenciones concedidas a las asociaciones de mujeres en la C.A. del País Vasco. 2000-2006.**




Gráfico 12. **Evolución de las cuantías subvencionadas a las asociaciones de mujeres en la C.A. del País Vasco. 2000-2006.**



11. grafikoa. **EAEko emakumeen elkarteei emandako diru-laguntzen kopuruaren eboluzioa. 2000-2006.**




12. grafikoa. **EAEko emakumeen elkarteei emandako diru-laguntzen zenbatekoaren eboluzioa. 2000-2006.**




— *Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria* sortzeko eta arautzeko 166/2006 Dekretua, irailaren 12koa, Sariketara hautagaiak aurkeztea ere arautzen duena.

— *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea ezartzearen hasierako ebaluazioa.*

Aholku Batzordearen eta Aholku Azpibatzordeen esparruan, lanean jarraitu da emakumeen boteretzea eta partehartze soziala erraztuko duten egiturak eta estrategiak sortzeko (asoziazionismoa, elkartean bertan parte hartzea, emakume-elkarteen eta bestelako erakundeen arteko koordinazioa, sareak sortzea, administrazioetako aholku-organoetan presentzia izatea eta abar) eta herritarrak horren garrantziaz sentsibilizatzeko. Gogoeta egin da egitura horiek sendotzeko garrantziari buruz, izan ere, horiei esker, *Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunaren* aldeko ekintzek bultzada ederra jasotzen dute.

Elkarteek Gipuzkoako eta Bizkaiko Aholku Azpibatzordeetan parte hartu dute *"Gipuzkoako emakumeen elkarteen III. Topaketan"* eta *"Bizkaiko emakumeen elkarteen II. Topaketan"*. Gipuzkoako eta Bizkaiko elkarteetako lan-batzordeek hainbat bilera egin dituzte, jardunaldiak eta topaketak egin aurretik, jardunaldi eta topaketa horien edukiak zehaztu eta, burutu ostean, ebaluazioa egin eta konklusioak jasotzeko azken dokumentua edo txostena idazteko.

Era berean, aipatutako lan-dinamikaren ondorioz, elkartetaldeek dinamizatutako *proiektuak* sortu dira, jardunaldietan lortutako adostasunari esker abian jarritako ekintza eta estrategiei erantzuna emateko. *Proiektuak* honako hauek dira:

— *Komunikabideak eta elkartze-egitura.*

– *Encuentros Sistematizados de Redes de Mujeres Viudas de C.A.P.V.* (tres encuentros, definiendo los objetivos comunes y unificando actuaciones y proyectos)

– *Proyecto de Impulso de Redes a Nivel Territorial en Gipuzkoa.*

– *Proyecto de Impulso de Redes Comarcales*, (en la Comarca de Goierri y en la Cuadrilla de Ayala/Aiara, este último como *Experiencia Piloto* con el objetivo de trasladar la experiencia a otras Comarcas de esta Comunidad).

Los objetivos de dichos *Encuentros* son los de fortalecer el tejido social, así como el trabajo en redes entre asociaciones y con las instituciones locales.

Se siguen facilitando las reuniones de trabajo en Araba-Álava impulsada por la Subcomisión Consultiva de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer cuyo objetivo sigue siendo el de debatir sobre el futuro ente de participación de las mujeres y del movimiento asociativo previsto en la *Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

En este marco, desde Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer se siguen celebrando varias *Reuniones con Asociaciones de Mujeres* en las que ambas partes, Administración y Asociaciones, han ido exponiendo criterios sobre la composición y funciones del futuro *"Ente de Participación"*, habiéndose facilitado *Seminarios de Trabajo.*

Se han recogido aportaciones con las cuales, se irá elaborando el "*Anteproyecto de Ley del Ente de Participación*" mencionado, tanto a título individual como tras consenso en nombre de redes.

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ha informado de forma sistemática a todas las Asociaciones de Mujeres sobre las distintas *Campañas de Sensibilización* que se organizan desde el Instituto, y sobre las *Campañas* organizadas a nivel internacional. En este sentido, se ha remitido información sobre el análisis y las reflexiones en torno a las me-



— *EAEko emakume alargunen sareen topaketa sistematizatuak* (hiru topaketatan guztien helburuak zehazten eta jarduerak eta proiektuak bateratzen ari dira).

— *Sareak bultzatzeko lurralde-proiektua Gipuzkoan.*

— Eskualde-sareak bultzatzeko proiektua (Goierriko eskualdean eta Aiarako koadrilan, azken hori esperientzia pilotu gisa), esperientzia horiek Erkidegoko beste eskualde batzuetara eramateko xedez.

*Topaketa* horiek gizarte-sarea sendotzea dute helburu, baita elkarteen arteko eta tokiko erakundeekiko sareko lana ere.

Araban lan-bilerak bultzatzen jarraitzen du Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Azpibatzordeak. Emakumeek eta elkarte-egiturak parte hartzeko etorkizuneko erakundea (Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak jasoa) aztertzea da helburua.

Ildo beretik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak jarraitzen du bilerak egiten Emakumeen Elkarteekin eta, bi aldeek, Administrazioak eta Elkarteek, etorkizuneko *"Parte Hartzeko Erakundearen"* osaketari eta eginkizunei buruzko irizpideak azaldu dituzte, eta lan-mintegiak antolatu dituzte horretarako.

Aipatutako *Parte Hartzeko Erakundearen Legearen Aurreproiektua* lantzen joateko ekarpenak bildu dira, bai banakakoak baita sareen arteko adostasunaren ondoriozkoak ere.




Sistematikoki, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak informazioa jarri du emakume-elkarte guztien esku, Erakundetik antolatzen diren *Sentsibilizazio Kanpainei* eta nazioartean antolatutako *Kanpainei* buruz. Zentzu horretan, informazioa eskaini da, batetik, nazioartean abian jarritako neurri politikoei buruzko analisiaren eta gogoeten

didas políticas llevadas a cabo a nivel internacional y sobre propuestas de canales de solidaridad.

Emakunde ha convocado, mediante la *Resolución de 27 de abril de 2006, Subvenciones para el Fomento de las Actividades Organizadas por Asociaciones de Mujeres* y por otras entidades dirigidas a potenciar la participación y formación de las mujeres. Se han atendido 174 solicitudes.

Partiendo del trabajado en la actualización del *"Directorio de Asociaciones, Grupos no Formales y otras Entidades"* con Áreas, Comisiones y/o Departamentos de la Mujer implicados en *Proyectos* que favorezcan la Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres, se ha publicado y difundido una nueva edición de la *"Guía de Asociaciones de Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi"* en formato impreso y electrónico. La finalidad de dicho *Proyecto* es ofrecer una herramienta básica que facilite la coordinación y la creación de redes u otras estructuras que refuercen las acciones a desarrollar.

Se ha asesorado a las Asociaciones de Mujeres para la organización de *Congresos, Conferencias, Seminarios y Actividades* para la incorporación de la perspectiva de género en sus *Proyectos*. Al mismo tiempo, Emakunde ha difundido entre las Asociaciones de Mujeres información sobre diversas *Convocatorias de Subvenciones* realizadas por la Administración Pública Vasca en los siguientes ámbitos:

— Actividades culturales.

— Realización de estudios, trabajos o actividades relacionadas con el medio natural.

— Realización de congresos, reuniones científicas, cursos o seminarios de carácter laboral o económico relacionados con la Justicia.

— Organización de festivales, ciclos, concursos y certámenes de las áreas artísticas de teatro, danza, música y cine.

Gráfico 13. **Porcentajes de actividades subvencionadas por Emakunde a las asociaciones de mujeres en la C.A. de Euskadi, por el tipo de actividad y por año.**




**Tipos de actividades:**

1. Derechos de las mujeres, derechos humanos
2. Autoestima, empoderamiento y participación sociopolítica
3. Una cultura para el desarrollo de la igualdad de oportunidades:
   - Actividad creativa y de ocio
   - Deporte
   - Medios de comunicación
4. La coeducación
5. Igualdad de oportunidades en el empleo:
   - Medio rural
   - Adecuación de los servicios para el empleo
   - Autoempleo
6. Salud integral de las mujeres: gestión de la propia salud y adecuación del sistema sanitario
7. Conciliación de responsabilidades personales, familiares y profesionales
8. Una organización territorial y urbanística favorable a la igualdad de oportunidades y al desarrollo sostenible:
   - Urbanismo y medio ambiente
9. Integración social de las mujeres en riesgo o situación de exclusión social:
   - Mujeres solas y/o con cargas familiares
   - Violencia contra las mujeres
   - Mujeres en otros colectivos en riesgo o situación de exclusión social: prostitución, mujeres con discapacidad, presas, mujeres inmigrantes, con problemas de adicción, lesbianas, etc.
10. Cooperación y políticas de género

13. grafikoa. **Emakundek Euskal Autonomia Erkidegoko emakume-elkarteei diruz lagundutako jardueren ehunekoa, jarduera-motako eta urteko.**




**Jarduera-motak:**
1. Emakumeen eskubideak, giza eskubideak
2. Autoestimua, boteretzea eta partaidetza soziopolitikoa
3. Aukera-berdintasuna garatzeko kultura:
   - Sorkuntzako eta aisialdiko jarduera
   - Kirola
   - Komunikabideak
4. Hezkidetza
5. Enpleguko aukera-berdintasuna:
   - Landa-ingurunea
   - Zerbitzuak enplegurako egokitzea
   - Autoenplegua
6. Emakumeen osasun integrala: osasuna kudeatzea eta osasun-sistema egokitzea
7. Norberaren, familiako eta laneko erantzukizunak bateragarri egitea
8. Aukera-berdintasuna eta garapen iraunkorra laguntzen dituen lurralde- eta hiri-antolamendua:
   - Hirigintza eta ingurumena
9. Gizarte-baztekeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeen gizarteratzea – Bakarrik dauden edo familia-kargak dituzten emakumeak:
   - Emakumeen aurkako indarkeria
   - Gizarte bazterkeria jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden beste kolaktiboetako emakumeak: prostituzioa, ezintasunak dituzten emakumeak, presoak, immigranteak, adikzio-arazoak dituztenak, lesbianak, etab.
10. Lankidetza eta genero-politikak

inguruan eta, bestetik, elkartasun-kanalen proposamenen inguruan.

*2006ko apirilaren 27ko Ebazpenaren* bitartez, Emakundek diru-laguntzak iragarri zituen, Emakume Elkarteek eta emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza indartzea helburu duten bestelako erakundeek antolatutako jarduerak sustatzeko. 174 eskaera aztertu dira.

Emakundek *"Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume Elkarteen Gidaren"* edizio berria argitaratu eta hedatu du, formatu idatzian eta elektronikoan. Emakume eta gizonen aukera-berdintasuna errazteko xedea duten *Proiektuetan* inplikatuta dauden eta Emakumeen Alor, Batzorde edo Departamentuak dituzten *"Elkarteen, Talde Ez Formalen eta bestelako Entitateen Direktorioa"* eguneratzeko egindako lana da Gidaren abiapuntua. Garatu beharreko ekintzak sendotzeko sareak edo bestelako egiturak sortu eta koordinatzeko oinarrizko tresna eskaintzea da *Proiektu* horren helburua.

Orobat, Emakume Elkarteei aholkua eman die Emakundek, *Proiektuetan* genero-ikuspegia txertatzeko helburua duten *Biltzarrak, Hitzaldiak, Mintegiak eta Jarduerak* antolatzeko. Era berean, Erakundeak informazioa jarri du Elkarte horien esku, Euskal Administrazio Publikoak ondorengo esparru hauek diruz laguntzeko egindako deialdien inguruan:

– Kultura-jarduerak.

– Natura-ingurunearekin zerikusia duten ikerketak, lanak edo jarduerak.

– Justiziari lotutako biltzarrak, bilera zientifikoak, ikastaroak edo mintegiak (lanaren edo ekonomiaren alorrekoak).

– Antzerkiaren, dantzaren, musikaren edo zinemaren inguruko jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta erakusketak.

– Actividades de divulgación o promoción de la defensa y protección de los derechos humanos.

Se ha informado también de *Programas Subvencionales del Estado* como bases reguladoras y convocatorias de ayudas y subvenciones para la realización de *Programas de Cooperación y Voluntariado Sociales* con cargo a la asignación tributaria del *Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas*, y de *Programas de la Unión Europea*.

Por otra parte, Emakunde ha invitado sistemáticamente a las Asociaciones de Mujeres a sus *Actividades Formativas, Jornadas, Seminarios* y ha difundido información en relación con el resto de las *Actividades*. El Instituto ha recibido en su sede a diversas Asociaciones de Mujeres con el fin conocer sus objetivos y actividades y dar a conocer el trabajo que desarrolla Emakunde, los recursos que ofrece, etc.

– Giza eskubideen defentsa edo babesa hedatzeko edo sustatzeko xedea duten jarduerak.

*Estatuak Diruz Lagundutako Programak* eta *Europako Batasuneko Programak* ere hizpide izan ditu Emakundek bere aholku eta informazioetan, hala nola *Gizarte Lankidetza eta Boluntariotzako Programak* egiteko oinarri arautzaileak eta diru-laguntzak emateko deialdiak, *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren* esleipenaren kontura.

Bestalde, Emakundek sistematikoki gonbidatu ditu Emakume Elkarteak bere *Prestakuntza Jardueretara, Jardunaldietara eta Mintegietara* eta informazioa zabaldu du gainerako *Jardueren* inguruan. Halaber, Erakundeak zenbait Emakume Elkarte hartu ditu bere egoitzan, batetik, haien helburuak eta jarduerak ezagutzeko eta, bestetik, Emakundek egindako lana, eskaintzen dituen baliabideak eta abar ezagutarazteko.

# III. Las Organizaciones Sociales y Empresariales

La participación de la sociedad, principalmente a través de sus grupos organizados o agentes sociales, sigue siendo un factor imprescindible para el desarrollo de las medidas planteadas en el "*IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV. Directrices VIII Legislatura*" y la consecución efectiva de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. En este sentido, Emakunde ha realizado también una labor de impulso, asesoramiento y formación a las organizaciones sociales y empresariales para que contribuyan al objetivo de la igualdad con el desarrollo de *Planes o Programas* orientados a sus propias plantillas, con sus políticas de comunicación o con sus actividades externas.

La óptima utilización del potencial humano, factor consustancial al crecimiento y la competitividad en la Comunidad Autónoma del País Vasco y, consiguientemente, la incorporación de las mujeres a la vida profesional en igualdad de oportunidades que los hombres, requiere superar la segregación existente en el mercado laboral y revalorizar el trabajo que realizan las mujeres.

Igualdad de Oportunidades en las Empresas y Organizaciones

# III. Gizarte eta Enpresa Erakundeak

Gizartearen partaidetzak, antolatutako taldeen edo gizarte-agenteen bidez bereziki, ezinbesteko faktorea izaten jarraitzen du *EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak (VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak*) jasotako neurriak garatzeko eta emakume eta gizonen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko. Zentzu horretan, Emakundek gizarte- eta enpresa-erakundeak bultzatzeko, prestatzeko eta haiei aholku emateko lana ere egin du, erakunde horiek berdintasunaren helburuaren alde lagundu dezaten, beren langileentzako berariazko *Planak edo Programak* garatuz edo beren komunikazio-politiken edo kanpo-jardueren bitartez.

## Aukera Berdintasuna Enpresa eta Erakundeetan

Giza baliabideen erabilera ahalik eta egokiena izatea ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko hazkundea eta lehiakortasuna bermatzeko. Ondorioz, behar-beharrezkoa da emakumeak lanbide-bizitzan txertatzea gizonezkoen aukera berdinekin. Horretarako, lan-merkatuan nagusi den bereizketa gainditu beharra dago eta emakumeek egiten duten lanari balio handiagoa eman behar zaio.

Las oportunidades para el desarrollo del empleo de las mujeres, derivadas tanto del marco normativo, favorecedor de la igualdad de oportunidades en el empleo y el mundo económico, como de las transformaciones en la vida económica y social serán mejoradas al eliminar los estereotipos sexistas acerca del trabajo y los modelos rígidos de carrera profesional para mujeres y hombres.

Por tanto, uno de los objetivos de Emakunde es sensibilizar a los diferentes agentes económicos y sociales e impulsar la realización de *Planes de Acción Positiva* en las empresas para que pongan en marcha en sus organizaciones Programas de *Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres* que incluyan medidas orientadas a elevar la competencia profesional de sus trabajadoras, incidiendo sobre aquellos factores que obstaculizan, cuantitativa y cualitativamente, una participación laboral igualitaria de mujeres y hombres.

Con este fin, el Gobierno Vasco creó, por *Decreto 424/1994*, el reconocimiento de *"Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades"* y Emakunde ha prestado apoyo técnico a las empresas que han iniciado *Programas o Planes* con estos objetivos.

La promoción de la igualdad en las empresas es hoy, también, una prioridad para Europa y en este sentido, uno de los objetivos del Fondo Social Europeo. Este hecho ha permitido que las actuaciones llevadas a cabo por Emakunde en este ámbito durante el 2006, hayan contado con la cofinanciación del citado F.S.E. y por ello, la información sobre las actividades desarrolladas ha sido expuesta en el apartado dedicado a los *Programas Europeos*.

## Género y Medios de Comunicación



Los Medios de Comunicación, y especialmente la Televisión, constituyen un instrumento de enorme influencia para la construcción de nuevos modelos sociales que permitan avanzar hacia una sociedad más justa e igualitaria. Por ello, Emakunde ha venido trabajando desde su creación en la sensibilización de las y los profesionales de los medios.

Arau-esparrutik (aukera-berdintasuna errazten baitu enpleguan eta ekonomiaren munduan) eta bizitza ekonomiko eta sozialean izandako aldaketetatik etortzen dira emakumeen enplegua garatzeko aukerak. Aukera horiek hobetzen joango dira, lanari buruzko estereotipo sexistak eta emakume eta gizonentzako karrera profesionalen inguruko eredu zurrunak ezabatu ahala.

Beraz, Emakunderen helburuetako bat agente ekonomiko eta sozialak sentsibilizatu eta enpresetan *Ekintza Positiboko Planak* sustatzea da, euren antolamenduan *Emakume eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Programak* abian jarri ditzaten. Programa horiek emakumezko langileen gaitasun profesionala handitzeko neurriak hartu behar dituzte barne eta arreta berezia jarri behar dute emakumeek eta gizonek lanean berdintasunez parte hartzea kualitatiboki eta kuantitatiboko eragozten duten oztopoak desagertzeko.

Helburu hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzak *"Aukera Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzaile"* izendapena sortu zuen, *424/1994 Dekretuaren* bidez, eta Emakundek laguntza teknikoa eman die helburu horiek lortzeko *Programak eta Planak* abiarazi dituzten enpresei.

Gaur egun, Europako Batasunarentzat ere berdintasuna enpresetan sustatzea lehentasunezkoa da eta, zentzu horretan, Europako Gizarte Funtsaren helburuetako bat da. Horregatik, 2006an, Emakundek esparru horretan burututako jarduerek Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketa izan dute. Hori dela eta, Erakundeak aurrera eraman dituen ekintzei buruzko informazioa *Europar Programen* atalean azaldu da.

## Generoa eta Komunikabideak

Komunikabideak, eta bereziki Telebista, eragin ikaragarriko tresnak dira gizarte bidezkoagoa eta berdintasun handiagokoa lortzeko aukera emango duten gizarte-eredu berriak eraikitzeko. Horregatik, komunikabideetako profesionalek sentsibilizazioa bereganatzeko lanean jardun du Emakundek, sortu zenez geroztik.

En este sentido, la *Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres recoge en su artículo 26 que ningún medio de comunicación puede presentar a las personas como inferiores o superiores en dignidad humana en función de su sexo, ni como meros objetos sexuales. Tampoco se pueden difundir contenidos que justifiquen, banalicen o inciten a la violencia contra las mujeres.* Los medios de comunicación social también deben garantizar una participación activa de las mujeres y una presencia equilibrada y una imagen plural de ambos sexos, al margen de estereotipos sexistas.

## Asesoramiento a Programas y Actividades Externas

Además de solicitudes procedentes de la Administración, Emakunde atiende solicitudes de asesoramiento procedentes de entidades que desempeñan su actividad en el ámbito de la formación y desde asociaciones y ONGD's que promueven *Proyectos* en el marco de diversas convocatorias públicas.

### *En formación*

**Al Parlamento Vasco**

Organización de las *III Jornadas Internacionales "De los Derechos a los Hechos: Buenas Prácticas en Materia de Igualdad"*, celebradas en Bilbao los días 2, 3 y 4 de octubre de 2006.

### *En proyectos*

Emakunde-Instituto de la Mujer ha ofrecido asesoramiento a ONGD's que han solicitado información sobre los *Programas de Cooperación al Desarrollo* del Gobierno Vasco o sobre cómo incorporar la Perspectiva de Género en *Proyectos* concretos.

### *Reconocimientos y Premios*

Presencia en el jurado de los "*Premios Dolores Ibarruri de Servicios Sociales/Gizarte Zerbitzuetako Dolores Ibarruri Sariak. 2006*", convocados por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

Presencia en el jurado del "*Premio Luís Olaortua a la Ética y el Desarrollo Empresarial. 2006*", convocado por la Asociación Vasca de Empresas de Ingeniería y Consultoría, AVIC.

Ildo horretatik, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, 26. artikuluan, argi uzten du ezein komunikabidek ere ezin diola inori giza duintasun handiagoa edo txikiagoa eman sexuaren arabera eta ezin duela inor sexu-objektutzat aurkeztu. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, txikiesten edo eragiten duen edukirik ezin dute hedatu hedabideek. Gizarte-komunikabideek emakumeen parte-hartze aktiboa eta bi sexuen presentzia orekatua eta irudi plurala bermatu behar dituzte, estereotipo sexistak alde batera utzita.

## Kanpo Programa eta Jardueretarako Aholkularitza

Administraziotik datozkion eskaerez gain, Emakundek aholkularitza-eskaerak erantzuten dizkie, batetik, prestakuntzaren esparruan jarduten duten erakundeei, eta bestetik, zenbait deialdi publikoren esparruan *Proiektuak* sustatzen dituzten elkarteei eta GGKEei.

### *Prestakuntzan*

**Eusko Legebiltzarrari**

*"Eskubideetatik ekintzetara: jardunbide egokiak berdintasunaren alorrean"* izeneko Nazioarteko III. Jardunaldiak. Bilbon izan ziren, 2006ko urriaren 2an, 3an eta 4an.

### *Proiektuetan*

Hainbat GGKEk informazioa eskatu diote Emakunderi, Eusko Jaurlaritzako *Garapenerako Lankidetza Programei* buruz edo *Proiektu* zehatzetan genero-ikuspegia txertatzeko moduari buruz. Emakundek aholkularitza eskaini die erakunde horiei guztiei.

### *Aitorpen eta Sarietan*

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak antolatutako "*Gizarte Zerbitzuetako Dolores Ibarruri 2006ko Sarien*" epaimahaian parte hartu zuen Emakundek.

Ingeniaritza eta Aholkularitza Enpresen Euskal Elkarteak (AVIC) antolatutako "*Etika eta Enpresa Garapeneko Luis Olartua 2006ko Sariaren*" epaimahaian ere parte hartu zuen.

Presencia en el jurado de los *Premios Municipales ARGILAN "Empresa y Empleo en Igualdad. 2006*", convocados por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

Entrega del *"Premio a la Mujer Empresaria. 2006"*, convocado y organizado por AMPEA-Asociación de Mujeres Empresarias de Álava.

Gasteizko Udalak antolatutako "*Enpresa eta Enplegua Berdintasunean" ARGILAN 2006ko Udal Sarien* epaimahaiko partaide ere izan zen.

Arabako Emakumezko Enpresaburuen Elkartea-AMPEAk antolatutako "*2006ko Emakumezko Enpresaburuaren Saria*" eman zuen.

# IV. Formación

## Formación Interna

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer desarrolla su actividad formativa dirigida tanto al propio personal del Instituto como a profesionales de las distintas Administraciones y de otros Organismos y agentes sociales.

La formación interna se aborda tanto a través de la organización de cursos propios como de la asistencia a diferentes foros de reflexión y debate, seminarios, conferencias, etc. En este sentido, cabe destacar la participación del personal técnico del Instituto en los siguientes *Foros de Reflexión y Debate:*

– *Congreso "SARE 2006: "Mujeres Generando las Paces"*, organizado por Emakunde y celebrado en Donostia-San Sebastián.

– *Diploma de Especialización* en *"Salud Pública y Género"*, impartido por la Escuela Nacional de Salud Pública en Madrid.

## Formación Externa

**Seminarios**

Además, en el marco del *"Programa NAHIKO para la Prevención de la Violencia Contra las Mujeres desde el Marco*

# IV. Prestakuntza

## Barne Prestakuntza

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak prestakuntza-jarduera garatzen du, bai bere langileentzat, bai bestelako Administrazio, Erakunde eta Gizarte Eragileetako profesionalentzat.

Barne-prestakuntzari ekiteko, Erakundeak ikastaro propioak antolatu ditu eta, gainera, gogoetarako eta eztabaidarako hainbat foro, mintegi, hitzaldi eta abarretan parte hartu du. Ildo horretatik, 2006an zehar Erakundeko pertsonal teknikoak gogoetan eta eztabaidan jarduteko ondoko foro hauetan parte hartu izana azpimarratu daiteke:

– *"SARE 2006 Biltzarra": "Emakumeak bakeak sortzen"*, Emakundek antolatua eta Donostian egina.

– *"Osasun Publikoan eta Generoan" Espezializazio Diploma*, Madrilgo Osasun Publiko Eskolak emana.

## Kanpo Prestakuntza

**Mintegiak**

Gainera, *"Emakumeen Aurkako Indarkeria Eskolatik Prebenitzeko NAHIKO Programaren"* esparruan, ondo-

*Escolar"*, se han realizado los siguientes *Seminarios* con el profesorado participante:

– *"Cambiar la Escuela: la Coeducación en los Espacios Escolares*", que tuvo lugar en Vitoria-Gasteiz en septiembre de 2006.

– "*Roles de Género y Modelos Educativos*", que tuvo lugar en Vitoria-Gasteiz en febrero de 2006.

– *"Seminario sobre Políticas de Derechos Humanos: Hacia un Trabajo en Red"*, organizado por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

– *"Democracia, Poder y Ciudadanía en la Sociedad y en la Escuela"*, que tuvo lugar en abril de 2006 en Vitoria-Gasteiz

– Programa *"Los Viernes de la Cámara"*. Desarrollando el tema *"Responsabilidad Social. Igualdad entre Mujeres y Hombres"*. Organizado por Bilboko Merkataritza Ganbera-Cámara de Comercio de Bilbao.

Igualmente, en el marco del *Programa NAHIKO*, se ha realizado un *Curso de Formación* para el personal responsable del *Programa de Convivencia y Diversidad* y las *Asesorías* de los centros participantes en septiembre de 2006.

## Másteres

Con el objetivo de proporcionar formación cualificada a profesionales que desarrollan o van a desarrollar su trabajo en el campo de la igualdad de oportunidades se ha colaborado en las varias iniciativas formativas, así, se ha participando en la organización, docencia y financiación —por medio de becas al alumnado— de los siguientes Másteres:

– *"Máster de Igualdad de Mujeres y Hombres"*, en colaboración con la E.H.U.-U.P.V. El objetivo de este *Máster* es formar nuevas agentes de igualdad de oportunidades que puedan trabajar en el diseño y desarrollo de políticas de igualdad en diversas entidades y organizaciones, y espe-

ko mintegiak antolatu dira parte hartu duten irakasleekin:

– *"Eskola aldatu: hezkidetza eskola-eremuetan"*, Gasteizen, 2006ko irailean gauzatua.

– *"Genero-rolak eta hezkuntza-ereduak"*, Gasteizen, 2006ko otsailean egin zen.

– Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak antolatutako *"Giza Eskubideen inguruko Politikei buruzko Mintegia: Sareko Lanerako Bidean"*.

– *"Demokrazia, boterea eta herritartasuna gizartean eta eskolan"*, 2006ko apirilean Gasteizen egina.

– *"Ganberako Ostiralak" Programa, "Giza Erantzukizuna: Emakume eta Gizonen Berdintasuna"* gaia garatuz, Bilboko Merkataritza Ganberak antolatua.

Era berean, *NAHIKO programaren* esparruan, prestakuntza-ikastaro bat izan da bizikidetza- eta aniztasun-programaren arduradunentzat eta parte hartzen duten ikastetxeen aholkularientzat, 2006ko irailean.

**Masterrak**

Beren lana aukera-berdintasunaren eremuan egiten duten edo egingo duten profesionalei prestakuntza kualifikatua eskaintzeko helburuarekin, Emakundek zenbait prestakuntza-ekimenetan parte hartu du. Hala, ondorengo master hauek antolatzen, eskola ematen eta finantzatzen —ikasleei emandako beken bidez— lagundu du:

– *"Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra"* EHUrekin elkarlanean. Master horren bitartez, aukera-berdintasunaren alorreko agente berriak trebatu nahi dira enpresa eta erakundeetan eta, bereziki, Administrazioan berdintasun-politiken diseinuan eta garape-

cialmente, en la Administración. En el marco de este *Máster* el Instituto ha impartido docencia en los módulos *"Políticas Públicas de Igualdad" (módulo II) y "Metodología para la implementación de la Igualdad" (módulo III).*

– *"Máster en Intervención en Violencia contra las Mujeres"*, en colaboración con la Universidad de Deusto. El objetivo de este Máster es capacitar a las personas profesionales relacionadas con el tema en la identificación, diagnóstico e intervención ante la violencia contra las mujeres. El Instituto ha impartido docencia en el curso 14 relativo a la *"Intervención Institucional ante la Violencia Doméstica: Ámbito Policial, Sanitario, Asistencial y Social y Respuesta del Sistema Judicial".*

– Por otro lado, Emakunde ha participado en el *"II Master en Género, Educación, Políticas de Igualdad y Liderazgo (2006-2007)"*, organizado por la Universidad de Vigo, impartiendo docencia en el módulo 6 sobre *"Políticas de Igualdad"*.




### Cursos

– *"Construyendo la Coeducación: Experiencias y Retos"* en el marco del curso *"¿Es posible coeducar desde nuestros centros educativos?"* organizado por el CPR (Centro de Formación del Profesorado) de Gijón, Consejería de Educación y Ciencia del Gobierno del Principado de Asturias.

– Emakunde ha colaborado con EUDEL y con el IVAP en la organización del curso *"Protocolos Locales para la Mejora en la Atención a Mujeres Víctimas de Agresiones Sexuales y Maltrato Doméstico"*, celebrado en Vitoria-Gasteiz. Además, en el marco de dicho curso ha impartido la ponencia *"El Acuerdo interinstitucional para la Mejora en la Atención a Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales".*




– *"Políticas Públicas de Igualdad en la CAPV"*, integrado en el V módulo del curso *"VI Curso de Especialistas en*




nean lan egiteko aukera izan dezaten. Master horren esparruan, Erakundeak eskola eman du modulu hauetan: *"Berdintasun Politika Publikoak" (II. Modulua)* eta *"Berdintasuna ezartzeko metodologia" (III. modulua).*

– *"Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurrean Esku Hartzeari buruzko Masterra"*, Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean. Master horren helburua emakumeen aurkako indarkeriaren identifikazioan, diagnostikoan eta esku-hartzean profesionalak trebatzea da. *"Erakundeen esku-hartzea etxeko indarkeriaren aurrean: poliziaren, osasunaren eta laguntzaren arloak eta gizartearen eta sistema judizialaren erantzunak"* izeneko gaiari buruzko eskola eman du Erakundeak, 14. ikastaroan.

– Bestalde, Vigoko Unibertsitateak emandako *"Generoari, Hezkuntzari, Berdintasun Politikei eta Lidergoari buruzko II. Masterrean (2006-2007)* parte hartu du Emakundek, 6. moduluan, *"Berdintasun Politikei"* buruzko eskolak ematen.

### Ikastaroak

– *"Hezkidetza Eraikitzen: Esperientziak eta Erronkak"*, Asturiasko Gobernuko Hezkuntza eta Zientzia Saileko CPRk (Irakasleak Prestatzeko Zentroa, Gijon) antolatutako *"Posible ote da hezkidetza gure ikastetxeetan?"* izeneko ikastaroaren esparruan.




– Emakundek elkarlanean jardun du EUDELekin eta HAEErekin *"Sexu-erasoen eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko tokiko protokoloak"* ikastaroa prestatzen, Gasteizen. Horrez gain, ikastaro horren esparruan, *"Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakunde arteko akordioa"* txostena aurkeztu du.

– *"EAEko Berdintasun Politika Publikoak"*, Madrilgo Psikologoen Elkargo Ofizialak antolatutako "Gizartean eta

*Intervención Social y Género"* organizado por el Colegio Oficial de Psicólogos de Madrid.

**Asistencia a Jornadas**

– *"Jornadas sobre Orientación Profesional"*, organizadas en Bilbao por Confebask y el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

– *"Jornadas sobre Asuntos Europeos"*, organizadas en Bruselas en febrero de 2006 por la Dirección de Asuntos Europeos del Gobierno Vasco.

– Con motivo del centenario del nacimiento de la poetisa vitoriana Ernestina de Champourcin, se celebró en Vitoria-Gasteiz un *Congreso Internacional* con el título *"Mujer y Cultura en el Siglo XX"*, organizado por el Instituto de Historia Social Valentín de Foronda de la EHU-UPV y la Fundación Universitaria de Navarra. En este marco se presentó el libro *"Ernestina de Champourcin. Mujer y Cultura en el Siglo XX"*, dicha presentación fue clausurada con una intervención de la Directora de Emakunde.

– *"Congreso Nacional de Mujeres Empresarias, Profesionales y Directivas"*, organizado por FEDEP-Federación de Empresarias, Directivas y Profesionales de Euskadi.

– *"V Jornada sobre Trastornos de la Conducta Alimentaria"*, organizada por ACABE BIZKAIA-Asociación contra la Anorexia y la Bulimia Nerviosa.

– *"VII Jornadas Internacionales de los Derechos a los Hechos. Buenas Prácticas en Materia de Igualdad"*, organizadas por el Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco.

– *"VIII Encuentro de Mujeres del Medio Rural de Álava: Mujeres y Hombres Apostamos por la Igualdad"*, organizado por Arabako Baserritar Iguruko Emakumeen Sarea-Red de Mujeres del Medio Rural de Álava.

Generoan Esku Hartzeko Espezialistentzako VI. Ikastaroko" V. moduluaren barruan.

**Jardunaldiak**

– *"Lanbide-orientazioari buruzko jardunaldiak"*, Confebaskek eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak Bilbon antolatuak.

– *"Europar gaiei buruzko jardunaldiak"*, Eusko Jaurlaritzako Europar Gaietako Zuzendaritzak Bruselan, 2006ko otsailean, antolatuak.

– Ernestina de Champourain emakumezko poetaren jaiotzaren ehungarren urteurrena dela eta, *"Emakumea eta Kultura XX. Mendean"* Nazioarteko Biltzarra egin zen Gasteizen, EHUko Valentín de Foronda Gizarte Historiako Institutuak eta Nafarroako Unibertsitate Fundazioak antolaturik. Biltzar horren esparruan, *"Ernestina de Champourcin. Emakumea eta Kultura XX. Mendean"* izenburuko liburua aurkeztu zen. Aurkezpenaren amaieran Emakundeko Zuzendariak hartu zuen parte.

– *"Emakumezko Enpresaburu, Profesional eta Zuzendarien" Biltzarra,* FEDEP-Euskadiko Emakumezko Enpresaburu, Zuzendari eta Profesionalen Federazioak antolaturik.

– *"Elikadura Jokaeraren Nahasteei buruzko V. Jardunaldia"*, ACABE BIZKAIA-Anorexiaren eta Nerbio Bulimiaren aurkako Elkartea.

– *"Eskubideetatik Ekintzetara VII. Nazioarteko Jardunaldiak. Berdintasunaren alorreko Jardunbide Egokiak"*, Eusko Legebiltzarrak antolaturik.

– *"Arabako Baserri Inguruneko Emakumeen VIII. Topaketak: Emakumeok eta Gizonok Berdintasunaren aldeko apustua egiten dugu", Arabako Baserri Inguruneko Emakumeen Sareak antolaturik.*

# V. Sensibilización

El logro efectivo del objetivo de la igualdad requiere diversificar y enriquecer los patrones socioculturales de conducta de mujeres y hombres con miras a alcanzar la eliminación de perjuicios y las prácticas consuetudinarias y de cualquier índole que estén basados en la idea de la inferioridad o superioridad de cualquiera de los sexos o en funciones estereotipadas de hombres y mujeres. Se trata, por tanto, de superar estos modelos, limitados en función del género, incorporando todos los valores, capacidades y comportamientos para construir una cultura común enriquecida por las diferencias personales. Informar a la sociedad en general sobre el sentido y el interés de los objetivos que los poderes públicos se proponen alcanzar es una estrategia facilitadora para el desarrollo de las medidas necesarias a la consecución de esos objetivos.

# V. Sentsibilizazioa

Berdintasunaren helburua benetan lortzeko, behar-beharrezkoa da emakume eta gizonen jarreraren eredu soziokulturalak aldatu eta aberastea, sexu baten edo bestearen gutxiagotasunaren edo nagusitasunaren ideian edo emakume eta gizonen funtzio estereotipatuan oinarritutako aurreiritziak, ohiturazko jarduerak eta antzekoak desagertzeko xedez. Beraz, generoaren arabera mugatutako eredu horiek gainditu eta balio, gaitasun eta jarrera guztiak barneratu beharra dago, norberaren ezberdintasunak aberastutako kultura bateratua eraikitzeko. Gizarteari, oro har, eta gizartean eragiten duten profesional, gizarte-agente eta bestelako erakundeei, zehazki, informazio egokia eskaini behar zaie, botere publikoek lortu nahi dituzten helburuen zentzuari eta interesari buruz. Izan ere, helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak hartzea errazten du estrategia horrek.

En consecuencia, uno de los cometidos de Emakunde es la realización de acciones de sensibilización social entre las que merecen ser destacadas las *Jornadas*, las *Campañas*, la *Revista*, los *Premios Emakunde* y la continuada participación en *Foros de Debate* y en los *Medios de comunicación*.

## Foro para la Igualdad: NARO 2006

A fin de reforzar la labor de sensibilización que viene realizando, Emakunde puso en marcha el *"Foro para la Igualdad NARO"*. Se trata de un *Foro* de carácter anual cuyo objetivo es visibilizar las actividades de sensibilización y formación que en relación con la igualdad de mujeres y hombres se realizan en la Comunidad Autónoma del País Vasco, tanto desde las Instituciones Públicas como desde colectivos y entidades privadas, generando a su vez sinergias que fortalezcan dichas actuaciones. El *Foro NARO* pretende así convertirse en un espacio rico y fecundo que sirva de marco anual a las entidades públicas y privadas para ubicar sus iniciativas a favor de la igualdad de mujeres y hombres. *NARO 2006* se celebró entre los días 8 y 26 de mayo de 2006 y las actividades realizadas estuvieron relacionadas con los siguientes ámbitos:




- Acción Positiva y Mainstreaming de Género.
- Sensibilización y Cambio de Mentalidad.
- Violencia Contra las Mujeres.
- Coeducación.
- Economía y Empleo.
- Pensamiento Feminista.




Participaron en el *Foro* 55 entidades y en las tres semanas que duró, se realizaron un total de 48 actividades. Esto supuso un aumento del 57% de las entidades, lo que indica que *NARO* va convirtiéndose en un referente importante en la Comunidad Autónoma del País Vasco.



naro berdintasunerako gunea 2007 foro para la igualdad

2007

Maiatza/Mayo

ZEGAMAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ZEGAMA

Harremanetarako
Contacto
ZEGAMAKO UDALA
AYTO. DE ZEGAMA
Tel.: 943 801 115
Posta elektronikoa:
gizarte.zegama@udal.gipuzkoa.net

16/18.

Ekitaldiaren izenburua
**Zine Forum saioak: "Familiaren eredu berriak".**
Tokia
Olarango Gizarte Zentroa, Zegama.
Ordutegia
17:30.
Hitz giltzarriak
Pelikula: "Te doy mis ojos". Eztabaida eta solasaldia, "Gaur egungo familiaren eredu berriei" buruz. Paz del Corral (UPV-EHU) izango da bertan.

Título del acto
***Sesiones de Cine Forum: "Nuevos modelos de familia".***
Lugar
*Olarango Gizarte Zentroa, Zegama.*
Horario
*17:30.*
Palabras clave
*Película "Te doy mis ojos". Debate y tertulia sobre "Nuevos modos de familia en la actualidad" con Paz del Corral (UPV-EHU).*

Maiatza/Mayo

Harremanetarako
Contacto
GIPUZKOA FORU ALDUNDIA
GIZARTE ETA HARREMANETARAKO DEP.
KIROL ZUZENDARITZA
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
DEP. DE SERVICIOS SOCIALES
DIRECCIÓN DE DEPORTE
Tel.: 943 11 24 29
Faxa: 943 42 45 18
Posta elektronikoa:
mparedes@gipuzkoa.net

17.

Ekitaldiaren izenburua
**Tailerra: "Hizkuntza eta sexismoa kirolean".**
Tokia
Kirol Etxea, Donostia-San Sebastián.
Ordutegia
09:00 - 14:00.
Hitz giltzarriak
Hausnarketa. Akatsen identifikazioa. Formula onenetan trebakuntza. Zabalkuntza.

Título del acto
***Taller presencial: "El lenguaje no sexista en el deporte".***
Lugar
*Casa del Deporte, Donostia-San Sebastián.*
Horario
*09:00 - 14:00.*
Palabras clave
*Reflexión. Identificación de errores. Capacitación en fórmulas idóneas. Divulgación.*

2. Sentsibilizazioa eta Pentsamolde Aldaketa
*Sensibilización y Cambio de Mentalidad*

9

## Jornadas

**Congreso Internacional SARE 2006**

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer puso en marcha, en 2003, los *Encuentros SARE*, que pretenden ser un *Foro de Reflexión, Innovación e Intercambio* sobre temas novedosos relacionados con la igualdad de género. Estos *Encuen-*



Hori dela eta, Emakunderen zeregin nagusietako bat gizarte-sentsibilizazioko ekintzak aurrera eramatea da. Horien artean, honakoak nabarmendu daitezke: *Jardunaldiak, Kanpainak, Aldizkaria, Emakunde Sariak eta eztabaida-foroetan eta hedabideetan behin eta berriro parte hartzea.*

## Berdintasunerako Gunea: NARO 2006

Emakundek, egiten duen sentsibilizazio-lana indartzeko helburuarekin, *"NARO Berdintasunerako Gunea"* ekimena jarri zuen abian. Urtero irekitzen den *Foroa* da eta bere helburua da emakume eta gizonen berdintasunarekin erlazionaturik Euskal Autonomia Erkidegoan, nola erakunde publikoetatik, hala gizarte-talde eta erakunde pribatuetatik, bultzatutako jarduerak erakustea, jarduera horiek indartzeko sinergiak sortuz. Hala, *NARO Guneak* erakunde publiko eta pribatuentzat emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekimenak urtero hartzeko esparrua izango den espazio aberats eta emankorra bilakatzeko asmoa du. *NARO 2006* maiatzaren 8tik eta 26ra bitartean egin zen eta bertan burututako ekintzek honako alor hauek izan zituzten aztergai:






- Ekintza Positiboa eta Genero Mainstreaminga.
- Sentsibilizazioa eta Pentsamolde Aldaketa.
- Emakumeen aurkako Indarkeria.
- Hezkidetza.
- Ekonomia eta Enplegua.
- Pentsaera Feminista.

*Foroak* iraun zuen hiru asteetan 55 erakundek parte hartu zuten eta, guztira, 51 jarduera gauzatu ziren. Horrek esan nahi du parte hartu zuten erakundeen kopurua % 57 handitu zela aurreko ekitalditik eta, hortaz, NARO garrantzizko erreferentea bihurtzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan.

## Jardunaldiak



**SARE 2006 Nazioarteko Biltzarra**

*SARE Topaketak* 2003an jarri zituen abian Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, genero-berdintasunari lotutako gaien inguruko gogoeta, berrikuntza eta elkartrukea egiteko *Foroa* izateko xedez. *Topaketa* horiek urtero egiten

*tros* se celebran anualmente y pretenden reunir a personas interesadas, expertas y profesionales del ámbito público y privado, tanto de nuestra Comunidad como del ámbito estatal e internacional.

La edición *SARE 2006*, se centró en el tema de las mujeres en los procesos de paz. Para abordar este tema, se organizó un *Congreso Internacional* bajo el título "*Mujeres Generando las Paces*" que tuvo lugar los días 23 y 24 de octubre de 2006 en el Palacio Kursaal de Donostia-San Sebastián. El objetivo de este *Congreso* era analizar la incidencia del género en la construcción de la identidad desde diferentes ámbitos: familia, escuela, medios de comunicación y afectividad. Se trataba, en definitiva, de reflexionar sobre la incidencia del género en el proceso de socialización primaria a fin de poder contribuir al empoderamiento de las futuras mujeres adultas. Paralelamente a la celebración del *SARE 2006*, se actualizó su *Página Web* específica www.sare-emakunde.com, con objeto de alcanzar una amplia difusión de los *Encuentros*, sus contenidos, sus valoraciones y, en su caso, detalles organizativos.

## SARE 2006: Declaración Internacional

Nueve mujeres que trabajan en distintos países por la paz en situación de guerra y post-conflicto bélico que participaron en el *Congreso SARE 2006: "Mujeres Generando las Paces"*, consensuaron y firmaron en el marco del congreso una *"Declaración Internacional de Mujeres a favor del Proceso de Paz Vasco"*. La declaración fue firmada por mujeres de Colombia, Irlanda del Norte, Liberia, Palestina, Kosovo, Argentina, Israel y Serbia. Hicieron entrega de la *Declaración* a la Directora de Emakunde, Izaskun Moyua, para que ésta lo hiciera llegar a las máximas autoridades del País. La Directora de Emakunde hizo entrega de una copia de la *Declaración* al Lehendakari Juan José Ibarretxe y a la máxima responsable del Parlamento Vasco, Izaskun Bilbao.




















dira eta eremu publiko eta pribatuko pertsona interesatuak, adituak eta profesionalak biltzeko helburua du, nola gure Erkidegokoak hala Estatukoak edo Nazioartekoak.

Emakumeek bake-prozesuetan duten eginkizuna izan zen *SARE*ren 2006ko ekitaldiaren gai nagusia. Gaiari heltzeko Nazioarteko Biltzarra antolatu zen, "Emakumeak bakeak sortzen" lelopean, 2006ko urriaren 23an eta 24an, Donostiako Kursaal Jauregian. Generoak norberaren identitatea eraikitzeko izaten duen eragina hainbat alderditatik aztertzea zen Biltzarraren helburua: familiaren, eskolaren, komunikabideen eta afektibitatearen alderdietatik hain justu. Kontua zen, azken batean, generoak lehenengo gizarteratze-prozesuan duen eraginari buruz gogoeta egitea, etorkizuneko emakume helduen boteretzea laguntzeko xedez. *SARE 2006* gauzatzen zen bitartean, bere web orria eguneratu zen (www.sare-emakunde.com), *Topaketak*, edukiak, balorazioak eta, beti ere, antolamenduaren xehetasunak ahalik eta gehien ezagutarazteko.

## SARE 2006: Nazioarteko Adierazpena

*"Emakumeak bakea sortzen"* lelopean egindako *SARE Biltzarrean* parte hartu zuten bederatzi emakumek, gerran edo gerra osteko egoeran dauden herrialdeetan bakearen alde lanean ari direnek, *"Euskal Bake Prozesuaren Aldeko Nazioarteko Emakumeen Adierazpena"* sinatu zuten. Adierazpena Kolonbia, Ipar Irlanda, Liberia, Palestina, Kosovo, Argentina, Israel eta Serbiako emakumeek sinatu zuten. Adierazpena Emakundeko Zuzendari Izaskun Moyuari eman zioten, berak herrialdeko goreneko agintariei helarazi ziezaien. Emakundeko Zuzendariak Lehendakariari eta Eusko Legebiltzarreko Lehendakari Izaskun Bilbaori eman zien Adierazpenaren kopia bana.

## Otras jornadas



– *"Presupuestos Municipales y Género".* El objetivo de esta *Jornada* dirigida al personal político y técnico de los Ayuntamientos era reflexionar sobre la incorporación de la Perspectiva de Género en los Presupuestos Municipales y presentar las experiencias desarrolladas en nuestra Comunidad. La *Jornada* tuvo lugar en mayo de 2006, en el marco del *III Foro para la Igualdad NARO 2006.*

– *"Igualdad en las Empresas: Reflexión y Experiencias"* celebrada en Bilbao en noviembre de 2006 en el marco de la *Semana Europea de la Calidad*. El objetivo de esta *Jornada*, cofinanciada por el F.S.E., era reflexionar sobre el tema de la conciliación y presentar experiencias de tres entidades colaboradoras en igualdad de nuestra Comunidad: BBK, Guggenheim y Metro Bilbao.



– Organización de una *Jornada* sobre *"Presupuestos Locales con Enfoque de Género"*. El objetivo de esta *Jornada* dirigida a personal político y técnico de las Administraciones Locales era dar a conocer el trabajo y los materiales generados sobre *Presupuestos Locales desde la Perspectiva de Género* desarrollado en el Grupo de Trabajo Técnico Local y la experiencia de Suecia y de los países nórdicos en este sentido. La *Jornada* se celebró el 11 de mayo de 2006 en Emakunde en el marco del *Foro para la Igualdad NARO 2006.*

– Organización de una *Jornada de Presentación* de la *"Guía de Actuación ante el Maltrato Doméstico y la Violencia Sexual contra las Mujeres para Profesionales de los Servicios Sociales"*, celebrada en Bilbao en noviembre de 2006, en la que se expusieron los principales contenidos de la *Guía*, elaborada y publicada conjuntamente con el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales de Araba-Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, con la colaboración de EUDEL.



## Conferencias Impartidas por Emakunde

Con el fin de favorecer la reflexión y dar a conocer el trabajo de las Instituciones en torno a la igualdad de oportunidades, Emakunde ha impartido *Conferencias* a petición de diferentes Entidades, Asociaciones de Mujeres,



## Beste jardunaldi batzuk

– *"Udal-aurrekontuak eta generoa"* Jardunaldia udaletako pertsonal politiko eta teknikoari zuzenduta zegoen eta bere helburua udal-aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeari buruzko gogoeta egin eta gure Erkidegoan garatutako esperientziak aurkeztea zen. Jardunaldia 2006ko maiatzean izan zen, NARO 2006 Berdintasunerako Foroaren esparruan.



– *"Berdintasuna enpresetan: gogoeta eta esperientziak"*, Bilbon izan zen, 2006ko azaroan, Kalitatearen Europar Astearen esparruan. EGFk batera finantzatutako jardunaldiaren helburua lana eta familia bateratzeaz gogoeta egin eta gure Erkidegoan Berdintasunerako Kolaboratzaile diren hiru entitateren esperientziak aurkeztea: BBKrena, Guggenheimena eta Metro Bilbaorena, hain zuzen.

– *"Genero-ikuspegidun udal-aurrekontuak"* Jardunaldia toki-administrazioetako pertsonal politikoari eta teknikoari zuzenduta zegoen eta bere helburua genero-ikuspegidun udal-aurrekontuen inguruan sortutako lana eta materialak ezagutaraztea eta Suediako eta Iparraldeko beste herrialdeetako esperientzia erakustea ziren. Jardunaldia 2006ko maiatzaren 11n izan zen, Emakunden, *NARO 2006 Berdintasunerako Foroaren* esparruan.



– *"Emakumeen aurkako Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Indarkeriaren aurrean Gizarte Zerbitzuetako Profesionalek Jokatzeko Gida"* aurkezteko jardunaldia. Bilbon izan zen, 2006ko azaroan, eta bertan Gidaren helburu nagusiak azaldu ziren. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera landu eta argitaratu da Gida, Eudelek ere lagunduta.

## Emakundek egindako hitzaldiak

Hausnarketa laguntzeko eta aukera-berdintasunaren inguruan Erakunde Publikoek egindako lana ezagutzera emateko helburuz, Emakundek hitzaldiak egin izan ditu hainbat Erakundek, Emakume Elkartek, Udalek eta Kultura Etxek es-

Ayuntamientos y Centros Culturales entre las que merecen destacar:

– *Seminario "Erradicación de Estrategias Sexistas en la Programación Infantil de Televisión"*, organizado por el Centro de Formación del Instituto Oficial de Radio y Televisión (OIRTV) de RTVE en Madrid en junio de 2006. En el *Seminario* participaron profesionales de diferentes televisiones y especialistas en género e infancia para la elaboración de un baremo de *Indicadores Sexistas en la Programación Televisiva Infantil*.

– *"La Coeducación en Euskadi"* en el marco del *Encuentro Estatal "Intercambia 2006"*, celebrado en Madrid en noviembre de 2006.

– *"I Jornadas Coeducativas"* organizadas por la Secretaría de la Dona de la Federació d´Enseyament de CC.OO. de Catalunya en Terrassa en las que Emakunde participó en el *Panel de Buenas Prácticas sobre Coeducación*.

– *Jornadas sobre Educación Sexual*, organizadas en Bilbao por Bizigay, EHGAM,QE y AEPS y en el marco de las cuales Emakunde presentó la ponencia *"La Perspectiva de Género en la Educación Sexual"*.

– Conferencia internacional *Know How: "Tejiendo la Sociedad de la Información: una Perspectiva Multicultural y de Género"* organizada en México por el *Programa de Estudios de Género* de la UNAM. En el marco de dicho *Congreso*, Emakunde presentó la ponencia *"Género y Medios de Comunicación: la Experiencia en Euskadi"*.

– *"Educar para Convivir en Igualdad"*, en el marco de las actividades organizadas por el Instituto Cervantes de Túnez el 6 de marzo con motivo del *Día Internacional de las Mujeres*.

– *"Presentación General de la Ley Vasca para la Igualdad"* impartida en la Jornada sobre "*La Ley Vasca para la Igualdad de Mujeres y Hombres*", organizada en Bilbao

katuta, eta horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

– *"Haurrei zuzendutako telebista-programaziotik estrategia sexistak desagertzea"* mintegia, Madrilgo RTVEko Irrati eta Telebistako Erakunde Ofizialeko (OIRTV) prestakuntza-zentroak antolatuta, 2006ko ekainean. Mintegian hainbat telebistatako profesionalek eta generoan eta haurtzaroan espezialistak diren adituek parte hartu zuten, Haurrentzako Telebista Programazioan sexismoa adierazteko baremoak lantzen.

– *"Euskadiko Hezkidetza"*, Madrilen 2006ko azaroan izandako "Intercambia 2006" Estatuko Topaketan.

– *"Hezkidetzari buruzko I. Jardunaldiak"*, Kataluniako CCOOeko Irakasleen Federazioko Emakumeen Idazkaritzak antolatuta, Tarrasan. Hezkidetzako jardunbide egokien panelean parte hartu zuen Emakundek.

– *Sexu Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak,* Bizigay, EHGAM, QE eta AEPS elkarteek Bilbon antolatuta. Emakundek *"Genero Ikuspegia Sexu Hezkuntzan"* txostena aurkeztu zuen.

– *Know How* Nazioarteko Konferentzia: *"Informazio-gizartea osatzen: kultura anitzeko ikuspegia eta genero-ikuspegia"*, UNAMeko Genero Ikerketako Programak Mexikon antolatuta. Horren esparruan, *"Generoa eta Komunikabideak: Euskadiko Esperientzia"* txostena aurkeztu zuen Emakundek.

– *"Berdintasunean Bizitzeko Hezkuntza"*, Tunezeko Cervantes Institutuak *"Emakumeen Nazioarteko Eguna"* dela-eta martxoaren 6an antolatutako jardueren esparruan.

– *"Berdintasunerako Euskal Legearen aurkezpen orokorra"*, Zuzenbideko Euskal Akademiak eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoak "*Emakume eta Gizonen Berdintasunera-*

por la Academia Vasca de Derecho y por el Ilustre Colegio de Abogados del Señorío de Bizkaia.

– *"La Violencia Contra las Mujeres en la Comunidad Autónoma del País Vasco: la Prevención en el Ámbito Educativo y la Coordinación en la Atención a las Víctimas"*, impartida en el marco de la Asamblea de las Regiones de Europa celebrada en Kiruna (Suecia).

– *"Presentación de la Guía de Actuación ante el Maltrato Doméstico y la Violencia Sexual Contra las Mujeres para Profesionales de los Servicios Sociales"*, en el marco de la *Jornada* organizada a tal fin por la Diputación de Foral de Araba-Álava en Vitoria-Gasteiz.

– *"Intervención Pública ante la Violencia Contra las Mujeres"*, impartida en la *Jornada "No más Violencia Contra las Mujeres"*, organizada en Donostia-San Sebastián por Amnistía Internacional.

– *"El Proceso de Elaboración de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres"*, comunicación presentada en la Mesa Redonda *"La Participación en el Diseño de las Leyes"*, organizada por el Consejo Vasco de la Juventud.

– *"Situación de la Violencia Contra las Mujeres en la CAPV"*, impartida en Bilbao en el marco de la *Jornada "La Violencia Contra las Mujeres: desde las Políticas a los Dispositivos Avanzados de Intervención"*, organizada por la Cooperativa de Iniciativa social "Agintzari".

– *"La Aplicación de la Ley Vasca de Igualdad"*, impartida en las *"Jornadas Internacionales sobre Igualdad, Participación Política y Desarrollo Local"*, organizadas por el Ayuntamiento de Sant Sadurní d'Anoia.

– *"Políticas de Igualdad en las Administraciones Autonómicas"*, en el marco del *VI Curso de Especialista en Intervención Social con Mujeres* organizado por el Colegio de Psicólogos de Madrid.

*ko Euskal Legeari"* buruz Bilbon antolatutako Jardunaldian.

– *"Emakumeen aurkako Indarkeria Euskal Autonomia Erkidegoan: prebentzioa hezkuntza-eremuan eta biktimei laguntzeko koordinazioa"*, Kirunan (Suedia) izandako Europako Eskualdeen Biltzarraren esparruan.

– *"Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean gizarte-zerbitzuetako profesionalek jokatzeko gidaren aurkezpena"*, Arabako Foru Aldundiak Gasteizen berariaz antolatutako Jardunaldiaren esparruan.

– *"Esku-hartze publikoa emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean"*, Amnistia Internazionalak Donostian antolatutako *"Emakumeen aurkako indarkeria gehiagorik ez"* jardunaldiaren esparruan.

– *"Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea lantzeko prozesua"*, Gazteriaren Euskal Kontseiluak antolatutako *"Legeak diseinatzeko parte hartzea"* Mahainguruan aurkeztua.

– *"Emakumeen aurkako indarkeriaren egoera EAEn"*, "Agintzari" Gizarte Ekimeneko Kooperatibak Bilbon antolatutako *"Emakumeen aurkako indarkeria: politiketatik esku hartzeko sistema aurreratuetaraino"* Jardunaldiaren esparruan.

– *"Berdintasunerako Euskal Legearen aplikazioa"* Sant Sadurni d´Anoiako Udalak antolatutako *"Berdintasunari, Parte-hartze politikoari eta Toki-garapenari buruzko Nazioarteko Jardunaldien"* esparruan.

– *"Administrazio Autonomikoetako Berdintasun Politikak"*, Madrilgo Psikologoen Elkargoak *antolatutako Emakumeekiko Gizarte Esku-hartzeko VI. Espezialista Ikastaroaren* esparruan.

— *"Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres; Implicaciones para la Administración Foral - IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV, Directrices VIII Legislatura"* organizado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— *"Las Mujeres con Discapacidad en los Planes de Acción Positiva para la Igualdad de Género y en los Instrumentos de Protección frente a la Violencia"* celebrada en mayo de 2006 en el Palacio Euskalduna de Bilbao en el marco del *I Congreso de Personas con Discapacidad Física Ciudadanía Activa y Calidad de Vida*, organizado por la Federación Coordinadora de personas con discapacidad física de Bizkaia.

## Campañas de Comunicación

**8 de marzo**

El lema utilizado *"Gana Como una Mujer"* iba acompañado de una explicación sobre la diferencia salarial entre mujeres y hombres en Euskadi, aproximadamente un 26,0%. El objetivo de la *Campaña* ha sido explicar y visibilizar la desigualdad salarial entre mujeres y hombres en Euskadi y recordar la reivindicación de igual salario, para trabajo de igual valor ya que, como se explica en la *Campaña*, los empleos en los que predominan las mujeres están peor remunerados que en los que predominan los hombres, aunque requieran niveles equivalentes de esfuerzo y responsabilidad.




Los soportes publicitarios utilizados han sido prensa y servicios exteriores. Se ha completado con diversos artículos en prensa, entrevistas y el envío de carteles a los diferentes Organismos e Instituciones de nuestra Comunidad.

Se editaron un total de 2.000 carteles de diferentes tamaños para su colocación en marquesinas de autobuses y cabinas telefónicas, así como para su distribución por instituciones, asociaciones, ONGDs, etc.

Siendo una campaña cofinanciada por el F.S.E. se ha hecho referencia a ella en esta *Memoria* en el apartado de *Programas Europeos.*

– "*Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea; Foru Administrazioarentzako inplikazioak – EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana; VIII. Legegintzaldiko Jarraibideak*", Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta.

– "*Urritasuna duten emakumeak genero-berdintasunerako ekintza positiboko planetan eta indarkeriatik babesteko tresnetan*", Bilboko Euskalduna Jauregian, 2006ko maiatzean, Urritasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazioak *Herritartasun aktiboa eta bizi-kalitatea* izenburupean urritasun fisikoa duten pertsonentzat antolatutako biltzarrean.

## Komunikazio Kanpainak

### Martxoaren 8a




Erabilitako eslogana "*Emakume Soldata du*" izan zen eta, horrekin batera, Euskadiko emakume eta gizonen soldaten arteko aldeari buruzko azalpena zetorren. Aldea %26koa da gutxi gorabehera. *Kanpaina*ren helburua Euskadiko gizonen eta emakumeen soldaten desberdintasuna azaldu eta erakustea zen, baita balio bereko lanerako soldata berdinaren errebindikazioa gogoratzea ere. Izan ere, kanpainan esaten den legez, emakumeak nagusi diren enpleguetan gizonak nagusi direnetan baino gutxiago ordaintzen da, nahiz eta ahaleginaren eta erantzukizunaren aldetik antzeko maila beharrezkoa izan.

Erabilitako euskarriak prentsa eta kanpo-zerbitzuak izan dira. Prentsako artikuluak, elkarrizketak eta gure Erkidegoko Organismo eta Erakundeetara bidalitako kartelak ere erabili dira osagarri gisa.

Guztira 2.000 kartel argitaratu ziren, tamaina ezberdinetakoak, autobusen markesinetan eta telefono-kabinetan jartzeko, baita erakunde, elkarte, GGKE eta abarren artean banatzeko ere.

EGFk batera finantzatutako kanpaina izanik, *Memoria* honetako *Europar Programak* atalean ere aipatu da.

## 25 de noviembre

El *25 de noviembre* es el *"Día Internacional para la Erradicación de la Violencia Contra las Mujeres"*. La violencia que se ejerce en sus diferentes formas contra las mujeres supone un grave atentado contra su integridad física y moral y un ataque directo a su dignidad como personas. Por tanto, es una grave violación de los derechos humanos de las mujeres y un problema social que requiere la implicación de toda la sociedad en su conjunto. Desde las Instituciones se está abordando este problema tanto desde la investigación, sensibilización y prevención, como a través de medidas para la protección y asistencia (jurídica, psicológica, económica, de acogida...) a las víctimas, para enfrentarse con las mayores garantías posibles a la grave situación en que se encuentran. En este marco, como en años anteriores, se llevó a cabo una *Campaña* con diversos ejes de actuación:




Por un lado, se realizó una *Campaña Interinstitucional* dirigida, principalmente, a las posibles víctimas de maltrato. Se elaboraron y expusieron en diversos soportes 7.200 carteles cuyo contenido informaba sobre qué hacer en estos casos y los recursos y ayudas existentes en nuestra Comunidad.

Esta información fue, asimismo, insertada, a página entera, en todos los diarios de nuestra Comunidad y en cuñas radiofónicas elaboradas a tal efecto.

Las entidades participantes en esta la *Campaña* fueron:

– Presidencia del Gobierno Vasco.

– Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

– Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

– Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

## Azaroaren 25a




*Azaroaren 25a "Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna"* da. Emakumeen aurkako mota guztietako indarkeria eraso larria da haien segurtasun fisiko eta moralaren aurka eta kalte zuzena eragiten die, pertsona diren heinean, merezi duten duintasunean. Beraz, emakumeen giza eskubideen urraketa larria da, baita gizarte osoaren esku-hartzea eskatzen duen arazo soziala ere. Erakundeetan arazo horri prebentziotik heltzen ari zaio, ikerketatik eta sentsibilizaziotik abiatuta eta babesa eta laguntza (juridikoa, psikologikoa, ekonomikoa, harrerakoa...) biktimen eskura jarriz, duten egoera larriari ahalik eta baldintza onenean aurre egiteko aukera izan dezaten. Ildo horretatik, aurreko urteetan bezala, *Kanpaina* bat jarri zen abian. Zenbait jarduera-ardatzez osatua:

Alde batetik, *Erakunde arteko Kanpaina* antolatu zen, tratu txarren balizko biktimentzat bereziki. Hainbat euskarri erabiliz, 7.200 kartel egin eta erakutsi ziren. Horrelako kasuetan zer egin behar den adierazten zuten kartelen edukiek eta gure Erkidegoan eskuragarri dauden baliabide eta laguntzen berri ematen zuten.

Orobat, informazio hori gure Erkidegoko egunkari guztietan azaldu zen, orri betean, bai eta horretarako berariaz prestaturiko irratiko iragarki laburretan ere.

*Kanpainako* parte hartzaileak honako erakunde hauek izan ziren:



– Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza.

– Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

– Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

– Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.

– Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

– Diputación Foral de Bizkaia.

– Diputación Foral de Gipuzkoa.

– Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

Además de labor de impulso y coordinación de la *Campaña Interinstitucional*, Emakunde, con ocasión del *25 de noviembre*, ha llevado a cabo las siguientes actuaciones: elaboración y difusión de cuñas radiofónicas con el objetivo de sensibilizar sobre la necesidad de que toda la sociedad y en especial los hombres se impliquen en la lucha contra la violencia hacia las mujeres; envío de un artículo de opinión a todos los diarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco; inserción de información sobre la *Campaña* en la *Página Web* de Emakunde; participación en jornadas y conferencias y en medios de comunicación y colaboración con EUDEL para la realización de la *Campaña* promovida por la *Red Berdinsarea* a la que se han adherido los 41 Ayuntamientos pertenecientes a la *Red* y otros 10 más que solicitaron participar en la *Campaña Conjunta*.



## Campaña dirigida a los hombres

La participación y la aportación de los hombres a la lucha por la igualdad entre mujeres y hombres es un aspecto que viene preocupando desde hace años a Emakunde y a otros Organismos y movimientos sociales que trabajan por una sociedad igualitaria. Emakunde, dentro de su *Plan de Comunicación*, ha llevado a cabo durante el mes de diciembre de 2006 y primera semana de 2007 una *Campaña de Comunicación Dirigida a los Hombres*. Se ha basado en un anuncio de televisión que se ha podido ver en los dos canales de ETB, en euskara y castellano. En este spot, Emakunde habla directamente a los hombres. Lo hace en un tono amable que remarca la idea de la necesidad de construir entre todos y todas una sociedad mejor y más justa, y que, además de animar a algunos hombres a cambiar sus actitudes, muestra también su agradecimiento a los que ya han dado los primeros pasos, entendiendo que la igualdad es una responsabilidad de todos y todas.

*A las mujeres no nos gusta cualquier hombre.*

*Nos gustan los hombres muy hombres.*

*Valientes. Que no se arrugan ante nada.*

*Y que se enfrentan a todo.*

*Seguros de sí mismos.*

*Nos gusta ese nuevo hombre que está cambiando la historia.*

*EMAKUNDE*

*La igualdad te hace más hombre.*

– Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.

– Bizkaiko Foru Aldundia.

– Gipuzkoako Foru Aldundia.

– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.

*Erakunde arteko Kanpaina* sustatzeko eta koordinatzeko lanaz gain, Emakundek, *azaroaren 25a* zela eta, ondoko jarduera hauek eraman ditu aurrera: irratiko iragarki laburrak egin eta hedatzea, gizarteak eta, bereziki gizonek, emakumeek nozitutako indarkeriaren aurkako borrokan inplikatzeko beharraz sentsibilizatzeko helburuarekin; Euskal Autonomia Erkidegoko egunkari guztietara iritzi-artikulu bana bidaltzea; *Kanpainari* buruzko informazioa Emakunderen *Web Orrian* txertatzea; jardunaldietan eta hitzaldietan eta komunikabideetan parte hartzea eta Eudeli *Berdinsareak* sustatutako kanpaina egiten laguntzea. Sareko 41 udalek bat egin dute kanpainarekin, baita bertan parte hartzea eskatu zuten beste 10 udal gehiagok ere.

## Gizonei zuzendutako kanpaina

Emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko borrokan gizonek ere parte hartzeaz eta ekarpena egiteaz arduratzen dira, aspalditik, Emakunde eta berdintasunezko gizartearen alde lan egiten duten gainerako erakundeak eta gizarte-mugimenduak. Emakundek, bere Komunikazio Planaren barruan, gizonei zuzendutako komunikazio-kanpaina gauzatu du 2006ko abenduan eta 2007ko lehenengo astean. Kanpainaren oinarria telebista-iragarki bat izan da, ETBko bi kanaletan, euskarazkoan zein gaztelerazkoan, azaldu dena. Iragarki horretan gizonei zuzenean hitz egiten die Emakundek. Era atseginean hitz egiten du eta gizon eta emakume guztien artean gizarte hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko ideia azpimarratzen du. Gizon batzuk bere jokaera aldatzera animatzeaz gain, lehenengo urratsak eman dituztenei esker ona adierazten die, berdintasuna guztion erantzukizuna dela ulertaraziz.



*Emakumeoi ez zaigu edozein gizon gustatzen.*

*Gizon peto-petoak gustatzen zaizkigu.*

*Ausartak. Ezergatik ere kikiltzen ez direnak.*

*Eta edozeri aurre egiten diotenak*

*Historia aldatzen ari den gizon berri hori gustatzen zaigu.*

*EMAKUNDE*

*Berdintasunak gizonago egiten zaitu.*

El lema de la campaña es *"La igualdad te hace más hombre"* y se centra en los valores que se han atribuido durante la historia al género masculino como la valentía, la fortaleza, la seguridad en sí mismos, la capacidad de enfrentarse a todo. Valores que en la práctica, durante la historia, han sido utilizados en muchos casos para fines impositivos o violentos, y que, sin embargo, Emakunde en su *Campaña* ha vaciado de su contenido negativo y ha incorporado a fines tan nobles y justos como la corresponsabilidad de hombres y mujeres en los ámbitos privado y público o el reconocimiento del poder y la autoridad de estas últimas en los ámbitos de la vida en los que tradicionalmente han carecido de poder.

## Revista Emakunde

La *Revista Emakunde* ha publicado cuatro números a lo largo del año, abarcando diferentes cuestiones que tienen que ver directamente con la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.




**La Revista de marzo/nº. 62**

El número 62, correspondiente al mes de marzo, se centró en el *Programa Escolar Nahiko* que impulsa Emakunde. Se recogieron en sendos reportajes las experiencias llevadas a cabo en distintos centros escolares y se entrevistó a personas especialistas en educación e igualdad.




**La Revista de junio/nº. 63**

El número 63, del mes de junio, la revista Emakunde realiza un repaso al *IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres*, adentrándose en los diferentes ejes y áreas del *Plan*. Al margen del tema central, aborda la celebración del *Foro para la Igualdad NARO* y entrevista a la Defensora para la Igualdad, Maite Erro.

Kanpainaren goiburua hau da: "*Berdintasunak gizonago egiten zaitu*". Gizonezkoei historian zehar egotzi izan zaizkien balioetan oinarritzen da, hots, ausardian, indarrean, norberarekiko segurtasunean eta edozeri aurre egiteko gaitasunean. Balio horiek, praktikan, inposatzeko edo indarkeriaz jokatzeko helburuz erabili izan dira historian zehar. Hala ere, kanpaina horretan Emakundek eduki negatiboz hustu eta beste eduki zintzo eta bidezkoagoak eman dizkie, hala nola emakumeen eta gizonen erantzukizun bateratua arlo publikoan zein pribatuan edo emakumeek tradizionalki botererik izan ez duten bizitzako esparruetan boterea eta agintea izan ditzaketela onartzea.




## Emakunde Aldizkaria

*Emakunde aldizkariak* lau zenbaki argitaratu ditu urtean zehar. Horietan, emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekin lotura zuzena duten hainbat gai jorratu ditu.

**Martxoko aldizkaria/62. zk.**

Aldizkariaren 62. zenbakiak, martxokoak, Emakundek bultzatutako Nahiko eskola-programa izan zuen hizpide. Hainbat ikastetxetan burututako esperientziak bildu ziren bi erreportajetan eta hezkuntzan eta berdintasunean aditu diren pertsonei elkarrizketa egin zitzaien.

**Ekaineko aldizkaria /63. zk.**

Emakunde aldizkariaren 63. zenbakiak, ekainari dagokionak, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana izan zuen aipagai eta planaren ardatzak eta atalak aztertu zituen. Gai nagusiaz gain, Berdintasunerako Naro Foroa jaso zuen eta Maite Erro Berdintasunerako Defendatzaileari elkarrizketa egin zion.

### La Revista de septiembre/nº. 64




El número 64, del mes de septiembre, contiene dos temas principales. Por un lado, la celebración del 75 aniversario del derecho del ejercicio de las mujeres al voto en el Estado español. En este apartado, además de un artículo de Amelia Valcárcel sobre los derechos políticos, se realiza un repaso histórico del sufragio de las mujeres, del perfil de Clara Campoamor, y se recogen testimonios de mujeres que votaron en las elecciones de 1933. El otro tema central de la revista es el homenaje a María José Urruzola, en el que se recoge su trayectoria y su contribución al *Feminismo* y a la *Coeducación.*

### La Revista de diciembre/nº. 65

El número 65, del mes de diciembre, recoge de manera amplia todo el contenido del *Congreso Internacional Sare 2006 "Mujeres Generando las Paces"*, organizado por Emakunde, y que se celebró el 23 y el 24 de octubre en Donostia-San Sebastián. Además, se publica en este número una entrevista realizada en México por la Directora de Emakunde, Izaskun Moyua, a la catedrática, investigadora y escritora Aurora Arnaiz, exiliada en aquel país desde la Guerra Civil.

## Calendario Emakunde




El *Calendario Emakunde 2006, "Mujeres con Luz Propia"*, trata de dar protagonismo y visibilizar mujeres que podemos identificar en la vida cotidiana. Se trata de huir de los estereotipos de mujer mostrando otros modelos de mujeres que existen en nuestra Comunidad. En las diferentes páginas del *Calendario* se da a conocer a mujeres de diferentes étnias, creencias y edades, que desarrollan las más diversas tareas tanto tradicionalmente asignadas a mujeres como aquellas otras típicamente masculinas. Este *Calendario* se distribuyó a primeros de año.

El *Calendario de Emakunde para el 2007* se elabora a finales de cada año con la finalidad de integrar el concepto de Igualdad entre Mujeres y Hombres en un soporte tan tradicional, útil y cotidiano como puede llegar a ser un almana-

**Iraileko aldizkaria/64. zk.**

Iraileko aldizkariak, 64. zenbakikoak, bi gai nagusi jorratu zituen. Alde batetik, Espainiako estatuko emakumeek botoa emateko eskubidea lortu zuteneko 75. urteurrenaren ospakizuna. Alde horretatik, Amelia Valcárcelek eskubide politikoei buruz idatzitako artikuluaz gain, emakumeen boto-eskubideari buruzko errepaso historikoa, Clara Campoamorren soslaia eta 1933ko hauteskundeetan botoa eman zuten emakumeen lekukotasuna aurkeztu zituen. Aldizkariko beste gai nagusia María Jose Urruzolari egindako elkarrizketa da eta bere ibilbidea eta feminismoari zein hezkidetzari egindako ekarpenaren berri eman zuen.

**Abenduko aldizkaria /65. zk.**

Aldizkariaren 65 zenbakiak, abendukoak, Emakundek antolatutako Sare 2006 Biltzarraren edukia jaso zuen. Biltzarraren izenburua "*Emakumeak bakeak sortzen*" izan zen eta urriaren 23an eta 24an egin zen, Donostian. Gainera, zenbaki horretan Emakundeko zuzendari Izaskun Moyuak Aurora Arnaiz katedradun, ikertzaile eta idazleari Mexikon egindako elkarrizketa argitaratu zuen. Gerra Zibilaz geroztik dago Arnaiz herrialde hartan erbesteraturik.




Emakunde Egutegia

*Emakunderen 2006ko Egutegiak, "Berezko Argia duten Emakumeak"* izenekoak, eguneroko bizitzan ikusi ditzakegun emakumeei protagonismoa eman eta erakusgai jarri nahi izan ditu. Helburua estereotipoetatik ihes egin eta gure Erkidegoan dauden bestelako emakumeen ereduak aurkeztea da. *Egutegiaren* orrietan etnia, sinesmen eta adin ezberdinetako emakumeak ezagutarazi dira. Emakume horiek era guztietako zereginak betetzen dituzte, bai tradizionalki emakumeei egotzi izan zaizkionak baita gizonezkoenak izan ohi direnak ere. *Egutegia* urtearen hasieran banatu zen.

*Emakunderen 2007rako Egutegia* urtearen bukaeran egin da, Emakume eta Gizonen Berdintasunaren kontzeptua ohiko euskarri batean, erabilgarri eta arruntean txertatzeko, hain zuzen almanaka batean. Aurtengoan egitura gra-



que. Este año se ha intentado expresar una nueva forma de construcción gráfica basada en un juego conceptual con diferentes siluetas que, a pesar de identificarse como humanas, se las ha desprovisto de diferenciación de género. Mujeres y hombres, hombres y mujeres ocupan un espacio gráfico común de muchas maneras y posturas pero siempre sin relación jerárquica. Todo ello se forma un conglomerado estético e intuitivo con evidentes reminiscencias étnicas que genera un novedoso reparto del espacio y de la representación temporal de los meses y los días.

## Premios Emakunde

Dentro de las iniciativas de sensibilización que desarrolla Emakunde se circunscriben los *Premios Emakunde* cuya finalidad es impulsar la creación de corrientes de opinión y de mentalización favorables al desarrollo de medidas destinadas a mejorar la situación de las mujeres y a alcanzar la igualdad, reconociendo la labor de Instituciones, entidades y personas que destacan por su compromiso con la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, están dirigidos a los siguientes ámbitos: Medios de comunicación, Publicidad, Educación y Deporte.

## Entrega de Premios Emakunde 2005

La ceremonia de entrega de los *Premios Emakunde* adquiere su valor como elemento de sensibilización complementario a los propios premios. El *Acto de Entrega* permite el reconocimiento público del esfuerzo y el mérito de personas y entidades de los ámbitos de la Comunicación, la Educación y el Deporte, en su compromiso con la igualdad de oportunidades. Los *Premios* son entregados por el Lehendakari.

El 11 de diciembre de 2006 se realizó la entrega de los *Premios Emakunde 2005* en Ajuria Enea. Los premiados fueron el *Programa "Beste gu"* de ETB, en el ámbito de los Medios de Comunicación; y en el ámbito Educativo dos *Proyectos: el Libro "Sexua noiznahi"*, de la editorial Gaiak, escrito por Luis Elberdin, y al *Proyecto Educativo "Diversidad Sexual y Nuevas Familias"* del centro Aldarte. Los *Premios* de los ámbitos de Publicidad y Deporte quedaron desiertos.

La entrega de los *Premios Emakunde 2005* supuso el cierre a una etapa de este galardón que en 2006 pasó a convertir-

fiko berria erabili da. Oinarria zenbait siluetaz osatutako joko kontzeptuala da. Figura horiek, gizakienak izan arren, genero-ezberdintasuna kenduta ageri dira. Emakume eta gizonek, gizon eta emakumeek espazio grafiko berdina hartzen dute, modu eta jarrera askotan, baina beti ere inolako hierarkiarik gabe. Horrek guztiak multzo estetiko eta intuitiboa eratzen du, kutsu etniko agerikoa duena eta espazioa banatzeko eta hilak eta egunak agertzeko modu berritzailea erabiltzen duena.

## Emakunde Sariak

Emakundek garatu ohi dituen sentsibilizazio-ekimenen artean *Emakume Sariak* daude. Emakumeen egoera hobetzen eta berdintasuna lortzen lagunduko duten iritzi eta mentalizazio berriak sortzea dute helburu sariek. Hala, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekiko konpromisoagatik nabarmendu diren erakunde, entitate eta pertsonen lana saritzen du Emakundek, sarion bidez. Honako esparru hauek aintzat hartzen dituzte: Hedabideak, Publizitatea, Hezkuntza eta Kirola.



## 2005eko Emakunde Sarien Banaketa

*Emakunde Sariak* banatzeko ekitaldiak berezko balioa du, sentsibilizazio-osagarria eransten baitie sarioi. Hala, Komunikazioaren, Hezkuntzaren eta Kirolen alorretako pertsonek eta erakundeek aukera-berdintasunarekiko konpromisoan egindako ahaleginak eta merituak publikoki goresteko aukera ematen du *Sari Banaketak.* Lehendakariak banatu ohi ditu.

2005eko Emakunde Sariak banatzeko ekitaldia 2006ko abenduaren 11n izan zen, Ajuria Enean. Saridunak ondorengo hauek izan ziren: ETBko "*Beste gu*" programa, Hedabideen atalean; Hezkuntzaren atalean, berriz, bi proiektu: Luis Elberdinek idatzitako *"Sexua noiznahi"* liburua, Gaiak argitaletxeak argitaratua, eta *"Sexu-aniztasuna eta familia berriak"*, Aldarte zentroarena. Publizitatearen eta Kirolen ataletako sariak hutsik geratu ziren.

2005eko *Emakunde Sarien Banaketak* etapa baten bukaera ekarri zuen sariketarako. Izan ere, 2006tik aurrera Ber-

se en el *Premio Emakunde a la Igualdad.* Los *Premios* fueron entregados por el Lehendakari. Los *Actos de Entrega* del galardón han permitido durante años el reconocimiento público del esfuerzo y el mérito de personas y entidades de los ámbitos de la Comunicación, la Educación y el Deporte, en su compromiso con la igualdad de oportunidades.



**Premio Emakunde 2006**

Durante 2006 se ha creado el nuevo *Premio Emakunde a la Igualdad*, que viene a sustituir los antiguos *Premios Emakunde*, que se dividían en los ámbitos de Medios de Comunicación, Educativo, Deportivo y de la Publicidad, con un *Premio* para cada uno de ellos. Los *Premios Emakunde* se instituyeron en primer lugar en 1990 para reconocer la labor de los y las profesionales de los Medios de Comunicación. Posteriormente, en 1995, se incorporó a los *Premios* el ámbito de la Publicidad y, en 1997, los de Educación y Deporte. Durante quince años, han sido galardonadas con los *Premios Emakunde* más de sesenta personas y han participado como Jurado más de un centenar de profesionales que han destacado en cada uno de los ámbitos.

En 2006 estos *Premios* han sido transformados en uno, el *Premio Emakunde a la Igualdad*, que da ahora un giro en la estructura del galardón, apostando por una única persona o entidad premiada. Emakunde ha considerado oportuno articular otras formas de introducir la transversalidad, promoviendo un cambio de perspectiva y orientación mediante el reconocimiento de una única aportación sobresaliente a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres, con independencia del área en el que se encuentre ubicada.

La finalidad del nuevo *Premio Emakunde* es la de destacar y reconocer públicamente la actuación de aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que se hayan distinguido por su labor en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres, realizando acciones, trabajos o proyectos que hayan supuesto la mejora de los aspectos significativos en el reconocimiento del trabajo de las mujeres y de su em-

dintasunaren aldeko Emakunde Sariak izena hartu du. Sari-banaketa 2006ko abenduaren 11n izan zen, Ajuria Enea Jauregian, Gasteizen. Ohi bezala, Lehendakariak banatu zituen. Urteetan zehar, Komunikazioaren, Hezkuntzaren eta Kirolaren alorretako pertsonei eta erakundeei aukera-berdintasunarekiko konpromisoan egindako lanagatik esker ona publikoki emateko aukera ematen dute sariok.

## 2006ko Emakunde Saria

*Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria 2006*an zehar sortu da, lehengo *Emakunde Sarien* ordez. Sari zaharrak Komunikazioaren, Hezkuntzaren, Kirolen eta Publizitatearen ataletan sailkatuta zeuden, eta atal bakoitzeko sari bana ematen zitzaion. Aurreko sari haiek 1990ean sortu ziren, Komunikabideetako profesionalen lana goraipatzeko. Ondoren, 1995ean, Publizitatea sartu zen sarietara, eta 1997an Hezkuntza eta Kirola. Hamabost urteetan zehar hirurogei lagunek baino gehiagok lortu dute Emakunde Saria eta atal bakoitzean nabarmentzen diren ehun profesionalek baino gehiagok parte hartu dute epaimahaian.

Sari horiek bat bilakatu dira 2006an: Berdintasunaren aldeko *Emakunde Saria*. Egitura aldatu eta, hemendik aurrera, pertsona edo erakunde bakar bat izango da sariduna. Hala, zeharkakotasuna txertatzeko beste era batzuk aintzat hartu ditu Emakundek eta sariketari ikuspegi eta orientazio berria eman dizkio, emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko ekarpen nabarmen bat soilik kontuan hartuz, haren eremua edozein dela ere.

Emakume eta gizonen berdintasunaren alde nabarmendu diren pertsona fisiko, juridiko, publiko edo pribatuen jokaera publikoki gorestea da *Emakunde Sari* berriaren helburua. Hala, emakumeen lana eta boteretzea aintzat hartzeko funtsezko alderdiak hobetzeko ekintzak, lanak edo proiektuak egin dituztenak izango dira saridunak, haien ibilbidean zehar emakumearen eginkizuna balioetsi eta

poderamiento o contribuyan con su trayectoria de manera destacada a la valoración y dignificación del papel de la mujer, o en la promoción de igualdad de derechos y oportunidades entre sexos en Euskal Herria.

Tras la apertura de la convocatoria el 22 de septiembre, el plazo para la presentación de candidaturas finalizó el 30 de noviembre de 2006. Se presentaron un total de 32 candidaturas y el fallo del *Premio* se dejó en manos del Consejo de Dirección de Emakunde para su primera reunión del año 2007. La decisión del Jurado se basa en la trayectoria de la persona propuesta en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres en el ámbito en el que ha venido desarrollando su actividad. Asimismo, se tiene en cuenta la relevancia intrínseca de la actuación, acciones, trabajos o proyectos dirigidos al reconocimiento del trabajo de las mujeres y su empoderamiento o a la promoción de igualdad de derechos entre sexos. Y, por último, se valora la repercusión e influencia en la sociedad de la actuación, acciones, trabajos o proyectos desarrollados por la persona propuesta. El *Premio* cuenta con una distinción honorífica, un reconocimiento público y una dotación económica bruta de 13.794 euros, importe sujeto a la retención fiscal correspondiente.

## Presencia en los Medios de Comunicación

La labor de sensibilización del Instituto se complementa con su presencia en los Medios de Comunicación. La progresiva demanda de la presencia de Emakunde en los Medios es un indicador de la cada vez mayor preocupación o atención que la población presta al tema de la igualdad entre mujeres y hombres.

El tema que ha propiciado mayor número de entrevistas, reportajes, crónicas, etc. ha sido el de los *Malos Tratos a Mujeres*, aunque otros han estado presente sen momentos puntuales, en su mayor parte debido a actividades organizadas por el Instituto, como pueden ser las *Comparecencias Parlamentarias, la Entrega de Premios* o la organización de un *Seminario o Congreso.* En concreto, el *Congreso Internacional SARE 2006* tuvo un eco importante en el conjunto de los Medios de Comunicación.

duin bihurtzeko ekarpen nabaria egiten dutenak edo Euskal Herrian sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatu dutenak.

Deialdia irailaren 22an ireki ondoren, hautagaiak aurkezteko epea 2006ko azaroaren 30ean amaitu zen. Guztira 32 hautagai aurkeztu dira eta sariaren inguruko erabakia Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren esku geratu zen, 2007ko lehenengo bileran hartzeko. Proposatutako hautagaiak bere jardueraren eremuan emakume eta gizonen berdintasunaren esparruan egindako ibilbidean oinarritzen da epaimahaiaren erabakia. Halaber, emakumeen lana aitortu, haien boteretzea eta sexuen arteko eskubide-berdintasuna sustatzea xede duten jokaera, ekintza, lan edo proiektuen berezko garrantzia hartzen da kontuan. Azkenik, proposatutako pertsonak, burututako ekintza edo lanen bidez, gizartean izandako eragina eta oihartzuna ere hartzen dira aintzakotzat. Sariak ohorezko bereizgarria, aitorpen publikoa eta 13.794 euroko diru-kopurua (dagokion atxikipen fiskalaren eraginpean) barne hartzen ditu.

## Komunikabideetan esku hartzea

Hedabideetan esku hartuta osatzen du Emakundek sentsibilizazioa zabaltzeko egindako lana. Erakundeak geroz eta presentzia handiagoa du Komunikabideetan, eta horrek aditzera ematen du herritarrek geroz eta kezka eta ardura handiagoak dituztela emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan.

Landu diren gaiei dagokienez, emakumeen aurkako tratu txarrena izan da elkarrizketa, erreportaje eta kronika gehien bereganatu dituena. Alabaina, beste kontu batzuk ere azaldu dira une jakinetan, gehienak Erakundeak antolatutako jardueren ondorioz: *Legebiltzarreko agerraldiak, Sari Banaketa edo Mintegi zein Biltzar bat* antolatzea, kasu. Zehazkiago, *Sare 2006 Nazioarteko Biltzarrak* oihartzun zabala izan zuen Komunikabide guztietan.

La colaboración con los Medios de Comunicación y la presencia sitemática en los mismos, han continuado siendo unas de las tareas principales de Emakunde en relación con sus funciones de sensibilización. En este sentido cabe destacar las numerosas participaciones en tertulias, artículos, entrevistas, etc. en diversos medios, especialmente en y con emisoras de radio y prensa escrita.

El Instituto ha diseñado y puesto en marcha durante 2006 un *Plan de Comunicación* con el objetivo de reposicionar su imagen tras 18 años de existencia. La cercanía de una fecha clave como el *20 Aniversario de Emakunde*, en 2008, así como la constatación de los cambios que se han producido durante los últimos años en nuestra sociedad, ha provocado en el Instituto la necesidad de reflexionar sobre el camino recorrido y marcar un punto de inflexión.

La voluntad para lograr su reposicionamiento social en cuanto a imagen junto a la necesidad de incidir en la sensibilización social y el cambio de mentalidades para lograr la real y efectiva igualdad de mujeres y hombres, ha llevado a Emakunde a diseñar un *Plan de Comunicación* ambicioso. El Instituto entiende que nos encontramos en un momento clave en el camino hacia la igualdad de mujeres y hombres, por lo que es necesario dar un golpe de efecto y hacer reaccionar a la sociedad a través de una *Campaña de Comunicación* efectiva y prolongada en el tiempo.

El *Plan de Comunicación* comprende, además de las *Campañas de Sensibilización* puntuales que se vienen desarrollando desde Emakunde como la del *8 de marzo* o del *25 de noviembre*, otras *Campañas* con mensajes concretos, como el dirigido a los hombres y a su necesaria participación en la construcción de un nuevo modelo social más igualitaria, que se ha difundido a través de la televisión, con el objetivo de llegar a un público más amplio y plural. Asimismo, se incluyen en la filosofía del nuevo *Plan de Comunicación,* el *Premio Emakunde a la Igualdad 2006*, la *Revista Emakunde* y todas las demás acciones comunicativas dirigidas al exterior desde la Institución.

Hedabideei laguntzea eta sistematikoki haietan azaltzea Emakunderen zeregin nagusietakoa izan da sentsibilizazio-lanari dagokionez. Ildo horretatik, hainbat komunikabidetako tertulietan, artikuluetan eta elkarrizketetan parte hartuta egindako agerpen ugariak azpimarratu behar dira, batez ere irratsaioetan eta prentsa idatzian.

Erakundeak *Komunikazio Plan bat* diseinatu eta jarri du abian 2006. urtean zehar bere irudia berritzeko, 18 urteko ibilbidearen ostean. Emakunderen 20. urteurrena data esanguratsua da eta oso gertu dago, 2008an izango baita, eta agerikoa da urte horietan aldaketa nabariak izan direla gure gizartean. Hori dela eta, Erakundeak ibilitako bidearen inguruko gogoeta egin eta inflexio-puntua markatu du.

Hala, Emakundek bere irudia berritu nahi du gizartearen aurrean eta, aldi berean, sentsibilizazioa zabaldu eta mentalitateak aldatzea bultzatu nahi du, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko. Helburu horiek suspertuta, Erakundeak anbizio handiko *Komunikazio Plana* diseinatu du. Izan ere, bere ustez, oso une garrantzitsuan gaude emakume eta gizonen berdintasunerako bidean. Hori dela eta, derrigorrezkotzat jotzen du gizartearen erreakzioa piztuko duen astinaldia ematea, eraginkorra izango den eta denboran zehar luzatuko den komunikazio-kanpainaren bidez.

Emakundek une jakinetan, hala nola martxoaren 8an edo azaroaren 25ean, aurrera eraman ohi dituen sentsibilizazio-kanpainez gain, mezu konkretuak dituzten beste kanpaina batzuk hartuko ditu barne *Komunikazio Planak.* Horietako bat gizonei zuzenduta dago eta berdintasun handiagoko beste gizarte-eredu bat eraikitzen parte hartu behar duela adierazten die. Mezu hori telebistaren bidez hedatu da, hartzaileak ahalik eta gehienak eta anitzenak izan daitezen. Era berean, Berdintasunaren aldeko 2006ko Emakunde Saria, Emakunde Aldizkaria eta Erakundeak kanpoaldera zuzendutako gainerako komunikazio-ekintza guztiak ere barne hartzen ditu *Komunikazio Plan* berriaren filosofiak.

Otras actividades de sensibilización

### Visita al Centro Penitenciario de Nanclares de Oca-Langraitz

Las máximas representantes de Emakunde mantuvieron un *Encuentro* con mujeres presas en el Centro Penitenciario de Nanclares con el objetivo de conocer la situación en la que éstas se encuentran e informarles, al mismo tiempo, de las estrategias y planes del Instituto para favorecer la Igualdad de Mujeres y Hombres.

### Alardes de Hondarribia e Irún

Emakunde envió sendas cartas a los Alcaldes de las localidades de Hondarribia e Irún, recordándoles la obligación legal que tienen las instituciones públicas de remover obstáculos y de adoptar las medidas necesarias para que las mujeres que lo deseen puedan participar de manera igualitaria en la fiesta del *Alarde*. La Directora de Emakunde les recordó que el artículo 25 de la *Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres* dispone que *"las Administraciones Públicas Vascas han de adoptar las medidas necesarias para evitar cualquier discriminación por razón de sexo y para promover un acceso y participación equilibrada de mujeres y hombres en todas las actividades culturales que se desarrollen en el ámbito de la CAPV"*. La Directora del Instituto participó en los *Alardes Mixtos* de ambas localidades junto a otras autoridades y representantes institucionales, para mostrar su apoyo a la participación de mujeres en condiciones de igualdad.

### Homenaje a Mari Jose Urruzola

Emakunde participó en el *Homenaje* que se realizó en memoria de Mari Jose Urruzola en Bilbao, donde se resaltó su trayectoria profesional en el campo de la Educación y su importante actividad social y política a favor del reconocimiento y valoración de las mujeres, de su propio empoderamiento y de la igualdad.

## Beste sentsibilizazio-ekintza batzuk

### Langraitzeko Espetxea bisitatzea

Emakundeko ordezkari nagusiak Langraitzeko emakumezko presoekin elkartu ziren, haien egoera ezagutu eta, aldi berean, Erakundeak Emakume eta Gizonen Berdintasuna errazteko aurrera daramatzan estrategia eta planen berri emateko.

### Hondarribia eta Irungo Alardeak

Emakundek eskutitz bana bidali zien Hondarribiako eta Irungo alkateei eta, gogoratu zienez, erakunde publikoak legez behartuta daude Alardeko jaian parte hartu nahi duten emakumeek berdintasunez parte hartu ahal izateko oztopoak kendu eta beharrezko neurriak hartzera. Emakundeko zuzendariak oroitarazi zien, era berean, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 25. artikuluak esaten duena: "*Euskal herri-administrazioek beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan*". Erakundeko zuzendariak bi herrietako *alarde mistoetan* parte hartu zuen, beste erakunde batzuetako agintariekin eta ordezkariekin batera, emakumeek berdintasunez parte hartzearen aldeko jarrera adierazteko.

### Mari Jose Urruzolari Omenaldia

Mari Jose Urruzolari Bilbon egindako *omenaldian* parte hartu zuen Emakundek. Urruzolak hezkuntzaren alorrean egindako ibilbide profesionala eta emakumeak aintzat hartu eta balioesteko, boteretzeko eta berdintasuna lortzeko xedez burututako jarduera soziala eta politikoa azpimarratu ziren omenaldian.

# VI. Asesoramiento Jurídico e Información

Una de las funciones derivadas de la *Ley de Creación de Emakunde* es realizar un seguimiento de la legislación y la normativa que genera la Administración Vasca para emitir *Informes* con propuestas para avanzar en la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. Se canalizan *Denuncias* de supuestos casos de discriminación por razón de sexo que recibe el Instituto y se emiten *Informes Técnico-Jurídicos* en los casos en los que son requeridos. Además se han elaborado y adaptado diferentes normas y disposiciones propias del Instituto. Igualmente, se ha efectuado la recopilación y seguimiento de la *Legislación y Jurisprudencia Europea, Estatal y Autonómica en Materia de Igualdad de Oportunidades*.

## Administración

Las Normas y Disposiciones propias del Instituto, y las Normas de Desarrollo de la *Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres* en las que se ha trabajado son las siguientes:

# VI. Aholkularitza Juridikoa eta Informazioa

*Emakunde Sortzeko Legearen* arabera, Erakundeak, beste eginkizun batzuen artean, Euskal Administrazioak sortzen dituen lege eta arauen jarraipena egin behar du, ondoren emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunean aurrera egiteko proposamenak bilduko dituzten txostenak argitara emateko. Emakundek sexu-diskriminazioko ustezko kasuetan jasotzen dituen salaketak aztertu eta txosten tekniko-juridikoak egiten ditu, hala eskatuz gero. Orobat, emakumeen oinarrizko eskubideei, eskuragarri dauden baliabideei, baliabide horiek eskuratzeko moduari eta abarri buruzko aholkularitza eta informazioa eskaintzen ditu. Gainera, Erakundeak berezko dituen hainbat arau eta xedapen landu eta egokitu ditu. Era berean, aukera-berdintasunaren alorrean Europan, Estatuan eta Autonomia Erkidegoan dagoen legedia eta jurisprudentzia bildu eta jarraipena egiten du.

## Administrazioa

Erakundeak berezko dituen arau eta xedapenak eta *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea* garatzeko landu dituen arauak ondorengo hauek dira:

- *Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.*

- *Decreto por el que se aprueba el reglamento de organización y funcionamiento de la Defensoría para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

- *Decreto por el que se regula la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

- *Decreto por el que se regula la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

- *Decreto por el que se crea y regula el Premio Emakunde a la Igualdad.*

- *Proyecto de Decreto por el que se regulan las Unidades para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

- *Borrador del Decreto regulador del Programa de Ayudas a Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico.*

- *Primer borrador del Anteproyecto de Ley de Creación del Consejo Vasco de las Mujeres por la Igualdad.*

- *Propuesta de Acuerdo del Consejo de Gobierno, por el que se aprueban las Directrices para la Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.*

- *Propuesta de Acuerdo del Consejo de Gobierno por el que se autoriza la suscripción de un Convenio de Colaboración entre la Administracion General de la Comunidad Autonoma de Euskadi (Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer) y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), (Departamento de Psicología Social y Metodología de Las Ciencias del Comportamiento) para la realización de los trabajos de evaluación del cumplimiento de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

- *Propuesta de Acuerdo del Consejo de Gobierno de Concesión de Subvención a la Federación de Empresarias, Di-*

- *Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala finkatzeko Dekretua.*

- *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen antolamenduaren eta funtzionamenduaren araua onartzeko Dekretua.*

- *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea arautzeko Dekretua.*

- *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea arautzeko Dekretua.*

- *Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria sortu eta arautzeko Dekretua.*

- *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Unitateak arautzeko Dekretu Proiektua.*

- *Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza-programa arautzeko Dekretuaren Zirriborroa.*

- *Berdintasunaren aldeko Emakumeen Euskal Kontseilua sortzeko Lege Aurreproiektuaren Lehenengo Zirriborroa.*

- *Generoaren araberako inpaktuaren ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzeko Gobernu Kontseiluaren Akordio Proposamena.*

- *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU, Gizarte Psikologiaren eta Portaera Zientzien Metodologia Departamentua) arteko Lankidetza Hitzarmena sinatzeko baimena ematen duen Gobernu Kontseiluaren Akordio Proposamena, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea betetzearen ebaluazio-lanak egiteko xedez.*

- *Euskadiko Emakumezko Enpresaburu, Zuzendari eta Profesionalen Federazioari (FEDEP) diru-laguntza emateko*

*rectivas y Profesionales de Euskadi (FEDEP) para la puesta en marcha del Primer Congreso Nacional. Proyectar, Crear y Construir en Femenino.*

- *Propuesta de Acuerdo del Consejo de Gobierno por la que se inicia Procedimiento Sancionador a Media Markt Saturn Administración España S.A.U.*

- *Propuesta de Acuerdo por el que se resuelve el Procedimiento Sancionador incoado a Media Markt Saturn Administración España, S.A.U.*

- *Resolución de 27 de abril de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se regula la Concesión de Subvenciones, durante el ejercicio 2006, para Fomentar el Asociacionismo y Potenciar la Participación de las Mujeres en todos los ámbitos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

- *Resolución de 16 de octubre de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Conceden Subvenciones para Fomentar el Asociacionismo y Potenciar la Participación de las Mujeres en todos los ámbitos de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 2006.*

- *Resolución de 27 de abril de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se regula la Convocatoria de Subvenciones a la Publicación y Realización de Trabajos de Investigación y Acciones Piloto en Materia de Igualdad de Mujeres y Hombres para el año 2006.*

- *Resolución de 28 de septiembre de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Conceden Subvenciones a la Publicación y Realización de Trabajos de Investigación y Acciones Piloto en Materia de Igualdad de Mujeres y Hombres para el año 2006.*

- *Resolución de 27 de abril de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se regula la Concesión de Subvenciones para el año 2006 a*

*Gobernu Kontseiluaren Akordio Proposamena, haien lehenengo Biltzar Nazionala egiteko xedez ("Emakumezkoek Proiektatu, Sortu eta Eraiki").*

- *Media Markt Saturn Administración España, S.A.U.-ri zigor-prozedurari ekiteko  Akordio Proposamena.*

- *Media Markt Saturn Administración España, S.A.U.-ri irekitako zigor-prozedura ebazteko Akordio Proposamena.*

- *2006ko apirilaren 27ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu guztietan emakumeen asoziazionismoa bultzatu eta parte-hartzea sendotzeko xedez 2006ko ekitaldian eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituena.*

- *2006ko urriaren 16ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu guztietan emakumeen asoziazionismoa bultzatu eta parte-hartzea sendotzeko xedez 2006ko ekitaldiko diru-laguntzak ematen dituena.*

- *2006ko apirilaren 27ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, 2006. urtean emakume eta gizonen berdintasunaren alorreko ikerlanak eta ekintza pilotuak argitaratu eta egiteko eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituena.*

- *2006ko irailaren 28ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, 2006. urtean emakume eta gizonen berdintasunaren alorreko ikerlanak eta ekintza pilotuak argitaratu eta egiteko diru-laguntzak ematen dituena.*

- *2006ko apirilaren 27ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, enpresei eta erakunde pribatuei 2006. urtean emakume eta gizonen*

*Empresas y Entidades Privadas para la Contratación de una Consultora Homologada para la Realización de un Diagnóstico sobre la Igualdad de Mujeres y Hombres y un Plan de Igualdad.*

- *Resolución de 3 de agosto de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Conceden Subvenciones para el año 2006 a Empresas y Entidades Privadas para la Contratación de una Consultora Homologada para la Realización de un Diagnóstico sobre la Igualdad de Mujeres y Hombres y un Plan de Igualdad.*

- *Resolución de 27 de abril de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se regula la Concesión de Subvenciones, durante el ejercicio 2006, a Ayuntamientos y Entidades Supramunicipales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la Realización de Diagnósticos y/o Elaboración de Planes para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

- *Resolución de 22 septiembre de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Conceden Subvenciones para el año 2006 a Ayuntamientos y Entidades Supramunicipales de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la Realización de Diagnósticos y/o Elaboración de Planes para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

- *Resolución de 21 de septiembre de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Convoca el Premio Emakunde a la Igualdad para el año 2006.*

- *Resolución de 2 de agosto de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Convocan Ayudas para la Realización de la Cuarta Edición del Máster en Intervención en Violencia contra las Mujeres.*

- *Resolución de 18 de diciembre de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Conceden Ayudas para la Realización de la Cuarta Edición del Máster en Intervención en Violencia contra las Mujeres.*

*berdintasunaren diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko aholkularitza-etxe homologatua kontratatzeko eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituena.*

- *2006ko abuztuaren 3ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, enpresei eta erakunde pribatuei 2006. urtean emakume eta gizonen berdintasunaren diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko aholkularitza-etxe homologatua kontratatzeko diru-laguntzak ematen dituena.*

- *2006ko apirilaren 27ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta udalez gaineko erakundeei 2006. urtean emakume eta gizonen berdintasunaren diagnostikoak eta/edo berdintasun-planak egiteko eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituena.*

- *2006ko irailaren 22ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, Euskal autonomia Erkidegoko udalei eta udalez gaineko erakundeei 2006. urtean emakume eta gizonen berdintasunaren diagnostikoak edo/eta berdintasun-planak egiteko diru-laguntzak ematen dituena.*

- *2006ko irailaren 21eko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, 2006ko Berdintasunaren aldeko Emakunde Sarirako deialdia egiten duena.*

- *2006ko abuztuaren 2ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, Emakumeen aurkako Indarkerian Esku-hartzeari buruzko Masterraren Laugarren Ekitaldia egiteko diru-laguntzak onartzen dituena.*

- *2006ko abenduaren 18ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, Emakumeen aurkako Indarkerian Esku-hartzeari buruzko Masterraren Laugarren Ekitaldia egiteko diru-laguntzak ematen dituena.*

- *Convenio de Colaboración entre la Universidad de Deusto y Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, de 1 de agosto de 2006, para la Realización de la de la Cuarta Edición del Máster en Intervención en Violencia contra las Mujeres durante el periodo académico 2006-2008.*

- *Convenio de Colaboración entre la Administracion General de la Comunidad Autonoma de Euskadi (Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer) y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) (Departamento de Psicología Social y Metodología de Las Ciencias del Comportamiento), para la Realización de los Trabajos de Evaluación del Cumplimiento de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

*Emakunde y la Universidad del País Vasco firmaron un Convenio de Colaboración para hacer un seguimiento del Cumplimiento de la Ley de Igualdad aprobada por el Parlamento Vasco en febrero de 2005. El Departamento de Psicología Social y Metodología de las Ciencias del Comportamiento de la EHU-UPV es el encargado de realizar los trabajos de evaluación, que permitirán tener una radiografía de la actividad de la Administración en el campo de la Igualdad entre Hombres y Mujeres.*

*Para garantizar el cumplimiento de los objetivos recogidos en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, su Disposición Adicional Primera establece que "de acuerdo con las funciones que le encomienda el artículo 13 de esta ley, la Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres, cada cinco años, hará un seguimiento del cumplimiento, del desarrollo, de la aplicación y, en su caso, de la oportunidad de revisión de la presente ley".*

*En este sentido, para evaluar el grado de implementación de la Ley está previsto realizar tres mediciones durante los cinco primeros años de vigencia de la misma: La primera medición, correspondiente al segundo trimestre de 2005; la segunda, al segundo trimestre de 2008; y la tercera, al segundo trimestre de 2010. Los objetivos específicos de la Evaluación Total son conocer cuál es la situación de partida de los diferentes aspectos contemplados*

- *Deustuko Unibertsitatearen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunderen arteko Lankidetza Hitzarmena, 2006ko abuztuaren 1ekoa, 2006tik 2008ra bitarteko denboraldian Emakumeen aurkako Indarkerian Esku-hartzeari buruzko Masterraren Laugarren Ekitaldia egiteko.*

- *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde) eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU, Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Departamentua) arteko lankidetza Hitzarmena, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea betetzearen ebaluazio-lanak egiteko.*

*Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailean onartutako Berdintasun Legearen betetzearen jarraipena egiteko lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Emakundek eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Ebaluazio-lanak egiteko arduraduna EHUko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Departamentua da. Horri esker, emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean administrazioak egindako lanaren argazkia egongo da eskura.*

*Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak jasotako helburuak betetzen direla bermatzeko, Hitzarmenaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak hau esaten du: "Legearen 13. artikuluak agindutako funtzioen arabera, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak Legearen jarraipena egingo du bost urtean behin, Legea bete, garatu, aplikatu eta, hala badagokio, berrikusi egin behar den egiaztatzeko".*

*Ildo horretatik, Legearen ezarpenaren ebaluazioa egiteko, Legea indarrean dagoen lehenengo bost urteetan zehar hiru neurketa egitea aurreikusita dago: Lehenengo neurketa 2005eko bigarren hiruhilekoan egingo da; bigarrena, 2008ko bigarren hiruhilekoan; eta hirugarrena, 2010eko bigarren hiruhilekoan. Ebaluazio osoaren helburuak honako hauek dira: Legeak aintzat hartzen dituen alderdien inguruko hasierako egoera ezagutzea, onartu aurretik;*

*en la Ley antes de su aprobación; averiguar y describir cómo se está aplicando la Ley; analizar hasta qué punto hay diferencias entre los que se está aplicando y lo que estaba previsto aplicar; y averiguar y describir posibles dificultades que puedan surgir para y durante la aplicación de la Ley.*

- *Convenio de Colaboración entre Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y la Federación de Empresarias, Directivas y Profesionales de Euskadi (FEDEP)* para la puesta en marcha *del Primer Congreso Nacional. Proyectar, Crear y Construir en Femenino.*

- *Directrices para la Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.*

- *Resolución de 3 de agosto de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se otorga el Reconocimiento de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres a Eroski Sociedad Cooperativa.*

- *Resolución de 6 de julio de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se otorga el Reconocimiento de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres a ETS-Euskal Trenbide Sarea.*

- *Resolución de 26 de septiembre de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se otorga el Reconocimiento de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres a la Fundación LABEIN TECNALIA.*

- *Resolución de 22 de diciembre de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se otorga el Reconocimiento de Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres a LAB, Langileen Abertzaleen Batzordeak.*

- *Resolución de 3 de agosto de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Ho-*

*Legea nola aplikatzen ari den igarri eta deskribatzea; aplikatzen ari denaren eta aplikatzea aurreikusita zegoenaren artean ezberdintasunak ote dauden aztertzea; eta Legea aplikatzeko eta aplikatzen ari den bitartean sortu litezkeen zailtasunak antzeman eta deskribatzea.*

- *Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Euskadiko Emakumezko Enpresaburu, Zuzendari eta Profesionalen Federazioaren (FEDEP) arteko lankidetza-hitzarmena, haien Lehenengo Biltzar Nazionala abian jartzeko ("Emakumezkoek Proiektatu, Sortu eta Eraiki").*

- *Generoaren araberako inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak.*

- *2006ko abuztuaren 3ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, Eroski Kooperatiba Elkarteari Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzaile izaera ematen diona.*

- *2006ko uztailaren 6ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, ETS-Euskal Trenbide Sareari Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzaile izaera ematen diona.*

- *2006ko irailaren 26ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, LABEIN TECNALIA Fundazioari Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzaile izaera ematen diona.*

- *2006ko abenduaren 22ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, LAB Langile Abertzaleen Batzordeak-i Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzaile izaera ematen diona.*

- *2006ko abuztuaren 3ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, BULTZ LAN Consulting, S.L.-ri Emakume eta Gizonen Berdintasuna-*

*mologa a BULTZ LAN Consulting, S.L., para la Prestación de Asistencia Técnica en Materia de Igualdad de Mujeres y Hombres a Empresas y Entidades.*

- *Resolución de 10 de abril de 2006, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se Homologa a OPE Consultores, S.L., para la Prestación de Asistencia Técnica en Materia de Igualdad de Mujeres y Hombres a Empresas y Entidades.*

## Informes

En el marco de la labor de emisión de *Informes* dentro del ámbito competencial de Emakunde a instancias de distintos Organismos Públicos, se han informado Proyectos de normas de Carácter General presentadas por diferentes Departamentos del Gobierno Vasco. En concreto, se han informado los siguientes:

- *Proyecto de Decreto por el que se regulan las condiciones y procedimiento de habilitación y organización para el ejercicio de la función de comprobación de las condiciones de seguridad y salud en las empresas y centros de trabajo por parte del personal técnico de Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.*

- *Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas económicas por el nacimiento o adopción del primer hijo o de la primera hija.*

- *Anteproyecto de Ley de segunda modificación de la Ley de Cooperativas de Euskadi*

- *Anteproyecto de Ley Reguladora de empleo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

- *II Plan de apoyo a las familias (2006-2010).*

- *Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas económicas a las familias con hijos e hijas.*

- *Proyecto de Decreto por el que se regulan las medidas de conciliación de la vida laboral y familiar.*

*ren alorrean enpresa eta erakundeei laguntza teknikoa emateko homologazioa onartzen diona.*

- *2006ko apirilaren 10eko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariarena, OPE Consultores, S.L.-ri Emakume eta Gizonen Berdintasunaren alorrean enpresa eta erakundeei laguntza teknikoa emateko homologazioa onartzen diona.*

## Txostenak

Emakunderen eskumen-esparruaren barruan hainbat Erakunde Publikok eskatutako txostenak egiteko zereginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako zenbait sailek aurkezturiko izaera orokorreko proiektuen *txostenak* egin ditu Erakundeak. Zehazki, honako hauek egin ditu:

- *Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasun Erakundeko pertsonal teknikoa enpresetan eta lantokietan segurtasun- eta osasun-baldintzak egiaztatzeko funtzioa betetzeko gaitu eta antolatzeko baldintzak eta prozedura arautzeko Dekretu Proiektua.*

- *Lehenengo seme-alaba jaio edo adopzioan hartzeagatik diru-laguntzak arautzeko Dekretu Proiektua.*

- *Euskadiko Kooperatiba Legea bigarren aldiz aldatzeko Lege Aurreproiektua.*

- *Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegua Arautzeko Lege Aurreproiektua.*

- *Familiei laguntzeko II Plana (2006-2010).*

- *Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzeko Dekretu Proiektua.*

- *Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen dituen Dekretu Proiektua.*

- *Proyecto de Decreto por el que se regula el ejercicio de determinadas actividades de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.*

- *Proyecto de Decreto por el que se regula el Consejo Vasco de Previsión Social.*

- *Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas económicas a la implantación de determinados sistemas de previsión social complementaria instrumentados a través de entidades de previsión social voluntaria.*

- *Proyecto de Decreto por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos.*

- *Borrador de Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.*

- *Proyecto de Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

- *Proyecto de Decreto de fomento de la adquisición de animales en certámenes ganaderos de interés supracomunitario a celebrar en la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

- *Proyecto de Decreto de ayudas al cultivo, almacenamiento y comercialización de la patata de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

- *Proyecto de Decreto de Constitución y Organización del Centro Vasco de Control Lechero.*

- *Proyecto de Decreto por el que se regula la tramitación telemática de procedimientos en los que participan los Centros Vascos en el exterior.*

- *Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde batzuen jarduera arautzeko Dekretu Proiektua.*

- *Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu Proiektua.*

- *Borondatezko Gizarte aurreikuspeneko Erakundeen bitartez gauzatutako gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema batzuk ezartzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektua.*

- *Prozedura administratiboetan baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilpena arautzen duen Dekretu Proiektua.*

- *Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamenduaren eta funtzionamenduaren Araudiaren Zirriborroa.*

- *Ogasun eta Herri Administrazioaren Agindu Proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako diru-laguntzen onuradunek zerga-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeari buruzkoa.*

- *Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharreko erkidegoz kanpoko intereseko azoketan abereak erostea sustatzeko Dekretu Proiektua.*

- *Euskal Autonomia Erkidegoan patata landu, gorde eta merkaturatzeko laguntzak emateko Dekretu Proiektua.*

- *Esnea Kontrolatzeko Euskal Zentroa Eratu eta Antolatzeko dekretu Proiektua.*

- *Atzerriko Euskal Zentroek parte hartzen duten prozeduren tramitazio telematikoa arautzen duen Dekretu Proiektua.*

- *Proyecto de Orden por la que se regulan los requisitos y el procedimiento para la homologación de acciones formativas por parte del Instituto Vasco de Administración Pública.*

- *Proyecto de Decreto sobre funcionamiento y organización de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos (EVETU).*

- *Proyecto de Decreto de regulación por terceros de los edificios e instalaciones docentes públicos no universitarios de la CAPV.*

- *Proyecto de Decreto de Programa Estadistico Anual 2007.*

También, en cuanto a la elaboración de *Informes* y en cumplimiento de lo establecido en el artículo 15.4 de la *Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres*, se han informado los *Planes* para la Igualdad de los Ayuntamientos de Arrigorriaga, Barrika, Basauri, Durango, Elorrio, Gorliz, Laudio, Lekeitio, Lemoiz, Plentzia, Sopelana, Urduliz.

Se han efectuado diversos trabajos de *Asesoramiento Jurídico* con relación a la *Tramitación de Ficheros*, *Bases de Datos y Propiedad Intelectual.*

Se han actualizado los *Folletos Divulgativos de Derechos* existentes, a fin de adaptarlos a las modificaciones legislativas producidas durante el año 2005 y 2006 y a la evolución jurisprudencial. Además, se ha desarrollado una labor de apoyo técnico con propuestas concretas a diferentes Organismos y Entidades Públicas para adaptar sus documentos a una utilización no sexista del lenguaje que ofrezca una imagen positiva de las mujeres.

- *Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen prestakuntza-ekintzak homologatzeko betekizunak eta prozedura arautzen dituen Agindu Proiektua.*

- *Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren (LHIEE) funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko Dekretu Proiektua.*

- *EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxe eta instalazio publikoak hirugarrenek erabiltzea arautzeko Dekretu Proiektua.*

- *2007ari dagokion Urteko Estatistika Programaren Dekretu Proiektua.*

Era berean, *txostenak* egiteari dagokionez eta *Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen* 15.4 artikuluak jasotakoa betez, honako udal hauetan egindako Berdintasun Planei buruzko txostenak egin ditu Emakundek: Arrigorriaga, Barrika, Basauri, Durango, Elorrio, Gorliz, Laudio, Lekeitio, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko udaletan.

Bestalde, *Fitxategi*, *Datu Base* eta *Jabego Intelektualaren Tramitazioari* lotutako aholkularitza juridikoko zenbait lan ere egin ditu Erakundeak.

Lehendik zeuden *Eskubideak Ezagutarazteko Liburuxkak* eguneratu ere egin ditu, 2005ean eta 2006an izandako lege-aldaketetara eta jurisprudentziaren eboluziora egokitzeko. Horrez gain, Organismo eta Erakunde Publikoei laguntza teknikoa eman die, euren dokumentuak hizkuntzaren erabilera ez sexistara egokitzeko, emakumeen irudi positiboa emateko helburuz.

# VII. Estudios, Publicaciones, Centro de Documentación

## Estudios

Durante los últimos tiempos, se hace cada vez más patente el interés de las Administraciones Públicas en conocer la realidad social a la que sirven, interés que evoluciona hacia ópticas cada vez más complejas que se corresponden con análisis crecientemente matizados y sofisticados. El objetivo último es facilitar el desarrollo de políticas públicas más eficaces en respuesta a los diversos sectores que integran la sociedad. Dentro de esta actividad pública en la investigación social, Emakunde realiza *Informes Anuales sobre la Situación de las Mujeres y los Hombres en Euskadi*. Realiza, asimismo, un *Seguimiento de la Actuación de los Poderes Públicos* a fin de analizar el equilibrio entre las *Propuestas* realizadas y los *Programas* o *Actuaciones* llevados a cabo.

# VII. Ikerketak, Argitalpenak, Dokumentazio Zentroa

## Ikerketak

Azken urteetan geroz eta agerikoagoa da Administrazio Publikoek zerbitzatzen duten gizartearen errealitatea ezagutzeko interesa dutela, eta interes hori geroz eta konplexuagoak diren eta analisi ñabartu eta sofistikatuekin bat datozen ikuspegietara bideratuta dagoela. Azken helburua eraginkorrak diren politika publikoen garapena erraztea da, gizartea osatzen duten sektore ezberdinei erantzuteko. Gizarte-ikerketako jarduera publiko horren barruan, Emakundek *Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Urteko Txostenak* egiten ditu. Era berean, *Aginpide Publikoen Jardueraren Jarraipena* ere egiten du, haien *Proposamenen* eta buruturiko *Programen edo Jardueren* arteko oreka aztertzeko.

Durante el año 2006 se han elaborado:

– Se ha iniciado el *Proceso de Evaluación* de cumplimiento de la *Ley 4/2005* con la realización de una evaluación ex-ante. Concretamente se ha llevado a cabo una valoración del grado de desarrollo de los recursos para la igualdad existentes en las Administraciones Públicas en el momento de la aprobación de la *Ley*, con el fin de contar con un referente comparable en el momento de realizar la evaluación de su cumplimiento dentro de 5 años, tal como establece la Disposición Adicional Primera de la citada Ley.

– El *"Informe Sobre la Situación de las Mujeres y los Hombres 2005"*.

– *"Informe sobre el Alcance y la Eficacia de los Recursos del Ámbito de Bienestar Social Orientados a la Respuesta ante la Violencia contra las Mujeres".*

– Actualización del *Informe "Violencia Contra las Mujeres"*, en el que se aborda, fundamentalmente, el fenómeno del maltrato doméstico y las agresiones sexuales en la Comunidad Autónoma del País Vasco desde diferentes perspectivas.

– *Informe* sobre *"Evaluación del Cumplimiento de las Medidas para la Difusión y Puesta en Práctica del Acuerdo Interinstitucional para la Mejora en la Atención a Mujeres Víctimas de Maltrato Doméstico y Agresiones Sexuales"*.

– *Evaluación de los Recursos y Programas en la CAPV en Materia de Violencia Contra las Mujeres en el Área de Servicios Sociales.*

Finalmente se ha llevado a cabo la *Convocatoria de Apoyo a la Publicación y a la Realización de Trabajos de Investigación o de Desarrollo de Acciones Piloto en Materia de Igualdad de Mujeres y Hombres.* Se han recibido 60 solicitudes y adjudicado ayudas a 10 *Proyectos.*



2006. urtean zehar honako hauek egin ditu:

– *4/2005 Legearen betetzea ebaluatzeko prozesua* hasi da, aldez aurreko ebaluazioa eginez. Zehazki, Legea onartu zenean administrazio publikoetan zeuden berdintasunerako baliabideen garapen-mailaren neurketa egin da, bost urte barru Legea betetzen den ala ez neurtzeko erreferentzia konparagarria izateko, Legeak berak bere Lehenengo Xedapen Gehigarriak agintzen duen bezala.

– *"Emakume eta Gizonen Egoerari buruzko 2005eko Txostena"*.

– *"Emakumeen aurkako indarkeriari erantzuna emateko helburua duten gizarte-ongizateko baliabideen irismenari eta eraginkortasunari buruzko Txostena".*

– *"Emakumeen aurkako Indarkeria" Txostena* eguneratzea. Bertan, funtsean, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen fenomenoa aztertzen da, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, hainbat ikuspegitatik.

– *"Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeentzako Laguntza Hobetzeko Erakunde arteko Hitzarmena Ezagutarazi eta Abian Jartzeko Neurriak Betetzearen Ebaluazioari"* buruzko txostena**.**

– *EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean gizarte-zerbitzuen alorrean dauden baliabideen eta programen ebaluazioa.*

Azkenik, *emakume eta gizonen berdintasunaren alorreko ikerlanak edo ekintza pilotuak egin eta argitaratzea laguntzeko deialdia egin du* Emakundek. Guztira 60 eskari jaso eta 10 proiektutarako laguntzak onartu ditu.

## Publicaciones

El objetivo de las publicaciones de Emakunde es difundir los *Resultados de los Estudios*, los contenidos de los *Seminarios y Materiales o Guías de consulta* a la Administración, a los agentes sociales y a la ciudadanía con el fin de facilitar *Instrumentos y Guías de trabajo*.

Durante el año 2006 se han llevado a cabo las siguientes publicaciones:



– Finalización de la publicación en formato CD del *Curso de Formación y Acreditación de Consultoras en Igualdad de Mujeres y Hombres* en el ámbito empresarial.

– *"Congreso Internacional SARE 2005: "Niñas son, Mujeres serán".*

– *"Guía Orientaciones para la Promoción no Discriminatoria".*




– *"IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAPV. Directrices para la VIII Legislatura".* Publicación electrónica en CD.

– Actualización de la Bibliteca digital *"Presupuestos Públicos con Enfoque de Género".*

– Ampliación y actualización de la biblioteca digital *"Marco Jurídico de la Acción Positiva"* que pasará a denominarse *"Marco Jurídico de las Políticas de Igualdad de Mujeres y Hombres".*




– *"Tratamiento de la Violencia contra las Mujeres en la Prensa Vasca"*. Coedición llevada a cabo con la Universidad de Deusto.

– *"Guía de Actuación ante el Maltrato Doméstico y la Violencia Sexual contra las Mujeres para Profesionales de los Servicios Sociales"*. Esta publicación se ha realizado de manera conjunta entre el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales de Araba-Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Emakunde, en colaboración con EUDEL. La *Guía* tiene por objeto dar información y pautas a las personas que trabajan en el

## Argitalpenak













Emakundek, bere argitalpenen bitartez, *Ikerlanen Emaitzak, Mintegien Edukiak eta Materialen zein Kontsultarako Giden Edukiak* helarazi nahi dizkie Administrazioari, gizarte-eragileei eta herritarrei, *Lanerako Tresnak eta Gidak* errazteko xedez.

2006. urtean zehar ondorengo lan hauek argitaratu ditu:

– *Enpresaren Eremuko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Aholkulariak* prestatu eta egiaztatzeko ikastaroa, CD formatuan.

– *"SARE 2005 Nazioarteko Biltzarra: Egungo Neskak, Etorkizuneko Emakumeak".*

– *"Diskriminaziorik gabeko Sustapenerako Orientazio Gida".*

– *EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana, VIII. Legegintzaldirako Jarraibideak.* Argitalpen elektronikoa CDan.

– *"Genero-ikuspegidun aurrekontu publikoak"* liburutegi digitala eguneratzea.

– *"Ekintza positiboaren esparru juridikoa"* liburutegi digitala zabaldu eta eguneratzea. Aurrerantzean *"Emakume eta gizonen berdintasun-politiken esparru juridikoa"* izena hartuko du.

– *"Emakumeen aurkako indarkeriaren tratamendua euskal prentsan"*, Deustuko Unibertsitatearekin batera argitaratua.

– *"Emakumeen aurkako Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Indarkeriaren aurrean Gizarte Zerbitzuetako Profesionalek Jokatzeko Gida".* Argitalpen hori Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera argitaratu da, Eudelek lagunduta. Gizarte-zerbitzuetan lan egiten duten profesionalei informazioa eta jarraibideak ematea du helburu, horrelako kasuetan nola jokatu jakin

ámbito de los Servicios Sociales para facilitar su labor ante estos casos, e incluye una ficha unificada para la recogida de datos.




– *"Guía de Asociaciones de Mujeres en la C.A. de Euskadi. 2006".* Esta es la segunda edición actualizada y ampliada de la anterior *Guía de Asociaciones de Mujeres*. También se presenta en formato CD y se ofrece la posibilidad de acceder a ella en formato electrónico desde la página web de Emakunde en su apartado "*Documentación On-line*".

– *"Memoria de Actuación de Emakunde 2005"*. Esta publicación anual recopila las actuaciones principales que ha diseñado, impulsado, promovido y realizado Emakunde en ejecución del correspondiente *Plan Anual*.

– Se ha continuado con el mantenimiento y ampliación de la *Página Web de Emakunde*. En este sentido, se ha procedido a la creación y en su caso a la actualización de un buen número de apartados. Por otro lado, se ha iniciado la colaboración con la Oficina para la Modernización de la Administración y con la Dirección de Informática y Telecomunicaciones del Gobierno Vasco para la integración en el *Portal de Portales euskadi.net.*

## Centro de Documentación

El Centro de Documentación ha realizado las labores habituales de gestión y mantenimiento (adquisición de fondos, catalogación e indización, control de las suscripciones a revistas y vaciado de artículos de las mismas, etc.) y las derivadas de la atención a las personas usuarias de los diferentes servicios que el Centro ofrece:

– Respuesta por carta, fax, correo electrónico, teléfono o en persona a las demandas de información.

– Asesoramiento bibliográfico y elaboración de listados bibliográficos y videográficos *"a la carta"*.

– Selección de noticias de prensa sobre un determinado tema.

– Préstamo de libros y videos, etc.

Gráfico 14. **Número de demandas externas, según el medio de consulta empleado.**





dezaten, eta datuak biltzeko fitxa bateratua barne hartzen du.

– *"EAEko Emakume Elkarteen Gida. 2006".* Aurreko *Emakume Elkarteen Gidaren* bigarren edizioa da, eguneratua eta handitua, CD formatuan ere aurkezten da eta Emakunderen web orritik atzitzeko aukera ere ematen du, "On Line Dokumentazioa" atalean.

– *"Emakunderen Jarduera Txostena. 2005".* Emakundek, bere *Urteko Plana* betez, diseinatu, bultzatu, sustatu eta gauzatu dituen jarduera nagusiak biltzen ditu.

– *Emakundek bere Web Orria* mantentzeko eta zabaltzeko lanari ekin dio. Ildo beretik, hainbat atal berri sortu eta eguneratu ditu, hala zegokionean. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Administrazioa Modernizatzeko Bulegoarekin eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzarekin elkarlanari ekin dio, *euskadi.net atarien atarian* sartzeko.

14. grafikoa. **Kanpo-eskaeren kopurua, kontsulta egiteko erabilitako eraren arabera.**




## Dokumentazio Zentroa

Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa- eta mantentzelanak egin ditu (fondoak eskuratzea, katalogazioa eta indexazioa, aldizkarietako harpidetzak kontrolatzea, aldizkarietako artikuluak hustea, etab.), bai eta Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileentzako arretatik eratortzen diren lanak ere:

– Informazio-eskaerei gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz eta aurrez aurre erantzutea.

– Aholkularitza bibliografikoa eta *"Eskatu ahalako"* zerrenda bibliografiko eta bideografikoak egitea.

– Gai jakin bati buruzko prentsa-albisteak hautatzea.

– Liburuen, bideoen eta abarren mailegua.

El Centro, además de la atención y préstamo al propio personal de Emakunde, que en 2006 ha sumado 110 consultas (con un total de 85 libros y 10 videos prestados), ha atendido 470 demandas externas, de las cuales un 16,60% (78 peticiones) procedían de otras Comunidades Autónomas.

Cabe mencionar, también, que de las peticiones atendidas, 12 son procedentes de otros países. Durante el 2006 se ha dado un ligero ascenso con respecto al 2005, frenando el descenso de la consulta externa de los años anteriores. Por otro lado, las peticiones efectuadas a través del correo electrónico han supuesto un 51,05% del total, experimentando este medio de consulta un ligero descenso respecto al 2005. Los volúmenes prestados al exterior han sido 234 libros y 51 videos.

Las consultas telefónicas atendidas han sido 928, con una distribución irregular a lo largo del año, muy significativa: el mayor número de llamadas se ha concentrado en noviembre, tal como sucedió el año anterior (2005) y a diferencia de los años anteriores, en el que los meses de febrero y marzo registraban los máximos, lo que nos indica  el creciente impacto mediático y la proyección social que ha adquirido en los últimos tiempos la efeméride del día *25 de Noviembre, Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres.*

Continuando en el apartado de consultas externas, el mes de marzo ha sido el periodo de mayor afluencia de personas usuarias externas en nuestro Centro con diferencia, tanto en sala como en préstamo de libros. Esto ha motivado el antes citado descenso del porcentaje de las consultas externas a través del correo electrónico. En años anteriores sucedía algo similar pero no llegaba a los índices del año pasado. Este aumento importante se ha debido a la asistencia de gran cantidad de estudiantes de enseñanza secundaria y universitaria que han acudido al Centro para documentarse sobre el *8 de marzo* y demás temas en general.

Desde el año 2002 pueden consultarse *"on-line"*, desde la Web de Emakunde, los catálogos del centro. En la Base de

Gráfico 15. **Evolución del número de consultas externas clasificadas por meses.**



15. grafikoa. **Hilabeteka sailkatutako kanpo-kontsulten kopuruaren eboluzioa.**




Zentroak Emakundeko langileei arreta eta mailegua eskaintzen dizkie eta horiek, 2006an, 110 kontsulta egin dizkiote (baita 85 liburu eta 10 bideo mailegatu ere). Horrez gain, kanpoko 470 eskaerari erantzun die eta horietatik %16,60 (78 eskaera) beste Autonomia Erkidego batzuetakoak ziren.

Adierazi behar da, halaber, erantzundako eskaeretatik 12 beste herrialde batzuetakoak zirela. Horrelakoen kopuruak zertxobait gora egin dute 2006an zehar 2005ekoekin alderatuta, aurreko urteetatik zetorren kanpo-kontsulten beherakada geldiaraziz. Bestalde, posta elektronikoz egindako eskaerak guztien %51,05 izan dira, kontsulta egiteko bide horren kopuruak beheraka txikia izan baitu 2005eko kopuruarekin alderatuta. Kanpora utzitako aleak 234 liburu eta 51 bideo izan dira.

Telefonoaren bidez egindako kontsultak 850 izan dira eta oso banaketa ezberdina izan dute urtean zehar, arras esanguratsua: dei gehienak azaroan egin dira, aurreko urtean (2005ean) gertatu zen bezalaxe, eta lehenagoko urteetan ez bezala, haietan dei gehienak otsailean eta martxoan izaten baitziren. Horrek garbi adierazten du azken garai honetan *azaroaren 25eko* ospakizunak gero eta eragin handiagoa duela komunikabideetan eta gizartean, egun hori *Emakumeen aurkako Indarkeria Desagertzeko Nazioarteko Eguna* baita.

Kanpo-kontsulten atalarekin jarraituz, gure Zentroak kanpoko erabiltzaile gehien izan duen hilabetea martxoa izan da alde handiarekin, bai gelan baita liburuen maileguari dagokionez ere. Horrexek eragin du posta elektronikoaren bidez lagun gutxiagok zerbitzua erabili izana, lehen aipatu dugun bezala. Aurreko urteetan antzeko zerbait gertatu zen, baina ez zen iazko mailara iritsi. Kopuruaren gorakadaren arrazoia bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasle ugari martxoak 8ari buruz eta bestelako gai orokorrei buruz argibideak jasotzeko Zentrora azaldu izana da.

Bestalde, Zentroko katalogoak "*linean*" kontsultatu daitezke 2002. urteaz geroztik, Emakunderen Web-etik. Liburute-

Datos de Biblioteca se han ingresado 648 nuevas referencias documentales a lo largo de 2006.

Con las referencias de los materiales catalogados se han elaborado los *"Boletines de Novedades"* mensuales, que son objeto de distribución interna (al personal técnico del Instituto) y externa (a los Centros de Documentación que así lo solicitan), por medio del correo electrónico.

En 2006 también se han abordado tareas de organización interna para un mejor aprovechamiento y conservación de la documentación existente, como por ejemplo el control de la accesibilidad a los materiales anteriores a 1996, con exclusión del préstamo de los ejemplares únicos, garantizando así la integridad de los documentos ya descatalogados o con dificultades de reposición. También se ha llevado a cabo el expurgo de aproximadamente un 25,0% del fondo audiovisual debido a las malas condiciones de visionado, conservación o escaso interés de dicho material, para así poder llevar a cabo en un futuro próximo la sustitución del material audiovisual en VHS a un formato más moderno (DVD), lo cual significaría una mejora a la hora de la conservación, visionado y gestión de espacios en el Centro.

Por otra parte, el Centro de Documentación ha continuado elaborando la sección *"Mujeres en Red"* para la *Revista Trimestral Emakunde*, en la que se proponen diferentes direcciones web para ampliar información sobre el tema central de cada número de la *Revista*.

En el marco de colaboración con otros Centros de Documentación del Estado, cabe destacar la participación en las actividades y proyectos desarrollados por la *Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de Mujeres*, como el *"Catálogo Colectivo de Revistas"* (proyecto ambicioso aún en curso que pretende reunir los títulos de publicaciones periódicas, tanto vivas como muertas, de todos los centros asociados), o como los trabajos colectivos de revisión y actualización de las herramientas de indización específicas del tema *"Mujer"* (Tesauro).

Gráfico 16. **Evolución mensual del número de consultas telefónicas (2005-2006).**



**16. grafikoa. Telefonoz egindako kontsulten kopuruaren hileroko eboluzioa (2005-2006).**




giko datu-basean 648 dokumentu-erreferentzia berri sartu dira 2006an zehar.

Katalogatutako materialen erreferentziekin *"Berritasun Buletinak"* osatzen dira eta Erakundearen barruan (langile teknikoei) eta kanpoan (eskatzen duten dokumentazio-zentroei) banatzen dira hilero posta elektroniko bidez.

Dagoen dokumentazioa hobeto erabili eta zaintzeko barne-antolamenduko lanak ere egin dira 2006an zehar, hala nola 1996aren aurreko materiala eskuratzeko kontrola. Hala, ale bakarrak ez dira maileguan utziko, katalogoz kanpo dauden edo berritzeko zailtasunak dituzten dokumentuen osotasuna bermatzeko helburuz. Era berean, ikus-entzunezko fondoen %25 gutxi gorabehera baztertu egin da, ikusteko baldintza txarrak zituztelako, gaizki kontserbatuta zeudelako edo interes gutxiko materiala zelako. Era horretan, gerora, VHS formatuan dagoen ikus-entzunezko materiala beste formatu modernoago batera (DVD) eramango da eta, horrela, material hori hobeto kontserbatu eta ikusi ahal izango da eta Zentroko espazioak hobeto kudeatuko dira.

Beste alde batetik, Dokumentazio Zentroak *"Emakumeak sarean"* atala egiten jarraitu du *"Emakunde" Hiruhileko Aldizkarirako* eta, bertan, web gune ezberdinen helbideak proposatzen dira *Aldizkariaren* zenbaki bakoitzaren gai nagusiei buruzko informazio gehiago aurkitzeko.

Estatuko beste Dokumentazio Zentro batzuekiko lankidetzaren esparruan, azpimarratu daiteke Emakunderen Dokumentazio Zentroak *Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sarearen* jarduera eta proiektuetan parte hartu duela, adibidez: *"Aldizkarien Katalogo Kolektiboan"* (oraindik gauzatzen ari den eta kide diren zentro guztietako aldizkarien izenburuak biltzen dituen katalogoa da, direla aldizkari biziak, direla desagertuak), edo *"Emakume"* gaia indizatzeko berariazko tresnak (Thesaurus) berrikusi edo eguneratzeko lan kolektiboan.

Otra tarea que se ha llevado a cabo este año con personal del Centro es la organización del Archivo de Emakunde, para lo cual se elaboró un *Proyecto Organizativo* viable en el 2005, ejecutándose una primera fase del mismo, el inventario del fondo durante el 2006, con la intención de darle la continuidad necesaria en años sucesivos con la posterior clasificación y descripción de los fondos. Para finalizar, durante el primer semestre del año pasado se ha organizado el archivo fotográfico de Emakunde, compuesto por las fotografías que nos muestran la historia y la evolución del instituto, los congresos, reuniones y demás actos organizados por Emakunde, además de las personas que han trabajado y trabajan en ella.

Emakunderen Artxibategia antolatzea izan da Zentroko langileek aurten abian jarri duten beste zeregin bat. Horretarako *Antolamendu Proiektu* bideragarria egin zen 2005ean eta haren lehenengo fasea 2006an gauzatu zen, fondoen inbentarioa burutuz, ondoko urteetan fondoen sailkapena eta deskribapena eginez jarraipena emateko asmoz. Bukatzeko, iazko lehenengo seihilekoan zehar Emakunderen argazki-artxiboa antolatu da. Erakundearen historia eta eboluzioa erakusten dituzten argazkiek osatzen dute artxiboa, hau da, Emakundek antolatutako biltzar, bilera eta gainerako ekitaldietako argazkiak, baita Erakundean lan egiten duten pertsonenak ere.

# VIII. Relaciones con el Exterior: Estado e Internacional

## Con el Estado

Emakunde ha participado de manera continuada en las convocatorias de la Comisión Sectorial del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales en la que están representados, además del citado Ministerio, los diferentes Departamentos a los que están adscritos los Organismos de Igualdad en las Comunidades Autónomas. En este marco, y con relación a la información que se elabora para el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales del Estado sobre *Programas y Actividades* desarrolladas así como sobre los recursos existentes en la Comunidad en el ámbito de la igualdad de oportunidades, cabe destacar:

– La participación en la elaboración de un *"Informe de Seguimiento de la Ley Orgánica 1/2004, de 28 de diciembre, de Medidas de Protección Integral Contra la Violen-*

# VIII. Kanpo Harremanak: Estatukoak zein Nazioartekoak

## Estatukoak

Emakundek iraunkortasunez parte hartu du Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Sektore Batzordearen deialdietan. Bertan, aipaturiko Ministerioaz gain, Autonomia Erkidegoetako Berdintasun Erakundeak barne hartzen dituzten Sailak ordezkatuta daude. Esparru horretan, Erakundeak garaturiko *Programa eta Jarduerei* buruz eta Erkidegoan aukera-berdintasunaren esparruan dauden baliabideei buruz Estatuko Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarentzat egindako informazioari dagokionez, honako jarduera hauek azpimarratu daitezke:

– *"Autonomia Erkidegoetan Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Legearen Jarraipen Txostenean"* parte hartzea.

*cia de Género en el Ámbito Autonómico"*, de carácter cualitativo y cuantitativo. Para su elaboración ha sido necesaria la recopilación de información en la materia a diferentes Administraciones Públicas Vascas.

Emakunde ha participado, asimismo, en diferentes foros, reuniones de trabajo, intercambio de experiencias, documentación, etc., tanto con el Instituto de la Mujer de la Administración Central como con los Institutos y Organismos similares de las otras Comunidades Autónomas.

En el marco de la colaboración con Institutos y Organismos de las distintas Comunidades Autónomas, resaltamos la participación en el *"Encuentro Intercambia 2006"*, organizado por el Instituto de la Mujer y el CIDE (Centro de Investigación y Documentación Educativa) del Ministerio de Educación y Ciencia en Madrid en noviembre de 2006. En este *Encuentro* participaron representantes de las Consejerías de Educación y de los Organismos de Igualdad de las diferentes Comunidades Autónomas para el impulso e intercambio de iniciativas en materia de Coeducación.

## Marco Internacional y Cooperación al Desarrollo

En relación con la Cooperación Internacional se mantiene de forma continuada el intercambio de información con otros Organismos y Centros de Investigación que trabajan en el ámbito de la igualdad de oportunidades facilitando al mismo tiempo el contacto con personas u Organismos de nuestra Comunidad.



En este marco, Emakunde participó en la *"50 Sesión de la Comisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer (CSW)"*, celebrada en la sede de Naciones Unidas en Nueva York entre el 27 de febrero y el 10 de marzo de 2006. En esta ocasión se analizó la incorporación de la perspectiva de género en las entidades del sistema de las Naciones Unidas, se revisaron temas, tendencias y criterios respecto de los problemas que afectan a la situación de las mujeres y la igualdad de las mujeres y los hombres y se repasaron los objetivos estratégicos y la adopción de medidas en las esferas de especial preocupación. Uno de los temas centrales de la conferencia fue la igual participación de la mujer y el hombre en los procesos de adopción de decisiones en todos

Txosten kualitatiboa eta kuantitatiboa da eta, lantzeko, Euskal Administrazio Publiko ezberdinetan gaiari buruz dagoen informazioa bildu behar izan da.

Era berean, Emakundek hainbat foro, lan-bilera, esperientzia-trukaketa, dokumentazio eta bestelako jardueren bidez parte hartu du, nola Administrazio Zentraleko Emakumearen Institutuarekin, hala beste Autonomia Erkidegoetako Erakunde eta Organismoekin.

Beste Autonomia Erkidegoetako Erakunde eta Organismoekin izandako lankidetzaren esparruan, *"Intercambia 2006 Topaketan"* parte hartu izana azpimarratu beharra dago. Emakumearen Institutuak eta Madrilgo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioko CIDEk (Hezkuntza, Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa) antolatu zuten Topaketa, 2006ko azaroan. Bertan, Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Sailetako Berdintasun Erakundeetako ordezkariek parte hartu zuten, Hezkidetzaren alorreko ekimenak bultzatu eta trukatzeko.

## Nazioarteko Esparrua eta Garapenerako Lankidetza

Nazioarteko Lankidetzari dagokionez, aukera-berdintasunaren alorrean jarduten duten beste Erakunde eta Ikerketa Zentro batzuekin informazio-trukea izaten jarraitu du Emakundek. Aldi berean, Erakundeak gure Erkidegoko pertsona edo erakundeekiko harremanak errazten dizkie haiei.



Ildo horretatik, Emakundek "*Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren 50. Ekitaldian (CSW)*" parte hartu zuen Nazio Batuen egoitzan, New Yorken, 2006ko otsailaren 27tik martxoaren 10era bitartean. CSWren saio hartan, Nazio Batuen sistemako erakundeetan genero-irizpidea txertatzea aztertu zen; emakumeen egoeran eta emakume eta gizonen arteko berdintasunean eragina duten arazoen inguruko gaiak, joerak eta irizpideak berrikusi ziren; eta kezka gehien sorrarazten duten esparruetan helburu estrategikoak eta hartu beharreko neurriak errepasatu ziren. Emakumeek eta gizonek maila guztietako erabakietan berdintasunez parte hartzea izan zen Konferentziako gai nagusietako bat. Eztabaida horretarako prestatutako txostenak onartu du oraindik badirela oztopo handiak emaku-

los niveles. El *Informe* preparado para la ocasión reconoce que siguen existiendo obstáculos importantes para la participación efectiva de las mujeres en la adopción de decisiones, que incluyen su infrarrepresentación en ámbitos dominados por los hombres como el estamento militar, la política macroeconómica y las relaciones exteriores y la inexistencia de entornos que permitan tener en cuenta las cuestiones de género en instituciones políticas como los Parlamentos y las Cámaras legislativas y la persitencia de actitudes y comportamientos estereotipados tradicionales. El *Informe* recoge una serie de recomendaciones, entre ellas el establecimiento de cupos, así como sanciones específicas y efectivas por incumplimiento, el establecimiento de medidas de conciliación etc.



Emakunde participó, asimismo, en la *IV Conferencia Anual de la Asamblea de Regiones de Europa por la Igualdad de Oportunidades,* celebrada en Kiruna, Suecia, con la presentación por parte de la Directora, Izaskun Moyua, de la Conferencia *"La Violencia contra las Mujeres en la Comunidad Autónoma de Euskadi: la Prevención en el Ámbito Escolar y la Coordinación en la Atención a las Víctimas".*

En el mismo contexto y aprovechando la invitación del Instituto Cervantes de Túnez, se iniciaron relaciones con el CREDIF (Centro de estudios y documentación e información sobre la mujer) del Gobierno de Túnez y que opera en todo el Zagreb.

Además, y en el marco del trabajo con las Delegaciones del Gobierno Vasco en el exterior, Emakunde participó activamente en la *Conferencia Internacional Know How*, que esta edición se celebró en México, con la presentación de una ponencia. Fruto de esta participación, Emakunde ha establecido contacto y vías para el intercambio y la colaboración con varias instituciones de ese País:

- Instituto Nacional de las Mujeres.
- Comisión especial de feminicidio del Congreso de Diputados.
- Universidad Nacional de México.

meek erabakietan berdintasunez parte hartzeko, horien artean honako hauek: gizonak nagusi diren inguruetan emakumeek ordezkapen txikia dute, hala nola estamentu militarrean, politika makroekonomikoan eta kanpo-harremanetan; erakunde publikoetan, hala nola Legebiltzarretan edo Lege Ganberetan, ez dago genero-kontuak aintzat hartzeko aukera ematen duen ingururik; eta, azkenik, ohiko jokaera estereotipatuek irauten dute. Txostenak hainbat gomendio jasotzen ditu, besteak beste kupoak ezartzea, berariazko zigor eraginkorrak arauak ez betetzeagatik, familia eta lana bateragarri egiteko neurriak, etab.



*Orobat, Aukera Berdintasunaren aldeko Europako Eskualdeen Biltzarraren IV. Konferentzian* parte hartu zuen, Kirunan (Suedia). Bertan, Izaskun Moyua Zuzendariak ondorengo hitzaldia eman zuen: *"Emakumeen aurkako Indarkeria Euskal Autonomia Ekidegoan: eskolaren eremuko prebentzioa eta biktimak artatzeko koordinazioa".*

Testuinguru berean, eta Tunezeko Cervantes Institutuaren gonbidapena aprobetxatuz, Emakundek harremanak hasi zituen Tunezeko Gobernuko CREDIFekin (Emakumeari buruzko Ikerketa, Dokumentazio eta Informazio zentroa). Magreb osoan diharduen erakundea da.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak atzerrian dituen Ordezkaritzekin egindako lanaren esparruan, Emakumek parte aktiboa izan zuten Know How Nazioarteko Konferentzian, Mexikon, txosten bat aurkeztu zuen. Parte-hartzearen ondorioz, Erakundeak herrialde hartako hainbat erakunderekin harremanak eta elkartrukerako bideak ireki ditu. Honako hauek dira:

– Emakumeen Institutu Nazionala.
– Feminizidioaren gaineko Diputatuen Kongresuko Batzorde Berezia.
– Mexikoko Unibertsitate Nazionala.

La Directora de Emakunde, Izaskun Moyua, viajó a Argentina con el objetivo principal de explicar a la colectividad vasca que vive en el País, a través de los Centros Vascos, las políticas públicas de igualdad que se están impulsando desde las Instituciones Vascas. Asimismo, se reunió con representantes del Consejo Nacional de la Mujer, institución dependiente de la Presidencia del Gobierno Argentino, con el objetivo del intercambio de información sobre normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres puesta en marcha por los distintos Gobiernos, así como sobre la concreción y el impulso del mainstreaming o la tranversalidad de las políticas de igualdad en las distintas Instituciones. Mantuvo también un encuentro con investigadoras de la cátedra *Género, Sociedad y Políticas de la Facultad Latinoamericana de Ciencias Sociales (FLACSO)*, Argentina.

En relación con la Cooperación al Desarrollo, durante el año 2006, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ha recibido diversas visitas procedentes, principalmente, de Latinoamérica, que han permitido el intercambio de información y experiencias con el fin de analizar la posibilidad de colaboraciones futuras con nuestra Comunidad. Ha facilitado, asimismo, información sobre los ámbitos de actuación, recursos y vías de contacto con las ONGD's de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ha mantenido, también, un contacto regular con ONGD's vascas a fin de facilitar contactos y asesorar en relación con la inclusión de la perspectiva de género en la elaboración de sus *Proyectos de Cooperación*. En este sentido, se ha seguido impulsando el cumplimiento de los compromisos adquiridos en la *"Plataforma de Acción de la IV Conferencia Mundial de las Mujeres"* celebrada en Beijing en 1995 y en la *"Conferencia sobre Población"* celebrada en el Cairo, especialmente en los aspectos relativos a salud reproductiva.

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer participó en la presentación del *Informe Anual* de UNFPA-Fondo de Población de las Naciones Unidas sobre Derechos Sexuales y Reproductivos, el 20 de julio de 2006 en Bilbao.



Argentinara egin zuen bidaian, Emakundeko Zuzendari Izaskun Moyuak lurralde hartan bizi den euskal kolektibitateari euskal erakundeek berdintasunaren alde bultzatutako politiken berri eman zion, euskal etxeen bidez. Orobat, Argentinako Gobernuaren mendeko Emakumearen Kontseilu Nazionaleko ordezkariekin elkartu zen, bi gobernuek emakume eta gizonen berdintasunaren alorreko arauei buruzko informazioa elkarri emateko. Azkenik, Argentinako Gizarte Zientzien Latinoamerikar Fakultateko (FLACSO) Genero, Gizarte eta Politika katedrako ikertzaileekin elkartu zen.

Garapenerako Lankidetzaren aldetik, 2006an zehar Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak zenbait bisita hartu ditu, batez ere Latinoamerikatik etorriak. Bisita horiei esker, informazioa eta esperientziak trukatu dizkiote elkarri, ordezkari horiek gure Erkidegoarekin gerora elkarlanean jarduteko aukerak aztertzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEei ere informazioa eman die Erakundeak jarduera-eremuei, baliabideei eta harremanetarako bideei buruz.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak euskal GGKEekin ere izan ditu kontaktuak, harremanak erraztu eta aholku emateko, *Lankidetza Proiektuak* egiteko garaian genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez. Zentzu horretan, 1995ean Beijingen izandako *"Emakumeen IV. Mundu Konferentziaren Ekintza Plataforman"* eta Kairoko "*Biztanleriari buruzko Konferentzian"* hartutako konpromisoak bete daitezen bultzatzen jarraitu du, ugaltze-osasunarekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, batik bat.

Bestalde, UNFPA Sexu eta Ugaltze Eskubideei buruzko Nazio Batuetako Biztanleria Fondoaren urteko txostenaren aurkezpenean parte hartu zuen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariak, 2006ko uztailaren 20an, Bilbon.



Emakunde mantuvo contacto con un grupo de mujeres samis que participaron en el *Congreso SARE* y que visitaron Emakunde, donde pudieron conocer la labor del Instituto, así como exponer la situación de su Pueblo. Emakunde acompañó a la delegación de mujeres samis al Parlamento Vasco, donde se reunieron con la Presidenta de la Cámara Izaskun Bilbao.

Asimismo, la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer recibió el 15 de mayo de 2006 a Aminetu Haidar, Defensora Saharaui de los Derechos Humanos, durante su gira por Europa. En el transcurso de la visita, Izaskun Moyua le trasladó su interés por conocer su situación personal en el caso de que fuese nuevamente detenida a su regreso a los Territorios Ocupados por Marruecos, tal y como preveía la representante saharaui.

Protocolo de Cooperación y Colaboración entre Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y la Unión Nacional de Mujeres Saharauis

En el marco del *"Protocolo de Cooperación y Colaboración entre el Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y la Unión Nacional de Mujeres Saharauis"*, suscrito en 1999, se establecieron diversas líneas de actuación dirigidas a fomentar la sensibilización y el conocimiento de la población vasca sobre la labor que realiza la Unión Nacional de Mujeres Saharauis (UNMS). En este sentido, el 7 de junio de 2006 se celebró la *Reunión de Seguimiento y Coordinación* de las actividades que se llevan a cabo, en la que se contó con la participación de la Secretaria General de la UNMS, Fatma El Medhi y en la que dio cuenta del trabajo desarrollado por la Unión para conseguir la sensibilización, implicación y compromiso de las mujeres saharauis en incrementar su presencia en el Secretariado General del Frente Polisario, en su Parlamento y en las Instituciones del Gobierno de la RASD en los Campamentos de Refugiadas y Refugiados.

Por otra parte, también se participó en las reuniones de la Comisión Ejecutiva del *"Proyecto de Fortalecimiento de la Unión Nacional de las Mujeres Saharauis"* que se está desarrollando entre la Unidad de Coordinación de la Cooperación Vasca Municipal existente en Euskal Fondoa, los Ayuntamientos de Basauri, Bilbao, Ermua, Getxo y Vitoria-Gasteiz. Se acudió a todas las *Reuniones* y se participó en

*SARE Biltzarrean* parte hartu zuten eta Emakunde bisitatu zuten sami emakumezko talde batekin ere izan zen harremanetan Erakundea. Samiek Emakunderen lana ezagutzeko eta euren herrialdearen egoeraren berri emateko aukera izan zuten. Erakundea emakumezko samien ordezkaritzarekin batera azaldu zen Eusko Legebiltzarrera eta, bertan, Legebiltzarreko lehendakari Izaskun Bilbaorekin egin zuten bilkura.

Halaber, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendariak giza eskubideen defendatzaile hartu zuen Aminetu Haidar sahararra, 2006ko maiatzaren 15ean, Europan zehar bisitan zela. Bilkura horretan, Izaskun Moyuak adierazi zion haren egoera pertsonala ezagutu nahi zuela, Marokok Okupatutako Lurraldeetara itzultzean atxilotuz gero, saharar ordezkariak aurreikusten zuen bezala.

### Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren arteko Lankidetza eta Laguntza Protokoloa

*"Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren arteko Lankidetza eta Laguntza Protokoloa"* 1999an sinatu zen eta, horren esparruan, esku-hartzeko ildo batzuk finkatu ziren, euskal herritarren artean sentsibilizazioa eta ezagutza sustatzeko, Saharako Emakumeen Batasun Nazionalak (UNMS) aurrera daraman lanaren inguruan. Zentzu horretan, 2006ko ekainaren 7an, burutu diren jardueren Jarraipena eta Koordinazio Bilera egin zen eta UNMSko Idazkari Nagusi Fatma el Medhik parte hartu zuen. Fronte Polisarioko Idazkaritza Nagusian, Parlamentuan eta Errefuxiatuen Esparruetako RASDeko Gobernuko Erakundeetan Saharako emakumeen partaidetza handitzeko Batasunak sentsibilizazioa, inplikazioa eta konpromisoa lortzeko egindako lanaren berri eman du El Mehdik bilera horretan.

Bestalde, *"Saharako Emakumeen Batasun Nazionala Sendotzeko Proeiktuan"* ere parte hartu du Emakundek, Euskal Fondoan dagoen Euskal Udalen Lankidetzaren Koordinazio Unitatearekin eta Basauri, Bilbo, Ermua, Getxo eta Vitoria-Gasteizko Udalekin batera. *Bilera* guztietan egon zen Erakundea eta 2006ko abenduaren 14an izandako Samrako Wilayako Emakumearen Etxearen inaugurazioan

la inauguración de la Casa de la Mujer en la wilaya de Smara que tuvo lugar el 14 de diciembre de 2006. Con tal motivo la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer acudió a los campamentos entre el 13 y el 16 de diciembre de 2006 y durante su estancia mantuvo entrevistas con el Presidente de la República Árabe Saharaui Democrática, con el Primer Ministro y con la Secretaria de Estado para la Emancipación de las Mujeres y la Secretaria General de la Unión Nacional de Mujeres Saharauis, entre otras personas.

Durante el año 2006, Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ha sido, junto con la Asociación de Amigos y Amigas del Sahara en Araba-Álava, el Frente Polisario, el Intergrupo Parlamentario "*Paz y Libertad para el Sahara*", la Dirección de Cooperación del Gobierno Vasco, la Diputación de Araba-Álava, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Euskal Fondoa, Caja Vital y la Federación Estatal de Instituciones Solidarias con el Pueblo Saharaui, responsable de la organización de la *32 Conferencia Europea de Coordinación del Apoyo al Pueblo Saharaui*, celebrada en Vitoria-Gasteiz del 3 al 5 de noviembre de 2006. Esto ha supuesto participar en *Reuniones de la Comisión Organizadora de la E.U.C.O.C.O. 2006* y, teniendo en cuenta su responsabilidad de impulso y dinamización del *Taller sobre "Mujeres y Equidad de Género"* se ha continuado con los trabajos iniciados en octubre del pasado año al objeto de preparar el mismo. Dado que se ha involucrado en su organización a entidades no sólo de la CAPV sino también de otros lugares del Estado, lo que ha supuesto que, además de las reuniones presenciales, se haya intercambiado información y se haya trabajado en red aprovechando las nuevas tecnologías. Los objetivos que se perseguían eran dos:

Por una parte, preparar el *"Taller Mujer de la E.U.C.O.C.O."*, es decir, elaborar un *Programa* con los contenidos y cronograma de las sesiones de trabajo y, por otra, constituir el germen de la *Red Estable de Trabajo y Apoyo* a la Unión Nacional de Mujeres Saharauis.

La Directora de Emakunde participó en la *Clausura de la Conferencia* y desde el Instituto Vasco de la Mujer se dina-

ere parte hartu zuen. Helburu horrekin, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaria kanpamentuetan izan zen 2006ko abenduaren 13tik 16ra bitartean eta, bere egonaldian, Errepublika Arabiar Saharar Demokratikoko Lehendakariarekin, Lehen Ministroarekin, Emakumeen Emantzipaziorako Estatu Idazkariarekin eta Saharar Emakumeen Batasun Nazionaleko Idazkariarekin izan zen, besteak beste.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Arabako Sahararen Lagunen Elkartearekin, *"Bakea eta Askatasuna Sahararako"* Legebiltzarreko Taldearekin, Eusko Jaurlaritzako Lankidetza Zuzendaritzarekin, Arabako Foru Aldundiarekin, Vitoria-Gasteizko Udalarekin, Euskal Fondoarekin, Vital Kutxarekin eta Saharako Herriarekin Solidarioak diren Erakundeen Estatu Federazioarekin batera, Saharako Herriarentzako Laguntza Koordinatzeko 32. Europar Konferentzia (EUCOCO) antolatzeko arduraduna izan da 2006. urtean. Konferentzia Vitoria-Gasteizen izan zen, 2006ko azaroaren 3tik 5era bitartean. Ildo beretik, Emakundek E.U.C.O.C.O. 2006 Antolatzeko Batzordearen bileretan ere parte hartu du eta, *"Emakumeak eta Genero Berdintasunari"* buruzko Mintegia dinamizatu eta bultzatzeko duen erantzukizuna kontuan hartuta, iazko urrian hasitako lanari eutsi dio, aipatutako ekitaldia prestatzeko. Antolatzeko ardura duten erakundeak, EAEkoak ez ezik, Estatuko beste leku batzuetakoak ere direnez, presentziazko bilerez gain, informazioa trukatu eta sarean lan egin da, teknologia berriak aprobetxatuz. Helburuak bi ziren:

Alde batetik, EUCOCOko Emakume Mintegia prestatzea, hau da, lan-saioen edukiak eta kronograma jasoko dituen *Programa* bat lantzea eta, bestetik, Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari *Laguntzeko Sare Egonkorra* izango denaren ernamuina eratzea.

Emakundeko Zuzendariak Konferentziaren bukaeran parte hartu zuen eta Emakumearen Euskal Erakundeak, Euskadi-

mizó, en relación con otras entidades de Euskadi y del Estado, el *Taller*.

Por último, cabe señalar que Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer ha proseguido en su trabajo de sensibilización a la Comunidad Autónoma del País Vasco sobre la situación del Pueblo Saharaui y más en concreto de sus mujeres y ha propiciado *Contactos* entre las Asociaciones de Mujeres de nuestra Comunidad y los Grupos de Mujeres de las distintas Dairas y Wilayas de los Campamentos de Refugiadas y Refugiados en Tindouf, al objeto de estrechar las relaciones y propiciar vías de colaboración más directas y cercanas. En este sentido, se ha informado a las Asociaciones y Grupos de Mujeres con domicilio social en la Comunidad Autónoma del País Vasco para que participen de forma activa en la *II Caravana Vasca con el Sahara "Alimenta Una Esperanza"*, que salió rumbo a los campamentos el 11 de febrero de 2006.



En la misma línea de apoyo al Pueblo Saharaui, se suscribió en abril de 2006 el *"Protocolo de Solidaridad"* entre cuyos principios está el prestar una espacial atención a la situación y necesidades específicas de las mujeres saharauis, pilar fundamental de la superviviencia del Pueblo Saharaui a lo largo de todos estos años de conflicto.

Para finalizar, reseñar que Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer participa de forma activa, tanto en el Consejo Asesor de Cooperación al Desarrollo de Euskadi como en la Comisión Gestora del Fondo de Cooperación al Desarrollo, incorporando cuestionares relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres. En el marco de estos órganos de participación, Emakunde colabora en un *Convenio* con la organización SOF de Brasil.

ko eta Estatuko beste entitate batzuei begira, Mintegia dinamizatu zuen.

Azkenik, adierazi behar da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak lanean jarraitu duela Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriak Saharako Herriaren eta, bereziki, bertako emakumeen egoeraz sentsibilizazioa bereganatzeko. Ildo horretatik, Emakundek Euskal Autonomia Erkidegoko Emakume Elkarteen eta Tindoufeko Errefuxiatu Esparruetako hainbat Daira eta Wilayatako Emakume Taldeen arteko kontaktuak erraztu ditu, harremanak estutu eta lankidetza-bide zuzen eta hurbilagoak bultzatzeko helburuz. Zentzu beretik, 2006ko otsailaren 11n kanpamentuetara irtendako *"Itxaropena Elikatu"* izeneko *Shararen aldeko II. Euskal Karabanan* era aktiboan parte hartzeko dei egin zien Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Emakume Elkarte eta Taldeei.



Saharako Herriari laguntzeko ildo horretatik, *Elkartasun Protokoloa* sinatu zen 2006ko apirilean. Haren oinarri nagusietako bat saharar emakumeen egoeran eta premietan arreta berezia jartzea da, gatazkak iraun duen urte guztietan Saharako Herriak aurrera irauteko funtsezko zutabea izan baita hango emakumea.

Bukatzeko, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak era aktiboan parte hartu du bai Euskadiko Garapenerako Lankidetzako Aholku Batzordean baita Garapenerako Lankidetzako Funtsa Kudeatzeko Batzordean ere, emakume eta gizonen berdintasunari dagozkion kontuan txertatuz. Parte hartzeko organo horien esparruan, Emakundek elkarlanean dihardu Hitzarmen batean, Brasilgo SOF erakundearekin.


Su papel fue fundamental para la historia de la democracia.
El tuyo lo es para el futuro.
Con tu voz y con tu voto.
Funtsezko papera bete zuten demokraziaren historian.
Zeure ahotsaz eta zeure botoaz.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO